

DEBABARRENEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA.

I. LIBURUKIA

TESTU BATEGINA

BEHIN BETIKO ONARPENA

SUSTATZAILEA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACION DEL TERRITORIO
Y MEDIO AMBIENTE

EGILEAK:



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA
OBRA HIDRAULIKO ETA HIRIPLANGINTZA DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE OBRAS HIDRAULICAS Y URBANISMO

2005eko apirila

I.- TALDE IDAZLEA

Lan honetan honakoek hartu dute parte:

➤ ZUZENDARITZA

• EUSKO JAURLARITZA

LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILBURUA

- SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL

LURRALDE ANTOLAMENDU ETA BIODIBERTSITATE SAILBURUORDEA

- ABEL MUNIATEGI ELORZA

LURRALDE ANTOLAMENDUKO ZUZENDARITZA

- MARTÍN ARREGUI SAN MIGUEL. Zuzendaria

TALDE TEKNIKOA:

- JESÚS MARÍA ERQUICIA OLACIREGUI. Arkitekto koordinatzailea
- JOSÉ RAMÓN VARELA BALENCIAGA. Arkitektoa
- PILAR MONJAS RUBIO. Arkitektoa
- MERCEDES IZQUIERDO FERNÁNDEZ. Zuzenbidean lizentziatua.

• GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

LURRALDE ANTOLAKETA ETA SUSTAPENERAKO DEPARTAMENTUA

LURRALDE ANTOLAKETA ETA SUSTAPENERAKO DIPUTATUA

- KOLDO AZKOITIA ZUBIZARRETA

LURRALDE ANTOLAKETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

- JOSÉ RAMÓN IZKEAGA ZINKUNEGI. Zuzendaria.

TALDE TEKNIKOA:

- MAITE CELAYA ERRAZU. Arkitekto koordinatzailea.
- ENRIQUE SANGÜESA MAYER. Arkitektoa
- MAITE IRIBARREN GOICOECHEANDIA. Zuzenbidean lizentziatua



➤ LAGUNTZA TEKNIKOA

• ESTUDIO K

TALDE TEKNIKOA:

- IÑAKI ARRIETA MARDARAS. Arkitekto koordinatzailea.
- AITOR SARRIA BILBAO. Arkitekto koordinatzailea.
- NEREA SALCEDO GONZÁLEZ. Arkitekto
- MARTA BARRÓN LÓPEZ. Arkitekto
- JESUS POZO COFRECES. Delineatzaile

LAGUNTZAILEAK:

- EDUARDO GONZÁLEZ PÉREZ. Biologo
- ALBERTO GOSÁ OTEIZA. Biologo
- DAVID REBOLLO AGUAYO. Soziologo
- BEGOÑA ANDUEZA SAN MARTIN. Soziologo
- MARÍA ARRILLAGA IBARZABAL. Soziologo
- IKERNE ARTEAGA ERRASTI. Geografo
- JOSE ANGEL BILBAO ALCALDE. hirigile abokatu

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA. SARRERA	7
1.1. AURKEZPENA	7
1.2. OSAERA	7
1.3. LEGE ESPARRUA	8
1.3.1. OINARRIZKO LEGE-ESPARRUA	8
1.3.2. LURRALDE ERREFERENTZIAKO LEGE ESPARRUA. LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK	8
1.3.3. HIRIGINTZA ERREFERENTZIAKO LEGE ESPARRUA	9
1.4. ABIAPUNTUKO OINARRIAK	10
1.4.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA GARAPEN IRAUNKORRA	10
1.4.2. LURRALDEAREN BITARTEKO ESKALAKO ANTOLAMENDUA ETA HIRI- PLANGINTZA	11
1.4.3. LURRALDEAREN ZATIKO PLANA GARATZEKO OINARRI METODOLOGIKOAK	11
2. KAPITULUA. GAUR EGUNGO EGOERAREN INFORMAZIO SINTEZIA ETA DIAGNOSTIKOA	13
2.1. GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO LABURRA	13
2.1.1. EKONOMIAREN DATUAK	14
2.1.2. INGURUNE FISIKOAREN DATUAK	16
2.1.3. KOKAGUNEEN DATUAK	21
2.1.4. AZPIEGITUREN ETA ZERBITZUEN DATUAK	27
2.1.5. EKIPAMENDUEN DATUAK	31
2.2. LURRALDEAREN ZATIKO PLANA DISEINATZEKO INDAR IDEIAK	36
2.3. EKARPEN PROSPEKTIBOAK. PLAN ESTRATEGIKOAK	36
3. KAPITULUA. LURRALDE EREDUA	37
3.1. LURRALDE EREDUAREN OINARRIZKO ALDERDIAK	37
3.2. EREMU FUNTZIONALEKO UDALERRIEN KARAKTERIZAZIO FUNTZIONALA	39
4. KAPITULUA. IRIZPIDE, HELBURU ETA PROPOSAMEN OROKORRAK	42
4.1. INGURUNE FISIKOA	42

4.1.1.	LURZORUAREN OKUPAZIOA	42
4.1.2.	LANDAREDI NATURALA	42
4.1.3.	FLORA ETA LANDAREDIA	43
4.1.4.	FAUNA ETA HABITATAK	44
4.1.5.	FUNTSEZKO ZIKLO HIDROGEOLOGIKOAK	44
4.1.6.	BALIABIDE HIDROLOGIKOAK	45
4.1.7.	ONDARE NATURALISTIKOA ETA KULTURALA	45
4.1.8.	LANDA PAISAIA	46
4.1.9.	INGURUNE FISIKORAKO PROPOSAMENAREN LABURPENA	47
4.2.	KOKAGUNEAK	52
4.2.1.	BIZITEGI LURZORUA ETA HIRI EGITATEA	52
4.2.2.	BIZITEGI LURZORUAREN ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOA	54
4.2.3.	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA ETA HIRI EGITATEA	59
4.2.4.	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORU ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOA	63
4.2.5.	POLUITUTAKO LURZORUAK	67
4.2.6.	BIGARREN BIZITEGIA ETA TURISMO BALIABIDEAK	68
4.2.7.	LURRALDERAKO SARBIDE ESPARRUAK	71
4.3.	ESKUALDEKO EKIPAMENDUAK	72
4.4.	ESKUALDEKO AISIALDIRAKO EREMUAK	72
4.5.	AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK	73
4.5.1.	ERREPIDEAK	73
4.5.2.	TRENBIDEA	75
4.5.3.	PORTUAK	75
4.5.4.	OBRA HIDRAULIKOAK	76
4.5.5.	HONDAKIN SOLIDOAK	78
4.5.6.	TELEKOMUNIKAZIO AZPIEGITURAK	78
4.5.7.	ENERGIA AZPIEGITURAK	79
4.5.8.	OINEZKOEN ETA BIZIKLETEN KOMUNIKABIDEAK	79

5. KAPITULUA. DOKUMENTUA LURRALDEAREN ARLOKO PLANEN ALDEAN	81
5.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (ISURIALDE KANTAURIARRA)	81
5.2. BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO ERREPIDEEN ARLOKO PLANAK	82
5.3. HAIZE ENERGIA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA	82
5.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRENBIDEEN AZPIEGITURA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA	82
5.5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ITSASERTZA ANTOLATU ETA BABESTEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA	83
5.6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURU HEZEAK BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA	84
5.7. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA ETA BASOAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA	84
5.8. ETXEBIZITZEN SUSTAPEN PUBLIKORAKO LURZORUA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA	86
5.9. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA SORTZEKO ETA SALTOKI HANDIAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA	87
5.10. EUSKAL KULTURA ONDAREA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA	89
I. ERANSKINA. BIBLIOGRAFIA BILDUMA. INGURUNE FISIKOA.	93
I.I. ERANSKINA. INTERESEKO NATURA ESPAZIOAK.	94
I.II. ERANSKINA. ONDARE NATURALISTIKOA: FLORA.	96
I.III. ERANSKINA. ONDARE NATURALISTIKOA: FAUNA.	99

1. KAPITULUA. SARRERA

1.1. AURKEZPENA

4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzkoak (LAL), honako tresna hauek ezarri zituen Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea antolatzeko: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak.

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez behin betiko onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, Lurralde Antolakuntzari buruzko Legean araututako gainerako antolamendu-tresnak eta lurzorua araubideari buruzko legerian aurreikusitako antolamendu-planak formulatzeko erreferentzia-esparru orokorra osatzen dutenak.

Artezpideak behin betiko onartu ondoren, "Debabarreneko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana" dokumentu hau batera bultzatu dute Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Herri Lan eta Hirigintza Departamentuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailaren laguntzarekin.

1.2. OSAERA

Debabarreneko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana honako dokumentu hauek osatzen dute:

I. LIBURUKIA.

1. dokumentua. PLANAREN AZALPEN MEMORIA.

- C 1- SARRERA.
- C 2- INFORMAZIO SINTESIA ETA EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA.
- C 3- PROPOSATUTAKO LURRALDE EREDUA.
- C 4- IRIZPIDE, HELBURU ETA PROPOSAMEN OROKORRAK.
- C 5- DOKUMENTUA ARLOKO PLANEKIN EGIAZTATZEA.

II. LIBURUKIA.

2. dokumentua. ANTOLAMENDU ARAUAK.

- C 1- LURRALDE EREDUAREN OINARRIAK.
- C 2- LURRALDE EREDUAREN INGURUNE FISIKOA.
- C 3- LURRALDE EREDUAREN KOKAGUNE SISTEMA.
- C 4- LURRALDE EREDUAREN AZPIEGITURAK.
- C 5- LURRALDE EREDUAREN ESKUALDE EKIPAMENDUAK.

C 6- LURRALDE EREDUAREN LURRALDE BIGUNA.

C 7- LURRALDEAREN ZATIKO PLANA APLIKATZEKO ARAUAK.

3. dokumentua. BESTE PLANGINTZA BATZUEN GAINEKO ERAGINAK.

C 8- UDAL PLANGINTZEN GAINEKO ERAGINAK.

C 9- ARLOKO PLANGINTZEN GAINEKO ERAGINAK.

4. dokumentua. AZTERLAN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA ETA EGIKARITZE PROGRAMA.

C 11- AZTERLAN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.

C 12- EGIKARITZE PROGRAMA.

5. dokumentua. PLANOAK.

1. Ingurune fisikoa 1. Ingurune fisikoaren antolamendua: Babestu eta hobetu beharreko garrantzi bereziko esparruak.

2. Ingurune fisikoa 2. Ingurune fisikoaren antolamendua: Oinarrizko antolamendu-kategoriak.

3. Kokaguneen sistema.

4. Lurralde biguna.

5. Garraio eta komunikabideen sareak.

6. Zerbitzu-sareak.

7. Eredua sintesia.

8. Hiri-plangintzarako irizpideak, printzipioak eta arau orokorrak.

9. Eremu funtzionala ingurunean integratzea.

1.3. LEGE ESPARRUA

1.3.1. Oinarrizko lege-esparrua

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea. 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa. Eusko Jaurlaritza.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak. 28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa. Eusko Jaurlaritza.

3. 22/88 Legea, Itsasertzena.

4. 10/1998 Legea, apirilaren 8koa, Landa-garapenarena.

1.3.2. Lurralde-erreferentziako lege-esparrua. Lurraldearen Arloko Planak

Behin betiko onartuak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Isurialde kantauriarra.
- Bizkaiko Errepideen Arloko Plana.
- Haize-energia Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

Izapidetzen ari direnak:

- Gipuzkoako Errepideen Arloko Plana.
- Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Kultura-ondarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

1.3.3. Hirigintza-erreferentziako lege-esparrua

Indarrean dauden udal-plangintza orokorrak:

- Debako A motako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Behin betiko onarpena: 1985-04-23.
- Eibarko B motako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Behin betiko onarpena: 1989-06-20.
- Elgoibarko B motako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Behin betiko onarpena: 1992-10-27.
- Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Behin betiko onarpena: 2000-01-28.
- Mendaroko B motako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Zatiko onarpena eta indargabetzea: 1991-08-07.
- Mallabiko B motako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Behin betiko onarpena: 1991-07-29.
- Mutrikuko B motako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Behin betiko onarpena: 1996-07-03.
- Soraluze-Placencia de las Armasko B motako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Behin betiko onarpena: 1998-11-23.

Berraztertzen ari diren plangintzak:

- Debako A motako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Hasierako onarpena: 2003-07-18.
- Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Aurrerapena: 2000-10-18.
- Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Behin-behineko onarpena: 2003-04-08.
- Mendaroko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Behin-behineko onarpena: 2003-05-22.
- Mutrikuko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak. Aurrerapena: 2003-06-10.

Hirigune Historikoen Barne Berrikuntzako Plan Bereziak.

- Ermuko Hirigune Historikoa Osoan Birgaitzeko Plan Berezia. Behin betiko onarpena: 1990-03-16.
- Mutrikuko Hirigune Historikoa Osoan Birgaitzeko Plan Berezia - Aurrerapena.

1.4. ABIAPUNTUKO OINARRIAK

1.4.1. Lurraldearen antolamendua eta garapen iraunkorra

Gizakiaren eta natura-baliabideen arteko erlazioa konsubstantziala da gizateriaren garapen-prozesuarekin.

Gizakiak hasiera batean bizirauteko ustiatzen ditu baliabide horiek eta naturarekin duen erlazioa orekan oinarritzen da. Gizakiaren garapenak biziraupenaren kontzeptua gainditzen duenean, oreka hori urratzen hasten da eta gizakiak arrazionaltasunaren terminoa sartu beharra dauka baliabideen erabileran, baliabideok neurritz gain ustiatzeko joera murrizteko.

Uste osoa dugu ingurumen-politikaren azken helburua gizakia babestea eta bizitza baldintzatzen duten baliabideak kontserbatzea izan behar dela: airea, ura, lurzorua, lehengaiak, habitata, paisaia, natura-ondarea eta kultur ondarea; baina betiere kontuan izanda oreka harmonikoa lortu beharra dagoela jarduera ekonomikoen garapenaren eta natura-baliabideen erabilera arrazionalaren artean, baliabideok jarduera horien oinarria ez ezik muga ere baitira.

Ingurumen-iraunkortasuna ingurumen sozial eta espaziala naturaren testuinguruan sartzan duen eta baliabideak babesteko eta arrazionalki kudeatzeko helburuak lortu nahi dituen osoko ekintza gisa ulertzen da. Lurralde batean garapenak abian egoteak ez du zertan gainditu ezin den kezkatzeko arrazoia izan. Helburua garapen horiek behar bezala gauzatzea eta eragin negatibo txikienak sor ditzaketan lekuetan, hots, sentikortasun txikieneko lurzoruetan kokatzea izan behar da.

Konponbideak berrikuntza tekniko eta sozialen mesedegarri diren baldintzak sortuz aurki daitezke, ingurumen-gatazkak beren eragile diren faktoreak aldatuz konpontzeko aukera eman baitezakete, gizarte-garapeneko prozesuak ingurumen-murrizketa estereotipatueta baldintzatu eta mugatu gabe.

Arrazoi horiek oinarri hartuta, lurralde-ikuspegia ingurumen arloa eta gizarte arloa bateratzen dituen esparrua dela uste dugu, natura eta gizakia banandu ezin den multzoa osatzera iritsi arte elkarrekin erlazionatzen dituen esparrua, belaunaldi barneko eta belaunaldi arteko elkartasuna azpimarratuz.

1.4.2. Lurraldearen bitarteko eskalako antolamendua eta hiri-plangintza

Lurraldearen antolamendua gizarte baten politika ekonomiko, sozial, kultural eta ekologikoaren espazio-adierazpidetzat har daiteke.

Adierazitako lurralde-antolamenduaren eskala txikiena, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen aginduz, eremu funtzionala da, muga jakin batzuk izatea baino gehiago problematika komuna izatea bereizgarri duena; hori dela-eta, eremu funtzionalek ez dute zertan administrazio-banaketa zorrotzekin bat etorri.

Lurralde-antolamenduaren eta udaleko hiri-plangintzaren arteko alde nagusia hiri-plangintza lehentasunez arautzailea izatean datza, izan ere lurraldearen antolamenduak eta proposamen-ereduak neurri handiagoan jotzen baitute ekintza egituratzaileak gauzatzera. Ekintza egituratzaileen, joeren eta artezpideen asmoa ez da lurzorua araubidea arautzea, dagoen testuinguruan bere bokazioa definitzea eta lurraldea eraikitzeke ekintza adierazgarrienen programazioa eta kudeaketa orientatzea baizik.



Mendaro

Lurraldearen Zatikoko Planak, eremu funtzionaleko lurraldea osoan antolatzen duen tresna den heinean, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen eredutik eskualdatutako lurralde-politikaren helburuak ezarri beharko ditu, udal-interesak eta sektorialak uztartuz, eta jardun- eta antolamendu-ildo egituratzaileen proposamena izango da horren emaitza. Proposamen-multzo horrek lurraldearen egituraren azken irudia hartzen du bere baitan.

Lurraldearen Zatikoko Planaren balioa udalekin, aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin itundu izanean eta bere jardunetarako eduki loteslea onartu izanean datza.

1.4.3. Lurraldearen Zatikoko Plana garatzeko oinarri metodologikoak

Lurraldearen Zatikoko Plan hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidrauliko eta

Hirigintza Departamentuak eskainitako oinarri metodologikoak erreferentziatzat hartuta egin da.

2001eko otsailean egin genuen "Planaren irizpide, helburu eta proposamen orokorren berrespenaren aurreko balorazio globala" izeneko aurretiazko lehen txostenaren 5. puntuan, erabilitako eta jarraitu beharreko lan-metodologia azaldu nahian, honako hau genioen:

"Proposatutako lurralde-ereduaren hipotesiek hasiera batean koherentetzat jotzen diren lan-ildoak definitzea dute xede".

"Zirriborroan agertzen diren proposamenek gerora eremu funtzionaleko lurraldea antolatzeke neurrien garapen osoa izango denaren ernamuinaosatzen dute."

"Proposamenen oinarrizko helburua udalen, erakundeen, adituen, Etor Elkartearen eta gizarte antolatuko taldeen testuinguruan eztabaida eta parte-hartzea sustatzea izan da".

"Hipotesiaren kontzeptua, jarraitutako lan-metodologian, proposamenak sortzeko mekanismotzat ulertzen da. Izan ere, aurrerantzean Lurraldearen Zatikoko Planaren behin betiko bertsiorako jarraituko den metodologia hasieran planteatutako postulatuak egiaztatzeke edo ezeztatzeke metodo batean datza".

Hasierako hipotesiak hautatzeko era hipotesiok kritikatzeko, onartzeke edo baztertzeke eta hipotesi berriak proposatzeko da, betiere era positiboan eginda, justifikatuta eta lankidetzaren senarekin.

Azken finean, egungo lurralde-eredua eremu funtzionalari garapen iraunkorra izateke eta lurralde lehiakorra, erakargarriagoa eta orekatuagoa eraikitzeke aukera emango dion egoera baterantz bideratzeke ahalbidetuko duen lan-ildoak definitu nahi izan da, ituntze-prozesuarekin bat etorriz.

2. KAPITULUA. GAUR EGUNGO EGOERAREN INFORMAZIO SINTESIA ETA DIAGNOSTIKOA

2.1. GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO LABURRA

2001. urtean Debabarreneko eremu funtzionaleko izatezko biztanleria 72.132 biztanlekoa da; horrek esan nahi du biztanle-galera handia izan duela, azken 20 urteetan guztira 13.555 biztanlekoa hain zuzen. Beraz, industria-krisialdiak eragindako biztanleria-atzerakada bortitza izan duen eremua da.

	Biztanle-galera (bizt.)	Guztizkoaren gaineko %	Hazkunde-tasa
1981-1986	- 4.393	- 5'13	- %1'05
1986-1991	- 3.745	- 4'61	- %0'94
1991-1996	- 2.663	- 3'43	- %0'70
1996-2001	- 2.734	- 3,82	- %0,76

Demografia-atzerakada hori hazkunde begetatibo negatiboari zor zaio neurri batean, baina migrazio-saldo negatiboaren ondorio da batik bat.

Eremu funtzional osoko biztanleriaren beherakada horrek, ordea, kostaldeko udalerrietan izandako hazkunde txikia ezkututzen du. Hazkunde horrek Debako udalerriak duen hazkunde begetatibo positiboa hartzen du sostengu, eta neurri handiagoan, kostaldeko bi udalerrietako migrazio-saldo positiboa, nahiz eta Mutriku kasuan askoz ere nabarmenagoa izan.

	1981-1986		1986-1991		1991-1996		1996-2001	
	Bizt.	% tasa	Bizt.	% tasa	Bizt.	% tasa	Bizt.	% tasa
Deba-Mutriku	+364	+0'39	+69	+0'15	+295	+0'62	+240	+0,48
Elgoibarko esparrua	-1.532	-1'18	-1.078	-1'63	-454	-0'73	-319	-0,54
Eibarko esparrua	-5.240	-0'94	-2.736	-0'96	-2.504	-0'92	-2.655	-1,05

Barrualdeko esparruetan, saldo begetatiboak negatiboak dira oraindik ere, baina historikoki negatiboak izan diren migrazio-saldoen joera saldo positibo txikietarantz aldatu da azken urteotan, udalerrri horien saldo begetatibo negatiboa neurri batean arinduz.

Horrenbestez, Debabarreneko eremu funtzionalean bi joera demografiko bereiz daitezke: hazkunderako joera nabarmena kostaldean, Gipuzkoako kostaldeko udalerrien batez besteko hazkundera iristen ez den arren, eta hazkunde motelekoa barrualdean.

Biztanleria aski kontzentratuta dagoela esan daiteke. Eskualdeko biztanleen %75 baino gehiago Ermua-Eibar eta Elgoibarko hiriguneetan bizi dira. Gaur egungo kontzentrazio hori gorabehera, joera beheranzkoa da.

Lurralde-esparruetan biztanleriaren pisuak azken urteotan izan duen bilakaera honako hau izan da:

	1986	1991	1996	2000	2001
Deba-Mutriku esparrua	%11'51	%12'16	%12'98	%13,39	%13,81
Elgoibarko esparrua	%16'90	%16'32	%16'30	%16,37	%16,48
Eibarko esparrua	%71'59	%71'52	%70'72	%70,24	%69,72

Kostaldeko esparruak eskualdearen multzoan duen biztanleriaren pisuak gora egiteko joera duela ikus daiteke, joera demografiko positiboaren ondorioz, jakina, eta barnealdeko udalerriena, berriz, gero eta txikiagoa da.

LABURPEN TAULA: BIZTANLERIA

	IZATEZKO BIZTANLERIA 2001	EREMU FUNTZIONAL OSOAREN GAINEKO BIZTANLERIAREN PISUA (%)	DENSITATEA (bizt./km ²)	BIZTANLERIAREN EGITURA ADINEN ARABERA - 2001 (%)		URTEKO BATEZ BESTEKO HAZKUNDE BEGETATIBOA 1990-98 (Jaiotzak - heriotzak) Bizt./urte	2002. URTEKO HAZKUNDE BEGETATIBOA (Jaiotzak - heriotzak) Bizt.	URTEKO BATEZ BESTEKO MIGRAZIO SALDOA 1990-98 (Immigr. - emigr.) Bizt.	2001. URTEKO MIGRAZIO SALDOA (Immigr. - emigr.) Bizt.
				< 20	>65				
DEBA	5.185	%7,19	99,90	18,90	16,20	+6,1	+3,00	+2,4	+9,00
MUTRIKU	4.775	%6,62	169,33	17,90	17,50	+1,1	+5,00	+18,3	+38,00
DEBA-MUTRIKU ESPARRUA	9.960	%13,81	124,33	-	-	+7,2	+8,00	+20,8	+47,00
ELGOIBAR	10.440	%14,47	266,30	15,60	20,60	-24,0	-4,00	-103,6	+11,00
MENDARO	1.444	%2,00	56,18	14,80	21,10	-3,8	-6,00	-13,3	+8,00
ELGOIBARKO ESPARRUA	11.884	%16,48	186,86	-	-	-27,7	-10,00	-118,6	+19,00
EIBAR	28.219	%39,12	1.259,78	14,90	22,40	-103,3	-132,00	-356,2	+86,00
ERMUA	16.795	%23,28	2.708,87	17,80	12,70	+31,9	+34,00	-190,8	+45,00
MALLABIA	1.109	%1,54	47,39	16,00	16,10	+1,3	+1,00	-3,6	+3,00
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	4.165	%5,77	293,31	15,30	20,90	-20,3	-23,00	-54,7	+15,00
EIBARKO ESPARRUA	50.288	%69,72	759,64	-	-	-90,3	-120,00	-603,7	+149,00
EREMU FUNTZIONALAKO GUZTIRA	72.132	%100	343,65	18,70	21,10	-110,9	-122,00	-698,1	+215,00

Biztanle-dentsitate handiko lurraldea da (343,65 bizt./km²); Bilbo Metropolitarrako eremu funtzionalak eta Donostia-Beterriko eremu funtzionalak bakarrik dute handiagoa. Lurralde-esparruei dagokionez, Eibarko esparruak bikoiztu egiten du eskualdeko dentsitatea: 759,64 bizt./km² hain zuzen ere.

Adinen araberrako biztanleriaren egiturari dagokionez, Debabarreneko eremu funtzionalean biztanleria zahartzen ari da pixkanaka, nahiz eta Deban, Mutriku eta Ermuan eskualdeko batez bestekoa gaunditzen duen biztanleria gaztea eta azken udalerrri horretan adineko jende gutxi izateak joera horren aurka egiten duen. Horiek horrela, Ermua eremu funtzionaleko "udalerrri gaztetzat" jo daiteke eta bertan sostengatu beharko litzateke Eibar-Ermua hiri-jarraituaren biziberritze demografikoa eta ekonomikoa.

2.1.1. Ekonomiaren datuak

Debabarreneko eremu funtzionaleko biztanleria aktiboa, 2001. urteari dagokion zenbakien arabera, 33.467 biztanlek osatzen dute; jarduera-tasa biztanleria osoaren gaineko %46,40koa da beraz. Biztanleria osoaren gaineko jarduera-tasa horrek denboran zehar izan duen bilakaera positiboa izan da, 1991n %36,9koa izatetik %42,24ra igaro baita 1996an eta %46,40ra 2001ean.

Biztanleria aktibo horretatik, 2001ean %91,88 lanean ari zen eta %8,12 lanik gabe zegoen. Debabarreneko eremu funtzionaleko lan-tasa Gipuzkoako (%90,25) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (%88,38) batez bestekoa baino handiagoa da.

Jarduera-sektoreen araberrako biztanleria landunaren egiturari dagokionez, honako ezaugarri hauek ditu:

1. Lehen sektorea.

Eremu funtzional osoan, lehen sektoreak biztanleria aktibo landunaren %1,41 hartzen du; beraz, oso pisu txikia du eskainitako lanari dagokionez. Batez besteko hori probintziako (%1,73) eta autonomia-erkidegoko (%1,77) batez bestekoak baino txikiagoa da.

Esparruei dagokionez, Deba-Mutriku esparrua argi eta garbi nabarmentzen da, Debako eta batez ere Mutrikuko arrantza-azpisektorearen ondorioz.

Udalerriei dagokionez, Mutriku berriz ere nabarmentzen da, %8,39rekin, eta bestalde, Mallabia, %5,10ekin.

2. Bigarren sektorea.

Eskualdeko biztanleen industria-espezializazio handia antzematen da, biztanleria aktibo landun osoaren %47,76raino iristen da-eta. Nabarmentzekoa da metalezko transformatuetan eta doikuntzako mekanikan dagoen espezializazio handia, bertan dagoen enpleguaren %50 inguru biltzen du-eta.

Lurralde-esparruei dagokionez, Elgoibarkoak du industria-pisurik handiena, bertako enpleguaren erdia baino gehiago (%50,93) hartzen du-eta.

Kopuru absolutuei dagokionez, Eibar, Ermua eta Elgoibarko udalerrietan kokatzen da batik bat, nahiz eta industria-enpleguaren karakterizaziorik handiena azaltzen duten udalerriak Soralue-Placencia de las Armas (%52,67), Mendaro (%51,25) eta Elgoibar (%50,89) izan.

3. Hirugarren sektorea.

Hirugarren sektoreak biztanleria aktibo landunaren %43,62 baino ez du hartzen.

Deba-Mutriku kostaldeko esparrua da sektore honetan lanean ari den biztanleriaren portzentajerik handiena duena: %44,59. Alabaina, kopuru hori %49,07raino igotzen da eremu funtzionaleko zentraltasun-funtzioak betetzen dituen udalerrian (Eibar). Debako udalerrian ere kopuru handia antzematen da: %48,49.

Txikizkako merkataritzari erreparatzen badiogu, oso garrantzizkoa baita lurralde bat hirugarren sektoreratzeko prozesuan, adierazi beharra dago Mutriku-Deba esparruak merkataritza-dentsitate handia duela saltoki-kopuruari dagokionez; Elgoibarko eta Eibarko esparruak, ordea, ez dira probintziako batez bestekora iristen. Hori larriagoa da Eibarko esparruan, Eibarko udalerriak eskualde-mailako merkataritza-ekipamendua eremu funtzional osoari eskaintzen diola kontuan hartuta.

4. Eraikuntza.

Eraikuntza-sektorearen zifrak, langile guztien %7,28 hartzen dituela, Gipuzkoako lurralde historikoko (%8,20) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (%8,66) batez bestekoak baino txikiagoak dira, eremu funtzionalak azken urteotan izan duen eraikuntza-jarduera urriarekin bat etorritz.

Eremu funtzionalean sortzen den enpleguaren eta bertako biztanleria landunaren artean dagoen erlazioari dagokionez, oro har enplegu-superabita duela esan daiteke. Enplegu hori zerbitzu-sektorean kontzentratzen da batik

bat. Datu hori bi eratan uler daiteke: batetik, datu pozgarri gisa, eremu funtzionaleko egitura ekonomikoa hirugarren sektoreratzen hasi izanaren sintoma gisa; baina bestalde, bertako biztanleriak hirugarren sektorerako prestakuntza-maila urria duen seinale.

Industria-sektoreari eta eraikuntzari dagokienez, oreka dago sortutako enpleguaren eta bertako biztanleria landunaren artean, saldo positibo txikiekin gainera. Azkenik, adierazi beharra dago Debabarreneko eremu funtzionalak eskulan-sobera duela lehen sektorean, arrantza-azpisektorean hain zuzen, eta Ondarroako porturantz bideratzen dela.

	Biztanleria aktiboa	€	Biztanleria langabea	€	Biztanleria landuna guztira	€	Nekazaritzan lanean ari den biztanleria	€	Industrian lanean ari den biztanleria	€	Eraikuntzan lanean ari den biztanleria	€	Zerbitzuetan lanean ari den biztanleria	€
DEBA	2.403	€46,35	145	€6,03	2.258	€93,97	79	€3,50	937	€41,50	147	€6,51	1.095	€48,49
MUTRIKU	2.276	€47,66	201	€8,83	2.075	€91,17	174	€8,39	892	€42,99	172	€8,29	837	€40,34
DEBA-MUTRIKU ESPARRUA	4.679	€46,98	346	€7,39	4.333	€92,61	253	€5,84	1.829	€42,21	319	€7,36	1.932	€44,59
ELGOIBAR	4.665	€44,68	259	€5,55	4.406	€94,45	54	€1,23	2.242	€50,89	263	€5,97	1.847	€41,92
MENDARO	659	€45,64	17	€2,58	642	€97,42	15	€2,34	329	€51,25	46	€7,17	252	€39,25
ELGOIBARKO ESPARRUA	5.324	€44,80	276	€5,18	5.048	€94,82	69	€1,37	2.571	€50,93	309	€6,12	2.099	€41,58
EIBAR	12.767	€45,24	1.023	€8,01	11.744	€91,99	52	€0,44	5.245	€44,66	684	€5,82	5.763	€49,07
ERMUA	8.222	€48,96	871	€10,59	7.351	€89,41	19	€0,26	3.856	€52,46	731	€9,94	2.745	€37,34
MALLABIA	577	€52,03	28	€4,85	549	€95,15	28	€5,10	258	€46,99	34	€6,19	229	€41,71
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	1.898	€45,57	174	€9,17	1.724	€90,83	12	€0,70	908	€52,67	160	€9,28	644	€37,35
EIBARKO ESPARRUA	23.464	€46,66	2.096	€8,93	21.368	€91,07	111	€0,52	10.267	€48,05	1.609	€7,53	9.381	€43,90
EREMU FUNTZIONALA	33.467	€46,40	2.718	€8,12	30.749	€91,88	433	€1,41	14.667	€47,70	2.237	€7,28	13.412	€43,62

2.1.2. Ingurune fisikoaren datuak

Debabarreneko eremu funtzionaleko lurraldeak 21.270 ha-ko azalera dauka eta Euskal Autonomia Erkidegoko kantaerialdeko erdialdean kokatzen da. Gipuzkoako eta Bizkaiko eremuak hartzen ditu. Multzoa Debabarreneko eskualde naturalean zabaltzen da, Deba ibaiaren eta Ego ibaiadarraren behe-arroa hartuz Bere esparrua 35 km-ko iparralde-hegoalde ardatzean (Mutriku-Deba) eta 45 km-ko mendebalde-ekialde ardatzean (Oiz-Izarraitz) barne hartzen da, 50 km-ko ibilbide osoa izanik Oiz mendiaren goi-ibarraren (Mallabia, Bizkaia) eta Deba ibaiaren itsasadarreko bokalearen (Deba, Gipuzkoa) artean.

Ingurune-faktorarik bereizgarrienak honako hauek dira:

- Itsas eragina (30 km-ko itsasertza).
- Altitude-kota txikiak, gailur handienetan 800 m gainditzen ez dutenak.
- Oso erliebe itxiko barrualdeko haranak, alboetako sakan ugari dituzten mendi-hegal eta isurialdeen morfologia nagusiarekin.
- Arrezife-kareharrizko mendigune garrantzitsuen azaloramendua (Arno, Andutz, Izarraitz), itsasertzaren eta barrualdeko haranen artean garapen karstiko eta interes hidrogeologiko nabarmena duen bitarteko frontea osatuz.

Erliebea "euskal arkuaren" egitura geologiko konplexuaren isla zehatza da, ipar-ekialdetik hego-mendebaldera tolestutako material litologiko desberdinak agertzen direla. Mota honetako harriek eta lurraldean kokatzeko moduak eragingo dituzte natura-baldintzatzaile garrantzitsuenak (mendi-hegalen lerradurak, akuiferoen urrakortasuna, uholde-arriskuak).



Lizundia Azpikoa

Lurralde osoak bete-betean hartzen ditu klima ozeaniko epeleko euskal eskualde atlantiko eurosiberiarraren ezaugarri bioklimatikoak (urteko prezipitazioak: 1500-2000 mm). Latitude hauetan garatuko litzatekeen landaredi naturalak baso hostozabalak osatuko lituzke; espezie desberdinak nagusituko liriateke posizio topoklimatiko desberdinen arabera.

- *Quercus robur*-en harizti azidofiloak izango liriateke formazio zabalenak: 600 m-tik beherako kotetan haran guztietan nagusituko liriateke.
- *Quercus pyrenaica*-ren hariztiak: mendi-erdialdeko hegaletan kokatuko liriateke.
- *Quercus ilex*-en artadi kantauriarrak: konplexu karstikoetako kareharrizko irtenguneen babesak hartuko lukete: Arno, Andutz, Izarraitz.
- Ezkamezti txikiak: artadi eta harizti hezeagoen arteko trantsizio-esparru eguzkituetan barreiatuko liriateke.
- Pagadi (*Fagus sylvatica*) kaltzikolak eta azidofiloak: haranak ixten dituzten mendilerroetako substratuak estaliko lituzkete 600 m-tik gorako altitudeetan.
- Haltzadi kantauriarrak (*Alnus glutinosa*): ibarbaso jarraitua osatuko lukete, sare hidrografiko osoa zedarrituz, sakan hezeenetan gora zabalduz eta harizti atlantikoekin nahasiko liriatekeen baso mistoak osatuz.
- Zuhaitzez besteko landarediaren formazioek (kostaldeko itsaslabarretako otalurrak, hareharrizko mendietako harkaiztegiak eta larre harritarrak, estuarioko padurak eta kostaldeko hareatzak) ez lukete hain banaketa zabala izango, zuhaitzen garapena errazten ez duten enklabe jakin batzuetara mugatuta.

Gizakiek lurraldea mendeetan zehar okupatu izanak, ordea, aldaketa etengabea eta adierazgarria eragin du jatorrizko landaredi naturalean gaur

egungo paisaia taxutzera iritsi arte. Gainera, arretaz begiratuta, aldaketa-prozesu batean murgilduta dagoela ikus daiteke.

Horien ordez, honako hauek dira gaur egun lurzorua okupatzen duten unitateak:

- Konifero exotikoen sail artifizialak: %50
- Belardi eta labore-lurren nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala: %24
- Bertako basoak, gehienetan formazio txikietan: %14
- Larreak, sastrakadiak eta basoetako etapa serialak: %7
- Lurzoru urbanizatua eta lurzoru ez-emankorrak: %5

Eremu funtzionalaren osagai fisikoen eta biologikoen analisi integratuak lurraldearen sintesi deskriptibo xehatua lortu nahi du:

1. SEKTOREA. MUTRIKU-DEBAKO ITSASERTZA.

Natura-esparruak itsasoaren eraginpean daude eta geomorfologia espezifikoak dute; espazio irekietako (baso soilduak) belardiek eta larreek definitzen dute paisaiarik bereizgarriena. Hiru azpiunitate bereizten dira:

- 1.1. Itsasertzeko labarrak
- 1.2. Debako itsasadarraren bokalea, hainbat padura-atalekin
- 1.3. Mutrikuko (W) eta Debako (E) kostaldeko landazabaletako plataformak

Etorkizuneko garapenaren plangintzan aintzat hartu beharreko interes ekologiko eta paisajistiko bereziko eremutzat jotzen dira ondokoak: hondartzak, itsasertzeko labarrak, marearteko zabalgunek, padurako ibarra eta lokaztiak eta itsasora zuzenean zabaltzen diren zenbait sakan, hala nola Arranomendi eta Sakoneta.

2. SEKTOREA. IZARRAITZ-ARNO-ANDUTZ MENDIGUNE KARSTIKOA ETA INGURUAK.

Zeharka kokatzen da, ipar-mendebaldetik hego-ekialdera, eta aurreko unitatea hegoaldetik ixten du, itsas eragina geldiaraziz.

Deskribapen osoan honako azpiunitate hauek zehazten dira:

- 2.1. Arno-Olatz mendigunea (NW)
- 2.2. Andutz-Lastur-Garalutz mendigunea (NE)
- 2.3. Izarraitz mendigunea (SE)
- 2.4. Haranerreka-Kilimon harana (S)

Erliebe menditsu nabarmena da unitatearen bereizgarri; morfologia karstikoko kareharrizko substratuak lurpeko akuifero-sistema garrantzitsua hartzen du bere baitan. Hala, eremu funtzionalean balio naturalistiko handiena duen ingurunea osatzen da, bertan artadi kantauriarreko basoak, ameztiak, pagadiak, mendiko harkaiztegiak eta larreak biltzen dira; fauna-aberastasun handiko inguruneak dira, eta gainera aztarnategi arkeologiko

garrantzitsuak eta landazabal atlantikoko paisaia tradizionalak daude Olatz, Lastur eta antzeko beste hainbat landa-auzo aipagarrietan.

3. SEKTOREA. BARRUALDEKO HARANAK ETA BEREN ALBOETAKO SAKANAK.

Elgoibar, Eibar, Ermua eta Soraluze-Placencia de las Armasko haran itxiek osatzen duten ingurune honetan dentsitate handiko hiri- eta industria-okupazioa eta komunikabide-sarea nagusi dira, haran-hondoan.

Aldapa handiz eta ibilbide laburreko alboko sakanez osatutako erliebeak bereizten ditu goialdeko eremuak, mendi-hegalak eta haran-hondo estu eta lineala. Landa-auzoak landazabaleko paisaian sakabanatutako baserriek osatzen dituzte, inguruan konifero-sail landatuen zabalgunek handiak dituztela.

Unitate honetan faktore natural baldintzatzailea higadura-arrisku nabaria duten (aldapa handia eta lodiera urria eta litologia ugaria) eta uholde-arriskupean dauden lurzoruek (drainatze laburreko arro zabalak) osatzen dute. Horiei gizakiak haran-hondoan (urbanizazioa) eta mendi-hegaletan (baso-ustiapena) garatu duen esku-hartze handia gehitu behar zaie.

Analisi xehatuagoan honako azpiunitate hauek bereiz daitezke:

3.1. Elgoibar-Eibar-Ermuko haran itxiak (Ego-Deba ibaia)

3.2. Soraluze-Placencia de las Armasko harana (Deba ibaia)

3.3. San Lorentzo harana

3.4. Azkarate-Urruzuno harana

3.5. Mallabia-Zengotita-Oizko goi-ibarra

Alderdi naturalistiko azpimarragarrienak errekei lotutako sakanetan kokatzen diren asaldura-maila desberdinetako baso naturalen arrasto urrietan (hariztiak, baso mistoak eta haltzadiak) kontzentratzen dira Baso naturalen (hariztiak eta pagadiak) unada zabalena Arranbideko goi-ibarrean daude, Karakate-Irukurtzeta mendilerroan. Azkenik, larre naturalak dituzten espazio ireki batzuk nabarmentzen dira Zengotita-Oiz, Urko, Kalamua eta Karakateko mendilerro eta goialdeetan.

Flora.

Euskal Autonomia Erkidegoko Flora Katalogoak (1987) zehazten duenez, Debabarreneko eskualdean goi-mailako landareen 705 taxon (espezieak eta azpiespezieak) daude. Horietatik 141 (%20) arrarotzat (123, %17) edo oso arrarotzat (18, %2,5) jotzen dira.

Lau Arriskuan dauden espezieen euskal katalogoan (1998) jasota daude, Arraroa (*Lycopodium clavatum*) edo Interes berezikoa (*Paris quadrifolia*, *Pinguicula lusitanica* eta *Woodwardia radicans*) kategorietan. Azken hori Habitat 92/43/CEE Arteztarauaren II. eranskinean barne hartzen da, erkidegoaren intereseko espezieen artean, eta bera kontserbatzeko beharrezkotzat jotzen da kontserbazio-zona bereziak izendatzea.

NATURA INGURUNEETAKO FLORA ABERASTASUNA				
	TAXON KOPURUA GUZTIRA	HABITAT %	ARRAROEN ETA OSO ARRAROEN KOPURUA	ARRAROEN ETA OSO ARRAROEN %
0. ERRUDERALA (INGURUNE GIZATIARTUAK)	226	32	-	-
1. BASO HOSTOEROKORRA ETA ORDEZPEN ETAPAK	183	25,9	24	13,1
2. HARKAIZTEGIAK	132	18,7	38	28,7
3. BARRUALDEKO HEZEGUNEA	103	14,6	22	21,3
4. IBAI BAZTERREKO LANDARE DIA	31	4,3	7	22,5
5. ARTADI KANTAUARIARRA	29	4,1	10	34,4
6. ITSASERTZEKO LANDARE DIA	29	4,1	6	20,6

ARTADI KANTAUARIARREKO –Arnon, Haranerrekan, Debako haranean eta Andutzen ordezkatua– eta HARKAIZTEGIETAKO eta hauen alboko MENDI HEGALETAKO florak Debabarreneko eremu funtzionaleko balio handienekoak direla ikus daiteke. Artadiaren domeinuak Lastur eta Itziaroko ezkaizte/harizti kaltzikola barne hartzen du. Kareharrizko gailurreko eta haitzebakien oineko baso mistoa Goltzibar sakanaren (Itziar) eta Debako haranaren (Mendaro) artean ordezkatuta dago.

Fauna.

1-Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ornodun kontinentalen atlas, 1985; Ornodun kontinentalak. Euskal Autonomia Erkidegoko gaur egungo egoera, 1998: gutxienez 130 ornodun-espezie daude katalogatuta. Horietatik hamasei (%12) Arriskuan dauden espezieen euskal katalogoko (1997) kategoriaren batean jasota daude.

2-Habitat 92/43/CEE Arteztaraua.

- II. eranskina: Bisoi europarra, Schreiber muskerra eta Loina. Kontserbazio-zona bereziak izendatu behar dira.
- IV. eranskina: Basakatu, Musker berdea, Horma-sugandila, Iparraldeko suge leuna, Eskulapioren sugea, Uhandre marmolairea, Txantxiku arrunta eta Baso-igel iberiarra. Babes zorrotza behar dute.

3-Hegaztien 79/409/CEE Arteztaraua (I. Eranskina): Zata arrunta, Arrano sugezalea, Mirotz zuria, Etze-txinboa eta Antzandobi arrunta.

Faunaren ikuspegitik, kalitate handieneko ornodun-komunitateak hartzen dituztelako babestu beharreko ekosistemak honako hauek dira:

- BASO NATURALAK (hostozabal mistoa, pagadia eta artadia), arriskuan dauden 16 espezieetatik 6 baso-mota honen bereizgarriak baitira, 2 bere etapa soilduenak eta 1 harkaiztegien eta mendi-larreen bereizgarria.

- ERREKAK eta IBARBASOAK: bertan arriskuan dauden 4 espeziek bizirik jarraitzen dute (Baso-igel iberiarra, Ur-zozoa, Bisoi europarra eta Ipurtatsa).

Fauna-intereseko eremuak honako hauetan laburbiltzen dira:

- Arno mendiko artadien eremua. Artadi-zona, baso hostoerorkorren atalak eta konifero-sail landatuak. Artadi kantauriarri lotutako ornodun-komunitate interesgarria.
- Izarraitz mendigunearen eremua. Izarraitz mendigunea, Andutz mendia eta Lastur eta Haranerreka haranak hartzen ditu. Zuhazti hostozabalak eta artadi kantauriarra karst gainean. Pagadia, otalurra eta mendi-larrea, nolabaiteko garrantzia duten urmaelekin.

Debabarreneko flora eta fauna bereizgarriak BASO HOSTOERORKOR epel europarrekoak dira, eskualdean katalogatutako taxonen %26 eta %20 hartzen baitituzte, hurrenez hurren. Baso hostoiraunkor naturalak -ARTADI KANTAUARIARRA batik bat- floraren %4 eta faunaren %12 hartzen du bere baitan.

DIAGNOSTIKOAREN SINTEZIA.

Natura-ingurunearen egoeraren diagnostikoa eta lurraldearen ingurumen-kalitatearen balorazioa konfiguratzeko elementuak honako lehentasunezko alderdi hauetan oinarrituta egongo lirake:

- IBAI SISTEMAREN eta UREN KALITATEAREN egoera kritikoa.
- UHOLDEAK izateko arrisku garrantzitsuak DRAINATZE SAREAREN puntu batzuetan, sarea oso asaldatuta baitago eta esku-hartze ugari jasan baitu.
- Desoreka garrantzitsua lurzorua okupatzeko landare-paisaiaren unitateen artean, USTIAPEN INTENTSIBOKO KONIFERO EXOTIKOEN SAIL LANDATUEK okupatutako eremuen portzentajea gehiegizkoa baita, aldapa handiak eta HIGADURA ARRISKUAK dituzten lurzoruetan. Horren ondorioz, BERTAKO BASOETARAKO erabilgarri dauden lurzoruen portzentajea benetan txikia da eta oso zatikatuta daude gainera.
- Basoko fauna eta florarentzako balio handieneko habitat naturalen galera, hala nola PADURAKO estuario-sistema, egoera kritikoa eta ia desagertzeraino murriztua.
- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO LANDAZABALEKO sistemaren bizitasun urria, gizakiak zuzenen esku hartu eta mantendu duen produkzio-espazio gisa.

2.1.3. Kokaguneen datuak

Atal honetan gaur egun dauden kokaguneen ikuspegi orokorra azalduko dugu. Lehen hausnarketa batean, bizitegi-kokaguneak eta jarduera ekonomikoen kokaguneak bereiz ditzakegu. Hala hiri-lurzoruetan eta lurzoru urbanizagarrietan nola lurzoru urbanizaezinetan antolatutakoak ditugu aztergai. 1996. urteko etxebizitzaren erroldako datuak eta Bizitegi-lurzoruen eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen lurraldeko datu-bankukoak erabiliko ditugu, Eusko Jaurlaritzarenak. 1999. urtean itxitako inbentarioak dituzte, eta udalen 2001eko urtarrileko informazioarekin eguneratu ditu talde idazle honek.

2.1.3.1. Bizitegi-kokaguneak

Eremu funtzionaleko etxebizitza-parkearen hazkundeak erritmo geldia izan du 1986tik 1996ra bitarteko hamarkadan, urteko 150 etxebizitza ingurukoa, baina bikoiztu egin da azken zazpi urteetan (320 etx./urte).

Lurralde-banaketari erreparatzen badiogu, etxebizitza horien %60 baino gehiago Ermua-Eibar esparru jarraituan daude. Aitzitik, kostaldeko esparruan bizitegi-parkearen %16,33 baino ez dago, Gipuzkoako itsasertzeko eremu funtzionaletan (Donostia-Beterri eta Urola-Kosta) gertatzen denari kontrajarrita.

Debabarrenak, 119 etx./ha dentsitatearekin (hiri-lurzoruko etxebizitzak/bizitegi-lurzoruaren azalera), lurralde historiko osoko (77 etx./ha) kopururik altuena azaltzen du nabarmen. Dentsitate hori kopuru benetan kezagarrietara iristen da Ermuko eta Eibarko udalerrietan, lehenengoaren kasuan 186 etx./ha balioan kokatzen baita, nahiz eta datu horrek behera egin duen azken urteotan.



Eibar-Ermua

Mutriku-Deba esparruan, bere turismo-erakargarritasun tradizionalaren emaitza, bizitegi-parkearen %20 baino gehiago bigarren bizitegira zuzenduta dago. Beste muturrean, bigarren bizitegiaren fenomenoak hutsala da barrualdeko esparruetan.

Etxebizitzako batez besteko okupazio-tasa etengabe jaisten ari da: 1981ean 3,80 biztanle zeuden okupatutako etxebizitza bakoitzeko eta 1996an 3,14.

2003ko abenduaren 31ko datuen arabera, eremu funtzionalean 30.848 etxebizitza daude; horietatik 1.387 lurzoru urbanizaezinetan daude eta 29.461 hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri garatuetan.

Artean egin gabe dauden arren, indarrean dagoen udal-plangintzak 3.479 etxebizitza ditu egiteko programatuta.

Guztizko etxebizitza-kopurua, hots, gaur egun dauden etxebizitzak gehi plangintzak programatutakoak, 34.327 izango da. Etxebizitza horietatik 32.940 hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarrietako guztizkoari dagozkio eta 299,65 ha-ko azaleraren gainean garatuko dira; horren arabera, eremu funtzionalean aurreikusitako bizitegirako hiri-egitatearen batez besteko dentsitatea hektareako 110 etxebizitzakoa izango da. Beraz, plangintzaren aurreikuspen berriek murriztu egiten dute zertxobait eremu

funtzionaleko gaur egungo batez bestekoa. Alabaina, batez besteko dentsitateek gora egiten dute Eibarko (169 etx./ha), Soraluze-Placencia de las Armasko (102 etx./ha) eta Debako (98 etx./ha) udalerrietan. Ermuko dentsitatea (126 etx./ha), ordea, nabarmen murrizten da lurzoru urbanizagarriko arauk proposatu duten dentsitatearen ondorioz (12 etx./ha). Gainerako udalerriek egonkor samar jarraitzen dute.

Etxebizitzaren %60k baino gehiagok Eibar-Ermua esparru jarraituan jarraituko dute, Elgoibar-Mendaro esparruan guztizkoaren %18,45era igaroko da eta Mutriku-Deba esparruan pixka bat gora egingo duela uste da; beraz, bizitegi-erabilera barrualdetik kostaldera zertxobait mugituko dela aurreikusten da.

LABURPEN TAULA: ETXEBIZITZA

	FAMILIA ETXEBIZITZEN PARKEA 1996			2. BIZITEGIKO ETXEBIZITZA 1996		PARKEAREN URTEKO BATEZ BESTEKO HAZKUNDEA 1986-96 (etx./urte)	PARKEAREN URTEKO BATEZ BESTEKO HAZKUNDEA 1996-2003 (etx./urte)	OKUPATUTA KO ETXEBIZITZEN OKUPAZIO TASA (bikt./ok upatutako etx.)	BIZITEGIRAKO HIRI LURZORUKO ETXEBIZITZEN DENTSITATEA 2003ko abendua	PLANGINTZAK ONARTUTAKO ETXEBIZITZAK, EGITEKO DAUDENAK 2003ko abendua	BIZITEGIRAKO HIRI LURZORUKO ETXEBIZITZEN DENTSITATEA Plangintza osoa egikaritu ta
	GUZTIRA	OKUPATUTA DAUDENEN %	HUTSIK DAUDENEN %	Kp.	%						
DEBA	2.464	63,80	36,20	523	22,70	15	44	3,20	85	384	98
MUTRIKU	2.037	68,60	31,40	332	18,40	23	33	3,36	73	185	63
DEBA-MUTRIKU ESPARRUA	4.501	66,00	34,00	855	20,80	38	77	-	79	569	78
ELGOIBAR	4.102	85,10	14,90	95	2,50	22	43	3,09	89	898	84
MENDARO	539	73,50	26,50	31	6,30	5	43	3,53	56	194	57
ELGOIBARKO ESPARRUA	4.641	83,80	16,20	126	2,90	27	86	-	83	1.092	79
EIBAR	11.395	87,40	12,60	135	1,20	41	33	3,06	160	1.124	169
ERMUA	5.915	89,70	10,30	18	0,30	28	100	3,20	186	435	126
MALLABIA	378	78,30	21,70	34	9,50	2	16	3,60	39	88	38
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	1.781	81,10	18,90	0	-	11	8	3,07	93	171	102
EIBARKO ESPARRUA	19.464	87,40	12,60	187	1,00	82	158	-	150	259	138
DEBABARRENEKO EREMU FUNTZIONALA	28.611	83,40	16,60	1.168	4,30	151	320	3,14	119	3.479	110
Gipuzkoa		81,10	18,90		4,40						
EAE		81,90	18,10		5,10						

UDAL PLANGINTZAREN AURREIKUSPENAK

BIZITEGI LURZORUA - ETXEBIZITZA KOPURUA. UDALERRIEN ARABERAKO LABURPENA ETA SAILKAPENA (2003ko abendua)

	BIZITEGIRAKO HIRI LURZORUA	BIZITEGIRAKO LURZORU URBANIZAGARRIA	LURZORU URBANI ZAEZINA	BIZITEGI LURZORUA GUZTIRA
--	----------------------------	-------------------------------------	------------------------	---------------------------

UDALERRIA	AZALER A GORDIN A	EGUNGO ETXEBI ZITZA KOPURU A	ETXEBI ZITZA BERRIE N KOPURU A	ETXEBI ZITZA KOPURU A GUZTIR A	AZALER A GORDIN A	EGUNGO ETXEBI ZITZA KOPURU A	ETXEBI ZITZA BERRIE N KOPURU A	ETXEBI ZITZA KOPURU A GUZTIR A	EGUNGO ETXEBI ZITZA KOPURU A	AZALER A GORDIN A	EGUNGO ETXEBI ZITZA KOPURU A	ETXEBI ZITZA BERRIE N KOPURU A	ETXEBI ZITZA KOPURU A GUZTIRA
DEBA	28,57	2.421	384	2.805	0,00	0	0	0	352	28,57	2.773	384	3.157
MUTRIKU	27,58	2.018	93	2.111	8,26	42	92	134	206	35,84	2.266	185	2.451
MUTRIKUKO LURRALDE ESPARRUA	56,15	4.439	477	4.916	8,26	42	92	134	558	64,41	5.039	569	5.608
ELGOIBAR	42,88	3.806	666	4.472	17,04	358	232	590	241	59,92	4.405	898	5.303
MENDARO	9,23	513	183	696	7,18	234	11	245	90	16,41	837	194	1.031
ELGOIBARKO LURRALDE ESPARRUA	52,11	4.319	849	5.168	24,22	592	243	835	331	76,33	5.242	1.092	6.334
EIBAR	71,30	11.421	1.039	12.460	2,83	0	85	85	203	74,13	11.624	1.124	12.748
ERMUA	35,13	6.530	182	6.712	20,65	62	253	315	20	55,78	6.612	435	7.047
MALLABIA	7,51	294	36	330	2,50	3	52	55	195	10,01	492	88	580
SORALUZE- PLACENCIA DE LAS ARMAS	18,99	1.759	171	1.930	0,00	0	0	0	80	18,99	1.839	171	2.010
EIBARKO LURRALDE ESPARRUA	132,93	20.004	1.428	21.432	25,98	65	390	455	498	159	20.567	1.818	22.385
EREMU FUNTZIONALA GUZTIRA	241,19	28.762	2.754	31.516	58,46	699	725	1.424	1.387	299,65	30.848	3.479	34.327

UDAL PLANGINTZAREN AURREIKUSPENAK

BIZITEGI LURZORUA - HIRI LURZORUKO ETA LURZORU URBANIZAGARRIKO DENTSITATEA (ETX./HA).

UDALERRIA	SAILKAPENA	AZALERA		ETXEBIZITZAK GUZTIRA		ETX./HA	
DEBA	HIRI LURZORUA	28,57	28,57	2.805	2.805	98,18	98,18
	URBANIZAGARRIA	0,00		0		0,00	
MUTRIKU	HIRI LURZORUA	27,58	35,84	2.111	2.245	76,54	62,64
	URBANIZAGARRIA	8,26		134		16,22	
MUTRIKUKO LURRALDE ESPARRUA	HIRI LURZORUA	56,15	64,41	4.916	5.050	87,55	78,40
	URBANIZAGARRIA	8,26		134		16,22	
ELGOIBAR	HIRI LURZORUA	42,88	59,92	4.472	5.062	104,29	84,48
	URBANIZAGARRIA	17,04		590		34,62	
MENDARO	HIRI LURZORUA	9,23	16,41	696	941	75,41	57,34
	URBANIZAGARRIA	7,18		245		34,12	
ELGOIBARKO LURRALDE ESPARRUA	HIRI LURZORUA	52,11	76,33	5.168	6.003	99,17	78,65
	URBANIZAGARRIA	24,22		835		34,48	
EIBAR	HIRI LURZORUA	71,30	74,13	12.460	12.545	174,75	169,23
	URBANIZAGARRIA	2,83		85		30,04	
ERMUA	HIRI LURZORUA	35,13	55,78	6.712	7.027	191,06	125,98
	URBANIZAGARRIA	20,65		315		15,25	
MALLABIA	HIRI LURZORUA	7,51	10,01	330	385	43,94	38,46
	URBANIZAGARRIA	2,50		55		22,00	
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	HIRI LURZORUA	18,99	18,99	1.930	1.930	101,63	101,63
	URBANIZAGARRIA	0,00		0		0,00	
EIBARKO LURRALDE ESPARRUA	HIRI LURZORUA	132,93	158,91	21.432	21.887	161,23	137,73
	URBANIZAGARRIA	25,98		455		17,51	
EREMU FUNTZIONAL GUZTIRA	HIRI LURZORUA	241,19	299,65	31.516	32.940	130,67	109,93
	URBANIZAGARRIA	58,46		1.424		24,36	

2.1.3.2. Jarduera ekonomikoak

Udal-plangintzaren aurreikuspenak, eremu funtzional osorako hirigintza-informazioak adierazten duen bezalaxe, honako hauetan ezartzen dira:

- Lurzoru kalifikatueta edo kalifikatzeko prozesuan daudenetan: 383,88 ha.
- Okupatutako lurzoru kalifikatuak: 281,72 ha.
- Hutsik dauden lurzoruak: 102,16 ha.

Okupatutako lurzoru kalifikatuen artean, birmoldatzeko zain dauden industria zaharkituei dagozkien 8/10 ha lurzoru daude.

"Hutsik" dagoen lurzoruaren 102,16 ha horien gehiengoa bost poltsa handitan dago. Honako hauek dira:

- Itziar poligonoa, Debako udalerrian: 30 bat ha lurzoru ditu hutsik eta itxuraz geldiarazita dago.

- San Lorentzo eta Lerun Txiki poligonoak, Elgoibarko udalerrian: 10,00na ha lurzoru dituzte hutsik eta ez dute bideragarritasun objektiborik.
- Eibarko udalerriko birmoldaketako poligonoak edo eremuak: 6,25 ha dituzte hutsik eta Asua Erreka, Txonta Arene, Matzaria, Ibagain eta abarri dagozkie. Beren arazo konplexua dela-eta epe luzea beharko dute abian jartzeko.
- Murrategi, Matzaria, Txonta eta Iburerreka poligono txikiak: 8 ha inguru lurzoru dituzte hutsik. Ez dituzte kokapen-baldintza batere egokiak, haran-hondoetan erreka-oheen gainean.



Azitaingain industria-poligonoa (Eibar)

Horrenbestez, lurzoru-eskaintza teorikoa ez da informaziotik ondorioztatzen dena, hutsik dauden lurzoru kalifikatu askok ez baitute benetako bideragarritasun handirik.

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren dokumentuan epe ertaineko horizonterako analizatutako lurzoru-eskariaren aurreikuspenek 45 eta 85 ha bitarteko aurreikuspenak ezartzen dituzte.

Funtsezko arazoak honako hauek dira:

- Birmoldaketa-prozesuari aurre egiteko premia, bai jarduerak beste kokaleku batzuetara eramanez hirigintza-erabileraren aldaketa dakarten barne-erreformako eragiketen bitartez, edo bestela birgaitzeko eragiketak sustatzen ahaleginduz. Birmoldaketa-prozesu horrek jarduera ekonomikoen ezarpen berrietarako lurzoru saneatua berrikusi beharra dakar.
- Birmoldaketa-prozesuei hasiera eman baino lehen hiriguneetako enpresak lekuz aldatzea eta jarduera berriak ezartzea ahalbidetuko duten poligono berriak presaz sustatu beharra.
- Iraungo duten gaur egungo kokaguneei eta sortuko diren poligono berriei irudia aldarazteko premia larria, natura-paisaiara hobeto moldatuak eta espazio-zabaltasun handiagokoak izan daitezen ahaleginduz.

UDAL PLANGINTZAREN AURREIKUSPENAK. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA
(2003ko abendua)

UDALERRIA	HIRI LURZORUA			LURZORU URBANIZAGARRIA			GUZTIRA		
	AZALERA GORDINA	OKUPATU-TAKO AZALERA	HUTSIK DAGOEN AZALERA	AZALERA GORDINA	OKUPATU-TAKO AZALERA	HUTSIK DAGOEN AZALERA	AZALERA GORDINA	OKUPATU-TAKO AZALERA	HUTSIK DAGOEN AZALERA
DEBA	71,56	42,26	29,30	0,00	0,00	0,00	71,56	42,26	29,30
MUTRIKU	0,00	0,00	0,00	10,20	9,00	1,20	10,20	9,00	1,20
ELGOIBAR	53,21	50,91	2,30	56,68	18,80	37,88	109,89	69,71	40,18
MENDARO	6,78	2,88	3,90	10,46	10,46	0,00	17,24	13,34	3,90
EIBAR	45,41	45,41	0,00	16,77	8,95	7,82	62,18	54,36	7,82
ERMUA	6,75	6,75	0,00	32,53	32,53	0,00	39,28	39,28	0,00
MALLABI	35,00	34,50	0,50	22,26	3,00	19,26	57,26	37,50	19,76
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	14,69	14,69	0,00	1,58	1,58	0,00	16,27	16,27	0,00
GUZTIRA	233,40	197,40	36,00	150,48	84,32	66,16	383,88	281,72	102,16

2.1.4. Azpiegituren eta zerbitzuen datuak

2.1.4.1. Errepideak

Eskualdeko errepide-sarearen konfigurazioa eskualdea ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duten A-8 autobideak eta la N-634 errepideak osatzen duten ardatzean oinarritzen da.

Korridore nagusi horren inguruan biltzen dira hainbat gune garrantzitsu (Ermua, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Deba), baita N-634 errepidetik abiatu eta korridoreaz kanpo kokatuta dauden eskualdeko beste biztanleguneekiko (Mallabia, Soraluze-Placencia de las Armas eta Mutriku) eta hainbat auzo txikirekiko komunikazioak bideratzen dituzten bigarren mailako errepideen sarea ere. Zeharkako sare horrek, halaber, eskualde mugakideekiko komunikazioak bideratzen ditu. Hona hemen errepideak, garrantziaren arabera ordenatuta:

- GI-627 errepidea, Debako korridorea: Soraluze-Placencia de las Armas eta DEBAGOIENENKO eskualdea korridore nagusiarekin Maltzagan komunikatzen ditu.
- GI-2634 errepidea, ELGOIBAR-AZKOITIA: UROLA ERDIALDEKO eskualdea (Azkoitia-Azpeitia) korridore nagusiarekin komunikatzen du.
- GI-638 errepidea eta bere jarraipena, hots, BI-638 errepidea: MUTRIKUKO hirigunea eta LEA-ARTIBAI kostaldeko eskualdea (ONDARROA, LEKEITIO) korridore nagusiarekin komunikatzen dituzte.
- BI-2301 eta BI-3302 errepideak, ERMUA-TRABAKUA eta ERMUA-MALLABIA: MALLABIKO bizitegiak eta industriaguneak eta BI-633 errepidea, BERRIZ-ONDARROA, korridore nagusiarekin komunikatzen dituzte.
- BI-3342 errepidea: BERRIZ eta N-634 errepidea lotzen ditu.
- BI-633 errepidea, DURANGO-ONDARROA: Trabakuan zehar igarotzen da.

- GI-2636 errepidea, ELGOIBAR-MARKINA: LEA ARTIBAI erdialdeko eskualdea korridore nagusiarekin komunikatzen du.
- EIBAR-MARKINA errepidea: aurrekoaren antzeko funtzioak ditu.

Garrantzi eta funtzionaltasun txikiagoa badute ere, eskualdeko auzo txikiak aurreko atalean adierazitako errepideetako batzuekin komunikatzen dituzten hainbat toki-errepide daude, hala nola:

- GI-2639 errepidea, EIBAR-ELGETA.
- GI-3301 errepidea, GI-3950 errepidea ARRATE auzoarekin komunikatzen duena.
- GI-3563 errepidea, SASIOLA-MUTRIKU.
- GI-3210 errepidea, ITZIAR-LASTUR-AZKARATE GAINA.
- GI-3392 errepidea, SASIOLA-LASTUR.

Gaur egungo sarean sortzen diren arazo handienak N-634 errepideak herrigune nagusiak zeharkatzen dituen tartetean kokatzen dira. ERMUA, EIBAR eta ELGOIBARKO zeharbideak dira azpimarragarrienak.

EIBARKO kasuan, saihebidetaren lehen eta bigarren fasea abian daude dagoeneko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Planak saihebidetaren horren 3. fasea eraikitzea aurreikusten du.

Ermuko saihebidetaren Bizkaiko Errepideen Planean jasota dago, "Gipuzkoa-Ermua, herri-saihebidetaren" izendapenarekin, lehentasuneko intereseko sarearen barruan.

Elgoibarko zeharbidea, ordea, ez dago Errepideen Arloko Plangintzan aurreikusita. Plangintza horretan honako hauek aurreikusten dira:

- Mutrikuko gunerako GI-638 errepidearen saihebidetaren.
- GI-3950 errepidearen hobekuntza, LEA-ARTIBAICO eskualdearekin komunikatzeko aukerarik onena bezala.

2.1.4.2. Trenbidea eta garraio publikoa

EUSKO TRENBIDEAK - FERROCARRILES VASCOS konpainiako Donostia-San Sebastian - Bilbao lineak zeharkatzen du eskualdea. Linea hori eskualdeko hirigune garrantzitsuenetatik igarotzen da, Mallabia, Soralue-Placencia de las Armas eta Mutrikutik izan ezik.

Ibilbide luzei dagokienez batere eraginkortasunik ez badu ere, eskualdeko garraio gisa funtzionatzen du Ermua eta Eibar bitartean.

Errepideko garraio publikoaren ikuspegitik, eskualdea ongi hornituta dago eta Eibar du erlazio gehien zentrotzat. Hiru linea-maila bereiz genitzake:

- Eskualde-esparruko lineak haran osoan zehar, korridore nagusia ardatz dutela.

- Korridore nagusitik urrun dauden hiriguneeekin eta eskualde mugakideekin erlazionatzeko eskualde-esparruko lineak.
- Ibilbide luzeko lineak.

Ibilbide luzeko lineek EIBAR BILBAO ETA DONOSTIA-SAN SEBASTIANEKIN lotzen dute, maiztasun handiarekin. Horrez gain, VITORIA-GASTEIZEKIN, IRUÑA-PAMPLONAREKIN eta GIJONEKIN errepidez, autobiaz eta autobidez lotzen duten lineak ere badaude.

2.1.4.3. Portuak

Eremu funtzionalak itsas portu bakarra du, Mutrikukoa, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailaren mendekoa.

Gaur egun, portuko erabilera nagusia arrantza-jardueraren ondoriozkoa da, baina ur-kiroletako erabilera txiki arautugabe batzuk ere garatzen dira bertan.

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Mutrikuko Portua Bideratzeko Plana idatzi berri du, Mutrikuko portua kirol-portuko dartsena garrantzitsua izango duen portu bihurtzeko eta gaur egungo arrantza-erabilera areagotu eta modernizatzeko beharrezkoak diren inbertsioak aurreikusten dituen.

Inbertsio berri horiek turismo-potentzial handia emango diote Mutrikuko herriari. Hala, bizitegi-eskari berriak sor ditzake, baita portu-jarduerari lotutako industriako eta hirugarren sektoreko erabileretarako azalera-eskariak ere.

2.1.4.4. Azpiegitura hidraulikoak

Lurraldearen Zatik Planaren esparruko udalerrri guztiak, Ermua eta Mallabia izan ezik, GIPUZKOAKO UR PARTZUERGOAN sartuta daude.

Hornidura zein saneamenduko gaietan, gaur egun udalak arduratzen dira ustiatzeaz eta kudeatzeaz. Horren ondorioz, elkarren ondoko udalerrietako hirigune askotan elkarrekin konektatu gabe dauden eta tutueria-diametro minimoak dituzten sareak daude, sare-amaiera gisa proiektatuak, eta ez dute batera jarduteko inolako ahalmenik.

Hornidura-sistemari dagokionez, eskualdeko hornidura-elementuak honako hauek dira:

- Aixola urtegia.
- KILIMON putzuak eta iturburua.

Gaur egungo egoeran bi hornidura-eremu bereiz ditzakegu: Alde batetik: MALLABIA, ERMUA, EIBAR eta SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS.

Lehen eremu horrek hornidura-defizit handia du gaur egun kantitateari dagokionez, lehorraldietan areagotu egiten dena. Defizit horren zati bat Debagoiena eta Durangaldea bezalako eskualde mugakideetako ekarpenen bidez estaltzen da.

Bigarren eremuak, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutrikuri dagokienak, hornidura bermatuta dauka KILIMON iturburuari eta Mendaro inguruan egindako

lurpeko uren putzuei esker. Tutueria-sareak eta edateko uren araztegiak abian daude, ITZIARKO hornidura izan ezik, proiektu-fasean dago-eta.

Saneamendu-sistemaren gaur egungo egoerak azpiegitura-defizit handiak ditu. Une honetan Eskualdeko Saneamendu Plana idazten ari dira Mallabia-Ermua-Eibar-Soraluze-Placencia de las Armas ingururako.

Era berean, eskualdeko saneamendu-kargarik handiena bilduko duen araztegia aurreikusita dago Elgoibarren, eta Mendaro, Mutriku eta Debako esparruak araztegi txikien sistema independenteekin geratuko dira.

Gaur egun, Eibarko kolektore biltzailearen tarte txiki bat baino ez dago eginda.

2.1.4.5. Ibilguen babesak eta uholdeak(*)

(*) Ortegiren Lurraldearen Zatikoko Planaren aurrerapenetik (1985eko otsaila) laburbildua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren eta Ibai Autonomoen Azterketa Hidraulikoaren datuen arabera, urperagarritasun-arazo larriak daude Mendaro eta Elgoibar inguruan, batez ere hirigunetik ibaian behera, eta Soraluze-Placencia de las Armasen.

Horrez gain, nabarmentzekoa da Ermuko eta Eibarko problematika berezia, Ego ibaiaren hiri-eremu zabalak estali izanaren ondoriozkoa.

Problematika hau, halaber, Mallabia inguruan eta Deba ibaiaren eskuinaldeko erreka txikietan gertatzen da Soraluze-Placencia de las Armas hirigunean.

Uholde-arriskua areagotzea hainbat arrazoiri egotz dakioko:

- Mantentzeko eta garbitzeko lanak zailak dira eta horrek buxadurak eragiten ditu.
- Beste ibai batzuekiko elkargunea estalita egoteak kargan jar lezake estaldura eta horrek nabarmen handitzen du ur-lamina ibaian gora.
- Gaur egun dauden estaldura askotan ez dago behar adinako sekzio hidraulikorik, ez baitira diseinatu gaur egun erabiltzen diren uholde-emarietarako.

2.1.4.6. Hondakin solidoak

Eskualdean sortzen diren hiri-hondakinak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak kudeatzen ditu; mankomunitatearen esparru geografikoa bat dator Lurraldearen Zatikoko Planaren bildutako udalerrienekin.

Gaur egun 22.000 tona zabor sortzen dira urtean eta Azpeitiko Lapatx zabortegira bidaltzen dira, hori baita Gipuzkoako Hondakinen Planaren arabera eskualdeari dagokiona. Horrez gain, Mutrikuko eta Eibarko transferentzia-estazioetatik birziklatzera eramaten diren 2.300 tona inguru paper eta beira biltzen dira.

Azken urteotan %2 eta %3 bitarteko urteko batez besteko gehikuntza izan da; txiki samartzat jo daiteke, beraz.

Aurreikuspena produkzioa egonkortzean eta material birziklatuen bilketa areagotzean datza.

Hondakin solido geldoak zabortegei kontrolatuetan tratatzen dira; Elgoibarkoa da eskualdean irekita dagoen gisa horretako zabortegei publiko bakarra. Bergaran ere legezko beste zabortegei kontrolatu bat dago.

2.1.4.7. Elektrizitate- eta gas-azpiegitura

Gaur egungo egoeran hutsune handiak daude produkzioan eta eskaria eskaintza baino askoz ere handiagoa da.

Eskualdean ez dago produkzio-zentro garrantzitsurik, Soraluze-Placencia de las Armaskoa bezalako minizentral elektrikoren bat besterik ez. Elgoibarko transformazioko eta banaketako azpiestazioan 138 kV-etik 30 kV-era transformatzen da eta erdi tentsioko (30 kV) lineen bitartez banatzen da transformazioko eta erregulazioko azpiestazioetara (TEA). Transformazioko eta erregulazioko azpiestazioetatik abiatzen diren erdi tentsioko lineek (13 kV) hiri-transformadoreak hornitzen dituzte (13 kV/380 V), eta hemendik egiten da hiriguneen eta landaguneen hornidura.

Eskualdea 380 kV-eko bi linea elektrikok zeharkatzen dute: batek ekialdetik mendebaldera erdialdean eta besteak hegoaldeko muturrean. Bi lineak lurzoru urbanizatu gabetik igarotzen dira eta, horrenbestez, ez dute inolako arazorik sortzen.

Gas-azpiegiturari dagokionez, eskualdea Mallabitik Debaraino zeharkatzen duen Gas Euskadi enpresaren gasbidea dago. Gasbide horrek, era berean, hiriguneetako etxeak eta saltokiak gasez hornitzeko deribazioak ditu.

2.1.4.8. Telekomunikazioak(*)

(*) Ortegiren Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerapenetik (1985eko otsaila) laburbildua.

Aintzat hartu beharreko bi sare-mota daude:

- Oinarrizko telefono-sarea; ahozko telefonia, abiadura txikiko datu-transmisioa, fax-zerbitzuak.
- Sare integratua. Aurreko zerbitzuez gain, ZERBITZU INTEGRATUETAKO SARE DIGITALARI eta banda zabalarari lotutako guztia biltzen du. (ISDN-BZ).

Sare propioak dituzten bi konpainia daude: CTNE (TELEFONICA) eta EUSKALTEL (Eusko Jaurlaritzaren sarea).

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Telekomunikabideak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Plana (1994) idatzi zuen.

2.1.5. Ekipamenduen datuak

2.1.5.1. Irakaskuntza-ekipamendua

Biztanleriaren arlo honetako premiak betetzeari dagokionez, eskariak, irismenak eta funtzionamenduak definitzen duten eremu funtzionaleko errealitatea aztertuta, eskualde-mailako hezkuntza-premiak funtsean beteta daudela eta gabezia nabarmenik ez dagoela esan genezake. Gainera,

Debabarreneko joera demografikoak eta biztanleriaren hazkunde begetatiboaren tasaren bilakaerak eskariaren murriztapena eragingo dute Lurrealdearen Zatikoko Planaren horizontean, biztanleria gazteak biztanleria osoaren gainean duen pisua murriztu egingo da-eta. Hori dela-eta, eskolaplazzen eskaintza etorkizuneko eskariaren proiektzioa betetzeko behar adinakotzat jotzen da.

Adierazi beharra dago Debabarreneko eremu funtzionalak oso maila handiko prestakuntza duela lanbide-heziketako ikasketetan. Arlo horretan duen zuzkidura garrantzitsu eta espezializatuak (makina-tresna) aise gainditzen du eskualde-esparrua eta zenbaitetan eskualdeaz gaindiko ekipamendua izatera iristen dela esan daiteke.

Azkenik, irakaskuntza-ekipamenduko ikastetxe horien lurralde-esparruko kokapenari dagokionez, adierazi beharra dago Eibarrek bere esparruko (Ermua, Mallabia eta Soraluze-Placencia de las Armas) irakaskuntza-zuzkiduraren eskaintza osoa kontzentratzen duela. Elgoibarrek bere lurralde-esparruko batxilergoko eta lanbide-heziketako irakaskuntza-eskariak asetzen ditu, baita kostaldeko esparrukoak ere. Dena den, esan beharra dago Mutriku baduela lanbide-heziketako ikastetxea.

Hala, hezkuntza-zuzkidurako bi gune garrantzitsu taxutzen dira: Eibar eta Elgoibar. Izan ere, bertara joaten dira hezkuntza-maila hauek eskatzen dituzten Debabarreneko ia ikasle guztiak, Mutrikuoak izan ezik.

Eremu funtzionalak, halaber, badu unibertsitate-mailako irakaskuntza-ekipamendua –Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate Eskola–. Bere eragin-esparruak Debabarrenekoa gainditzen du gainera.

2.1.5.2. Kirol-ekipamendua

Eskualde-mailako kirol-ekipamenduaren analisiak bi errealitate daudela azaltzen du:

- Alde batetik, zuzkidura-maila ona dago instalazio-kopuruari dagokionez. Bi udalerrri baino ez dira –1.500 biztanletik beherakoak biak– kiroldegirik ez dutenak.
- Bestalde, kirol-instalazio guztiak aintzat hartuta –eskualdeko eta tokiko esparrukoak–, Debabarreneko udalerrietako instalazioen tamaina Gipuzkoako batez besteko tamaina baino txikiagoa da.

Kokapenaren ikuspegitik, kirol-ekipamendua nolabait ere Eibarko udalerrian kontzentratuta dagoela ikus daiteke; guztiz logikoa da udalerririk duen biztanleria (eskualdeko biztanle guztien %40 baino gehiago udalerririk honetan bizi dira) eta eskualde-burua dela kontuan hartzen badugu. Dena den, esparru guztietan (kostaldea/erdialdea/barrualdea) daude ekipamendu honetako unitateak; hain zuzen ere, kiroldegiak daude Deba, Mutriku, Elgoibar, Eibar, Ermua eta Soraluze-Placencia de las Armasko udalerrietan.

Mendaro eta Mallabia dira mota honetako instalaziorik ez duten bakarrak. Alabaina, Ermua eta Eibarko udalerririk Mallabia aski hornitzen dutela eta Mendarok bere eskaria Elgoibarrerantz zuzendu behar duela irizten zaio.

2.1.5.3. Osasun-ekipamendua

Ekipamendu honen ikuspegitik, adierazi beharra dago Gipuzkoako osasun-eremuaren lurralde arloko mugaketak eta sailkapenak lurraldea 6 esparru

geografikotan banatzen duela eta horietako bat Gipuzkoako Debabarreneko eskualde tradizionalari eta Bizkaiko Ermua eta Mallabiko udalerriei dagokiela, hots, Debabarreneko eremu funtzionalari.

Osasun-zentroei dagokienez, Mendaroko Ospitalea nabarmentzen da, bere 102 oheekin zerbitzu eskusiboa egiten baitio eremu funtzional osoari. Arantzazu Ospitalea (Donostia-San Sebastian) dagokio eremuko erreferentziako ospitale gisa. Beraz, 1.000 biztanleko 1,36 oheko tasa dagokio, Gipuzkoako txikiena.

Horrez gain, bi anbulatorio daude biztanle gehien dituzten bi udalerrietan (Eibar eta Ermua), eta udalerrri guztiek mediku-kontsultategi bat dute gutxienez.

Gure iritziz, mota honetako zuzkidurei dagokienez eskualde-eremuak eskaria behar adina hornituta dauka. Gainera, biztanleriaren kontzentrazio-maila handiari esker zerbitzua zentro-kopuru txikiagoarekin bete daiteke. Mutriku, alabaina, ospitaletik "urrun samar" (denboraz) geratzen da. Udalerrri honen eta eremu funtzionalaren gainerakoaren arteko bide-konexioa hobetu beharko da arazo hori konpontzeko.

Azkenik, gure iritziz Mendaroko Ospitalea nahikoa da eskualdeko premiak asetzeko.

2.1.5.4. Laguntza-ekipamendua

Ekipamendu-mota honetan, erabilera- eta funtzionamendu-adierazleak, zentro eta zerbitzuen tipologia eta, azken finean, herritarrentzako arretaren kalitatea baloratu behar dira instalazio-kopurua baino gehiago.

Laguntza-ekipamenduak tokiko jardun-eskala eskatzen du batik bat; hori dela-eta, ez dagokio Lurraldearen Zatikiko Planari ekipamendu honi buruzko inolako zehaztapenik ezartzea. Horren salbuespen izan beharko luke hirugarren adinekoei egoitzen edo tutoretzapeko ostatuen bitartez zuzendutako arretak.

Era berean, eremu funtzionalak Lurraldearen Zatikiko Planaren horizontean izango duen biztanleria-zahartze etengabe eta nabarmenak eragina izango du mota jakin bateko laguntza-zuzkiduraren eskariak izango bide duen igoeran. Debabarreneko eremu funtzionalak gaur egun Gipuzkoa osoko adinekoentzako egoitza-ekipamenduen tasarik onena badu ere (udalerrri guztiek dituzte mota honetako instalazioak, Mallabiak eta Mendarok izan ezik), gaur egun eskaintzen den gutzitiko plaza-kopurua (500 plaza inguru) gehitzeko premia sortuko da Lurraldearen Zatikiko Planaren horizontean. 2014. urteko horizontean, efektibo demografiko guztietatik, gutxi gorabehera 14.000 biztanlek 65 urtetik gorako adina izango dute. Egoitza, tutoretzapeko ostatu eta abarren gisako laguntza-zerbitzuen eskakizunei dagokienez, 65 urtetik gorako biztanle guztien %10eko proportzioa ezar daiteke; horren arabera, eskari balioetsia 1.400 plaza ingurukoa izango litzateke. Beraz, egungo eskaintza hirukoiztu egin beharko litzateke ia.

2.1.5.5. Ekipamendu judiziala

Eibarko udalerrria eremu funtzionala osatzen duten Gipuzkoako udalerrriek osatzen duten esparruko barruti judizialaren burua da; udalerrriok eskualdeko epaitegiaren mende daude. Eremu funtzionala osatzen duten Bizkaiko udalerrriak, berriz, Durangoko barruti judizialaren barruan daude

eta bertako epaitegira jo behar dute mota honetako zuzkidurak behar dituztenean.

Barruti judizialak zerbitzatzen duen biztanleriari dagokionez ahalik eta oreka handiena lortu beharra eta bere azalera orekatzen ahalegintzeko helburu orokorra abiapuntutzat hartuta, argi eta garbi dago eremu funtzionala eta barruti judiziala bat etortzeko premia. Ildo horretan, Debabarreneko eremu funtzionala barruti judizialera egokitzen da, beste probintzia-auzitegi baten mende dauden Bizkaiko udalerriak izan ezik.

Errealitate horren aurrean, gure iritziz gaur egungo egoera egokia da lortu nahi den lurralde-ereduan eta, horrenbestez, gaur egungo aukerak aprobetxatu egin behar dira ekipamendu judizialaren etorkizuneko plangintzan.

2.1.5.6. Kultur ekipamendua

Gaur egun, Debabarreneko eremu funtzionaleko udalerri guztiek dute toki-eskalan zuzkidura-mota honetarako erabiltzen den instalazioren bat –kultur etxea eta/edo liburutegia–. Eskualde-eskalako ekipamendu honi dagokionez, Deba, Elgoibar eta Ermuko udalerriek gutxienez proiektzio-areto bat badute, eta ekipamendu gehiena, logikoa den bezala, Eibarko udalerrian kontzentratzen da.



Elgoibarko udaletxea

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen arabera, eremu funtzionalaren edo eskualdearen mailako kultur ekipamendua eremu funtzional bakoitzeko buruetan edo azpiburuetan kokatu beharreko Kultur Zentro Integratuak (KZI) dira.

2.1.5.7. Turismo-ekipamendua

Debabarreneko eremu funtzionalak, gaur egun, Deba eta Mutrikuko udalerrietan kontzentratzen den turismo-azpiegitura dauka. Azken udalerri horretan kanpin-instalazioak dira nagusi. Halaber, Elgoibar, Eibar eta Ermuko udalerriek badute nolabaiteko hotel-azpiegitura, nahiz eta oso txikia izan, eta Mendaro eta Mallabiko landa-udalerriek landa-turismoa egiteko instalazioak dituzte.

LABURPEN TAULA: ESKUALDE MAILAKO EKIPAMENDUAK

	IRAKASKUNTZA EKIPAMENDUA	KIROL EKIPAMENDUA	OSASUN EKIPAMENDUA	LAGUNTZA EKIPAMENDUA	KULTUR EKIPAMENDUA	TURISMO EKIPAMENDUA	EKIPAMENDU JUDIZIALA	ADMINISTRAZIO EKIPAMENDUA
DEBA		Kiroldegia		Adinekoen egoitza	Zinema	Turismo- informazioko zentroa (Agirre jauregia), 2 hotel, 2 kanpin eta landa- turismoko 8 etxe		
MUTRIKU	LHko institutua	Kiroldegia		Adinekoen egoitza		4 kanpin eta landa- turismoko 2 etxe		
ELGOIBAR	B. institutua, F.R. eta enpresa- kudeaketako institutua; Makina Erremintaren Institutua.	Kiroldegia, kirol- estadioa		Adinekoen egoitza				
MENDARO			Eskualdeko ospitalea			Landa- turismoko etxe bat		
EIBAR	Lan Unibertsitatea, B. Institutua; 2 ikastetxe eta IE ikastetxe integratua; Armeria Eskola.	Kiroldegia, kirol-zelaia eta igerilekua, kirolgunea, tiro-eremua, pilotalekua.	Anbulatorioa	Adinekoen 4 egoitza Tutoretzapeko ostatuak	3 zinema, arma-museoa eta Coliseo antzokia	2 hotel	Eskualde- epaitegia	Ertzain-etxea
ERMUA		Kirolgunea eta kiroldegia.	Anbulatorioa	Adinekoen egoitza	Zinema eta kultur etxea (Lobiano jauregia)	Hotel bat		
MALLABIA						Landa- turismoko etxe bat		
SORALUZE- PLACENCIA DE LAS ARMAS		Kiroldegia		Adinekoen egoitza				
Estandar adierazleak	Bigarren hezkuntzako eskola (BBB - LH) 50000 - 10000 bizt. Unibertsitatea: 90.000 - 100.000 bizt.	Ertaina: 1000-1200 etx. Handiak: 60.000 bizt. ggb. 25.000 etx.	Anbulatorioa: 10.000 bizt. ggb. (3.000 etx. ggb.) Eskualdeko ospitalea: 50.000 - 60.000 bizt.	Adinekoen egoitza: 8.000 bizt. ggb.	Ertaina: 5.000 bizt. ggb. Berezia: 25.000 bizt. ggb.			

2.2. LURRALDEAREN ZATIKO PLANA DISEINATZEKO INDAR IDEIAK

Lurraldearen Zatikoko Plana diseinatzeke indar-ideiak edo oinarritzkoak honako hauek dira:

1. Bitarteko lurralde-eskala eta gizarte-proiektu orokorra lortzea.
 - Arloko politikek eta udal-plangintzek "osotasunaren" osagai behar dute izan, eta Lurraldearen Zatikoko Plana izango da horiek bateratzeko tresna.
 - Lurraldearen antolamenduak ez du oreka, malgutasuna eta dinamismoa aurkituko epe luzerako ikuspegia aurreikusiko duen gizarte-proiektu orokor batean integratzen ez bada. Ez da beste koiuntura sozioekonomiko batzuetatik sortutako orekak zuzentzen soilik kontzentratu behar, jarduera, garapen eta arloen arteko dinamika berriak ahalbidetuko dituzten ekintza positiboak bideratzen baizik.
2. Ingurune fisikoarekiko jarrera aktiboa eta konpromiso handiagokoa.
 - Inpaktu negatiboak saihestea bestelako helbururik ez duen jarrera pasiboa baztertu nahi da. Esku-hartze positiboko eragiketak garatu behar dira.
 - Lurraldearen bokazioa eta harrera-ahalmena baloratu behar dira hirigintza-jardunak definitzeko esparrua sortzeko, natura bere ingurune sozial eta espazialaren testuinguruan kokatuko duen ekintza integral gisa ulertuz ingurumen-iraunkortasuna.
3. Hiri-espazioaren transformazioa eta jarduera ekonomiko berria.
 - Industria eta zerbitzuen arteko banaketa zorrotza lausotzen duen jarduera ekonomiko berri baten alde egiten da.
 - Ekonomia birmoldatzeko ezinbestekoa da alde aurretik jarduera ekonomiko hori sortu ahal izateko "euskarria" aldatzea.
 - Jarduera ekonomiko berriaren beste ildo batzuk balioztatzea, natura-ingurune fisikoari eta honen iraunkortasunari lotuagoak.

2.3. EKARPEN PROSPEKTIBOAK. PLAN ESTRATEGIKOAK

Proposatzen dena bezalako metodologia parte-hartzailearen ikuspegitik, estamentu eta sektore politiko, sozial eta ekonomikoetatik egiten diren ekarpen prospektiboek horien guztien adostasuna eta inplikazioa ahalbidetuko dute.

Dokumentu honen asmoa proposatutako aldaketa ahalbidetuko duten eragile guztiak mobilizatzea da, etorkizuna guztion lana baita eta bakoitzak etorkizunaren ikuspegi desberdina baitugu, zein lekutan gauden eta zernolako garrantzia ematen diogun. Orain jardun behar dugu nahi dugun etorkizuneko proiektuaren arabera, bertan inplikaturik dauden alderdi guztiak integratuko dituen proiektu kolektiboa sartuz Lurraldearen Zatikoko Planean.

3. KAPITULUA. LURRALDE EREDUA

3.1. LURRALDE EREDUAREN OINARRIZKO ALDERDIAK

Dokumentu honek garatu duen lurralde-eredua ingurune fisikoa baldintzatzen duten faktoreek osatzen dute, multzo osoaren iraunkortasunaren funtsezko osagaiak diren heinean, eta epe luzerako erreferentzia eta helburu gisako paisaia idealaren proposamenean mamitzen da:

I. Uraren ziklo integrala.

Hainbat neurri xedatuko dira honako elementu hauen funtzionamendu zuzena lortzera bideratuta:

- Lur gaineko drainatze-sistema, arro osoko erreka, errekasto eta ibaien sareak osatua.
- Izarraitz-Arno-Andutz mendiguneko lurpeko akuiferoak eta karsta berriro kargatzeko sistema, inguruko iturburuek urez hornitzen dutena.
- Arroa osotasunean kudeatzeko sistema baso-estalki aproposa lortuz eta basogintzako teknika egokiak aplikatuz hobetzea.
- Ur-bazterreko landaredia eta ibai-ibilguak babestekoa leheneratzea.
- Ibaietako uren kalitatea hobetzea, horretarako urak saneatzeko ingurumen-azpiegiturak garatuz eta kontsumo-ohiturak arrazionalizatuz.

II. Natura-ingurunea biziberritzea, biodibertsitatea eta kultur ondarea mantentzea.

Proposatutako lurralde-ereduak bere baitan hartzen ditu interes handieneko landaredi-eremuak eta habitat naturalak, gure natura-ondareko flora eta fauna basatiak, balio handieneko espezieak baso naturalaren atal urrietan zokoratuta dituztenak, eta poluzio-maila txikia duten erreka batzuk, harkaiztegiak eta sakan helezinak, ekosistema berezi adierazgarrienetako hondar-formazioak babestuz, hala nola, itsasertza, padura, artadi kantaauriarra eta karsta..

Aldi berean, balio handieneko kultur eta produkzio-paisaiak barne hartu behar dira, euskal baserri atlantikoaren landazabalari lotutakoak, beren forma orekatuenetan.

III. Hiri-ingurunearen kalitatea.

Lurralde-ereduak hiri-ingurunearen kalitatea ingurumen-osasuneko irizpideen arabera –hiri osasungarriak– hobetzea proposatzen du. Horretarako, barne-erreformako eremuak leheneratuko dira, lurzorua erabilera aldatuz eta/edo eraikuntzaren espazio-okupazioa murriztuz eta arintze-eremuak sortuz; hiriko natura-paisaiak leheneratuko dira garapen berriko eremuak formalizatzean kokagune arinduagoak sortuz; eta, orobat, herritarrei natura-ingurunera hurbiltzeko aukera emango dieten hiri inguruko natura-paisaiak leheneratuko dira, bizitza –etxebizitza, lana, aisia eta kultura– inpaktu negatiborik eragin gabe garatzeko, eta jokabide-ohitura osasungarriak sartuko dira hondakin solidoak murrizteko eta sortzen direnak egoki kudeatzeko eta ura, energia, elikadura eta garraioa erantzukizunez kontsumitzea sustatzeko.

IV. Lurraldearen arrazoizko erabilera.

Natura-baliabideak iraunkortasunaren eta lehengaiak eta energia aurreztearen irizpideei jarraiki ustiatzea abiapuntutzat hartuta, erabilerak lurraldearen egungo potentzialtasunaren edo urrakortasunaren arabera egokituko dira, honako oinarri hauen gainean:

- Kalitateko nekazaritza, kontsumitzaileen hurbilekoa, hondakin poluitzailerik gabea eta nekazaritza-lur onenak eskura eta legez babestuta izango dituen. Administrazio publikoek nekazaritza eta basoak sustatzeko gauzatzen dituzten programek, gaur egun egin ohi den bezala, ingurumen-baldintzak betetzera zuzendutako laguntzak hartu ahal izango dituzte beren baitan.
- Natura-potentzialtasunak, teknologia egokienak eta lurzoru aproposenak aprobetxatuko dituen basogintza produktiboa, higadura, lurzoru-galera eta egungo drainatze-sistemen asaldura saihestuko dituen.
- Ingurunean integratutako bizitegien eta jarduera ekonomikoen hiri-okupazioa, ahalik eta inpaktu eta ingurumen-kostu txikienekoa, ur-bazterrak eta ur-ibilguak, ibarrak, basoak eta abar errespetatuko dituen eta gizakiaren jarduerak garatzeko etxebizitza- eta industria-kokagune duinak eratzeko aukera emango duena.
- Garraio eta komunikabideen sistema antolatua, funtzionala eta arina, gizakiaren jarduera ingurunea degradatu gabe garatzeko aukera emango duena. Horretarako, lehendik dagoen azpiegitura aprobetxatu eta funtsezko alderdietan moldatu eta hobetuko du.
- Jolas-, atsedeen- eta kultura-ekipamenduen sarea, ondare naturalistikoa, eraikin arlokoa, etnografikoa eta kulturala oinarritzat hartu eta legez babestuko duena; horrez gain, ondare hori kontserbatzeko konpromisoa hartuko du eta herritarren bizi-kalitatea garatuko du, lurraldeaz gozatzeko aukera emanaz. Atsedeneko Natura Eremuek eginkizun garrantzitsua beteko dute sare horretan.

V. Lurraldea administratzeko eta kudeatzeko ikusmolde berria.

Proposatzen dugun lurralde-eredua abian jartzeko ezinbestekoa da:

- Lurraldea kudeatzeko administrazio publikoak erreformatzea.
- Gizarte zibil antolatua deitu ohi zaionak (elkartek, kolektiboak, sozietateak, etab.) neurri handiagoan parte hartzea. Horretarako behar-beharrezkoa izango da etorkizuneko gizarte-ereduari eta lurraldeari buruzko eztabaidan inplikatzeko bideak eta foroak irekitzea eta gai horietan erabakiak hartzen dituzten bitartekoetan eta erakundeetan esku hartzeko aukera ematea.
- Lurraldea eta onar daitezkeen jarduerak osotasunean kudeatzeko eredu berria. Horretarako, muga fisikoak eta ingurumenekoak argitu beharko dira, lurraldeko eremuen eta zonen helburu komunak finkatu, udalaz gaindiko plangintzaren kontzeptua barne hartu eta azpiarro eta arro unitateak erabili udalerriaren ordean.
- Natura-baliabideetan, ondare ekologiko eta kulturalean eta hirikalitatean eragina duten jardueretan interes orokorra babesteari buruzko jurisprudentzia garatzea gizartea babesteko.

3.2. EREMU FUNTZIONALEKO UDALERRIEN KARAKTERIZAZIO FUNTZIONALA

Proposatutako lurralde-ereduan, Debabarreneko eremu funtzionala osatzen duten gunetako bakoitza funtzionalki karakterizatzeko, honako hauek adieraz daitezke:

MUTRIKU-DEBA:

Eremu funtzionaleko joera demografiko erregresiboen aldaketa bermatuko duen oinarria osatu behar dute. Udalerri hauetarantz bideratu behar da eskualdeko bizitegi-parkearen etorkizuneko hazkundearen zati handi bat, beren hiri- eta ingurumen-kalitatea eta itsasertzak duen gizarte-erakarpina sostengu hartuta.

Baldintza horiexetan oinarrituta, esparru honetan jarduera ekonomikoa Debabarreneko gainerakoan nagusi den industria-jardueraren bestelakoa izango da. Turismo-sektorea indartu egingo da, aberastasuna sortzen duen iturria baita, eskualde-eremuaz kanpoko eskariei erantzuteko aukerak dituen ingurune batean.

Esparru honetako arrantza-jarduera bereizgarriak babestu eta bultzatu egin beharko dira.

Turismo-jarduera horretarako ezinbestekoa da turismo-azpiegitura egokiak sortzea –gaur egun eskasak dira–, kulturaren, aisiaren eta astialdiaren alorreko zuzkidura-jardunei eta itsas fatxadak (saneamenduak, pasealekuak, parkeak eta lorategiak, hondartzak, etab.) biziberritzekoei loturik, horrela lortuko baita sektorean ekimen pribatua berreskuratzea eta sektorea bera profesionalizatzea.

Itziarko gunerako nolabaiteko bizitegi-hazkundera lortu behar da, bertako industria-poligonoa erabat garatzeko. Poligono horrek esparru honetako industria-ekimen gehienak kontzentratu behar ditu, A-8 autobiderako irisgarritasun onean oinarrituta. Eremu funtzionalaren mutur batean kokatuta egon arren, garraio-zentroa Itziarren koka liteke, baita eskualdeko biltegitratze-eremu bat ere, lurralde historikoarentzat baliozkoa izan litekeena.

Saturrarango gunean bizitegi- eta industria-hazkundera kontrolatu behar da, batez ere hondartzari eta itsasertzari laguntzeko jarduerak eta eremuak hartuz, baina neurrian betiere, natura-ingurunearen urrakortasuna eta berezitasuna kontuan hartuta.

ELGOIBAR-MENDARO:

Elgoibarko udalerria eremu funtzionalaren erdialdean estrategikoki kokatuta dagoenez eta okupazio-aukerarik handienak dituen Debabarreneko barrualdeko udalerria denez gero, funtsezko eginkizuna jokatu behar du eskualdearen etorkizunean, bertan duen pisu funtzionala nabarmen areagotuz. Udalerri horretarantz zuzendu behar dira hiri arloko biziberritze-prozesuei loturik ez dauden zuzkidura-jardunak eta bertan kokatuko da Debabarreneko barrualdeko industria-eskariaren zati bat, beste udalerrri batzuk (Soraluze-Placencia de las Armas eta Eibar) biziberritzeko prozesuak bideratze aldera.

Azpiegituren garapenak (Maltzaga-Urbina eta Mutriku-Elgoibar konexioa) eremu funtzionalaren kanpoaldearekiko harreman-jarduerak kontzentratuko dituen erdialdeko gunen nagusi gisa indartuko ditu udalerrri hauek.

Elgoibarren tamaina ertaineko merkataritzaguneetako jardunak, industria-poligonoa edo industrialdea ezartzea planteatu daiteke.

Mendaroko hiri-lurzorua osatu egingo da eta gazteentzako sustapen publikoko bizitegi-jarduerak erakarri ahal izango ditu –trenbideari lotuak–, baita gaur egun dagoen ospitalearekin lotuko den eskualde-ekipamenduren bat ere. Hazkunde handi samarra izango du.

Udalerri honetan ezinbestekotzat jotzen da Haranerreka-Kilimon kontserbatzea eta Deba ibaiari eta N-634 errepideari erantsitako industria-eremua berrurbanizatzea, ibaiertzak balioztatzeke oinezkoentzako pasealekuak eta espazio libreak sortuz.

EIBAR-ERMUA:

Eibarko udalerriko erdiguneak eremu funtzional osoko eskualde-buruaren funtzioak betetzen ditu eta Lurraldearen Zatikoko Planaren horizontean eginkizun hori betetzen jarraituko duela espero da. Eginkizun horretan oinarritzen dira garatu beharreko jardun asko, hirigunea biziberritzera zuzenduak, hori baita bere ekonomia eta biztanleak bertan finkatzeko beharrezko "irudi-aldaketa" dinamizatuko dituen faktorea.

Udalerriaren hazkundera ez da kantitatara bideratu behar, hiri-kalitateari begira baizik. Bizitegirako eta hirugarren sektorerako beharrezko zuzkidura-alderdiak integratuko dituzten eragiketak behar dute izan, udalerraren hiri-ehuna leheneratzea ahalbidetuko dutenak, bertan lekuz aldatu beharko diren industria-erabilera zaharkituak daude-eta.

Hirigunera zuzendu nahi diren kalitateko jardun hauekin batera, hirigunea arintzera zuzendutako dentsitate txikiko tipologiak izango dituzten bizitegi-eskaintzen aukerak bideratu beharko dira gune horretatik hurbil dauden beste alde batzuetan.

Ermuak izan behar du, bere biztanleriaren ezaugarriak kontuan hartuta, esparruaren demografia berreskuratzeko gunea, batez ere etxebizitzaren eta lanaren merkatuari dagokionez gune bakar gisa funtzionatu beharko lukeen Eibar-Ermua eremu jarraituan. Udalerri honetan udal-mailako eta auzo-mailako zuzkidura-jardunak osatu beharko dira. Era berean, udal-atalaseko merkataritza-jarduera sustatu beharko da, bertako herritarren berezko premiak asetzearren.

Bizitegi arloko jardunek Eibarko udalerrirako adierazitakoaren ildo beretik jarraitu beharko dute.

SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS:

Lurralde-antolamenduaren ikuspegitik biziberritzeko arazo handienak dituen udalerrria da inolako zalantzarik gabe. Eibarrek duen hiri-pilaketako problematika berbera dauka, baina ez du eskualde-buruaren eginkizuna betetzeko aukerarik. Bere abagune nagusia Debagoienarenzko eta Euskal Autonomia Erkidegoaren hiribururanzko korridorean duen kokapenari loturik egon liteke. Horrenbestez, Maltzaga-Urbina autobidearen eraikuntzari loturiko sinergiak baliatzen ahalegindu beharko da.

Hala eta guztiz ere, lehenasunezko helburuak hirigune historikoa leheneratuko duen eta ekonomiaren zati bat hirugarren sektoreratzean (txikizkako merkataritza birgaitzean oinarritua) bermatuko den birgaitze integrala izan behar du ardatz.

Udalerriaren hazkundera oso mugatuta dago zentzu guztietan eta ezinbestekoa du hiri-ehuna biziberritzea eta hirigune historikoa gaur egun duen biztanleriari eusteko ahalmenez hornitzea. Horretarako, bikote gazteak erakartzea ahalbidetuko duten hiri-kalitateko jardun bereziak jarri behar dira abian: hirigune historikoa leheneratzea eta ingurumenarekin zerikusia duten beste batzuk (Karakate-Irukurutzeta eskualde-parkea gauzatzea).

MALLABIA:

Bere lurralde-esparruko jarduera ekonomikoetarako lurzorua aukera izan behar du, industria-jarduerak garatzeko batik bat. Hala, Ermua-Eibarren kokatu ezin diren baina bertako giza kualifikazioko eta merkatuko ahalmena behar duten ekimenei erantzun ahal izango die. Hiru udalerrri horiek elementu bakar gisa funtzionatu behar dute industriarako lurzoru-eskaintzari dagokionez.

Bizitegi arloko jardunei dagokienez, Mallabiko biztanleria-tamainak berak mugatzen du bizitegi-hazkundera. Hala, bizitegi-lurzorua eskaintza, kokapenari dagokionez, bizitegi-bokazio nagusia duten biztanleguneetara mugatu behar da eta, dimentsionamenduari dagokionez, gaur egungoaren antzeko etxebizitza-kopurura gutxi gorabehera, betiere landa-paisaiaren kalitatea zaindu eta babestearen alde eginez, nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak babestuz, enplegua sortzen duten eta landa-biztanleria finkatzen duten jarduera ekonomikoak baitira eta horren bitartez kudeatzen baita lurraldearen zati handi bat.

ZALDIBAR:

Eremu funtzionalean Ermua eta Eibar artean dagoen udalerrri honen zati txikiak udalerrri mugakideetakoekin bateragarri egingo du bere plangintza. Alde batetik, aurreikusitako bideak eta ingurabideak lotzea egokituko zaio eta, bestetik, Iburerreka poligonoko jarduera ekonomikoak finkatuko ditu Eibarrekin uztartuta. Horrez gain, Eibar-Ermua edateko urez hornitzen duen Aixola urtegirako oinarritzko lurraldea emango du.

4. KAPITULUA. IRIZPIDE, HELBURU ETA PROPOSAMEN OROKORRAK

4.1. INGURUNE FISIKOA

4.1.1. Lurzoruaren okupazioa

1. Egungo egoera: Bere ahalmen naturalari dagokionez, eremu funtzionalean desoreka larria dago lurzoruaren okupazioan, konifero exotikoen sail landatuak nagusitzen baitira, eremu funtzionaleko baso-estaldura osoaren %75 okupatzen dutela. Horrek biodibertsitatea murrizten du, paisaia soiltzen du eta lurraldearen ingurumen-arriskuak areagotzen ditu.



Lastur harana (Deba)

2. Helburuak. Lurzorua okupatzeko unitateak orekatzea.

3. Irizpideak. Lurzoru sentikorrenetan dauden konifero exotikoen sail landatuen ordeztu kontserbazioko eta/edo ustiapen estentsiboko eginkizuna beteko duten baso hostozabal naturalak ezartzea.

4. Proposamenak. Landa-lurzoruaren antolamendu-kategoriak zehaztean eta horien mugaketa kartografikoa egitean, lurzoruaren baso-bokazioa kontuan hartuko da, baso-kategoriaren garapenaren bitartez. Lurzoru sentikorrageo gainera honetara, ustiapen-txanda luzeagoak ezartzeko irizpidea kontuan hartuko da, lurzoruak zaindu ahal izateko.

4.1.2. Landaredi naturala

1. Egungo egoera. Bertako baso naturalek ahalmen optimoaren %10 baino ez dute okupatzen gaur egun, kasu askotan zatikatuta daude, egituran oso aldatuta eta birsortze naturalerako arazoak dituzte. Gainera, gisa horretako baso asko egoera kritikoa daude.

2. Helburuak. Bertako baso naturalen azalera babestea, biziberritzea eta gehitzea.

3. Irizpideak. Irizpide selektiboarekin jokatuz, basoek jatorrizko banaketa potentzialaren aldean gaur egun duten egoera aintzat hartuta, honako tipologia hauen gehikuntza eta hobekuntza lortzea:

- Lehentasun handiena: ameztiak (*Quercus pyrenaica*-ren hariztiak).
- Lehentasun handia: haritz kandudunen (*Quercus robur*) harizti azidofiloak eta baso misto atlantikoa, pagadi kaltzikola eutrofikoak eta haltzadi kantauriarra.
- Lehentasun ertaina: artadi kantauriarra, ezkamezti/harizti kaltzikola (*Quercus faginea*), pagadi azidofilo oligotrofikoa, haitzebakien oineko basoa eta harkaiztegiei loturiko landaredia.

4. Proposamenak. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak zehaztean eta horien mugaketa kartografikoa egitean, Babes bereziko kategoriaren definizioa kontuan hartuko da, bertako basoak zaintzeko, baita Ingurumen-hobekuntzako kategoria ere, baso-bokazioko lurzoruak hartzeko, non lehentasunez bertako baso naturalak birsortu beharko bailirateke. Baso naturalen kudeaketarekin zerikusia duen beste kategoria bat Lur gaineko urak babestekoa izango litzateke, ur-bazterreko haltzadiak eta baso misto hostozabalak leheneratzera zuzendua.

Inbentario bat egitea eta bertako basoek okupatzen dituzten gaur egungo enklabeen ezaugarriak definitzea.

Gaur egun dauden basoak legez babesteko neurriak hartzea, irudi juridiko egokien bitartez (Babestutako biotopoak, Natura-parkea, Natura 2000 sarea).

Gaur egun duten azalera zaintzeko, biziberritzeko eta gehitzeko kudeaketa-plan egokiak garatzea.

4.1.3. Flora eta landaredia

1. Egungo egoera. Euskal Autonomia Erkidegoko Flora Katalogoak zehazten duenez, Debabarreneko eskualdean goi-mailako landareen 705 taxon (espezieak eta azpiespezieak) daude. Horietatik 123 (%17) arrarotzat eta beste 18 oso arrarotzat (%2,5) jotzen dira. Landare horiek gaur egun inguruan oso azalera murrizak hartzen dituzten landaredi-komunitate batzuek okupatzen dituzten habitatetan baino ez daude.

2. Helburuak. Arrarotzat edo oso arrarotzat jotzen diren basoko floraren espezieak kontserbatzea eta horien bizileku diren habitatak zaintzea da lehentasunezko helburua.

3. Irizpideak. Katalogatutako espezieak eta horien habitatak zaintzeko neurri zehatzak hartzea.

4. Proposamenak. Floraren ikuspegitik, lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak zehaztean eta horien mugaketa kartografikoa egitean, lehentasunez kontuan hartuko da honako komunitate botanikoak zaintzeko eta birsortzeko irizpidea: artadi kantauriarrak, harkaiztegi eta larre harritarrak, kostaldeko itsaslabarrak, padurak eta barrualdeko hezeguneak, interes zientifiko handieneko flora hartzen dute-eta. Babes berezia, Ingurumen-hobekuntza eta Ibai-ibilguen babesa izendatu ditugun kategoriek, Mendi-larreen kategoriarekin batera, kudeaketa hori ahalbidetzen dute.

Basoko floraren eta habitat interesgarrien katalogoa eguneratzea, enklabeak kokatzea, gaur egungo egoera definitzea, maneiua eta kontserbazioko planak prestatzea eta populazioen jarraipen-planak egitea.

Natura 2000 sarean proposatutako flora kudeatzeko planak garatzea.

4.1.4. Fauna eta habitatak

1. Egungo egoera. Debabarrenean katalogatutako 130 ornodun-espezieetatik, 16 Arriskuan dauden espezieen euskal katalogoan (1997) barne hartuta daude; beraz ezinbestekoa da horiek kudeatzeko konpromisoa hartzea.

2. Helburuak. Arriskuan dauden basoko faunaren espezieak kontserbatzea da lehentasunezko helburua.

3. Irizpideak. Arriskuan dauden espezieetako bakoitzari zuzendutako kudeaketa-planak aplikatzeaz gain, espezie horiek hartzen dituzten habitat naturalak zaintzea eta birsortzea kontuan hartuko da.

4. Proposamenak. Faunaren ikuspegitik, lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak zehaztean eta horien mugaketa kartografikoa egitean, lehentasunez kontuan hartuko da fauna-interes handieneko habitatak, hala nola bertako baso hostoerorkorrek eta errekek eta ur-bazterreko basoak, zaintzeko eta birsortzeko irizpidea.

Arriskuan dagoen faunaren gaur egungo egoerari buruzko jakintza-maila eguneratzea eta banaketa-enklabeak kokatzea.

Arriskuan dauden espezieen maneiua eta kontserbazioko planak idaztea eta jarraipen-planak egitea.

Natura 2000 sarean proposatutako faunaren funtsezko elementuak kudeatzeko planak garatzea.

4.1.5. Funtsezko ziklo hidrogeologikoak

1. Egungo egoera. Debabarreneko eremu funtzionaleko lurzoru urbanizaezinean lurraldea okupatzeko eta erabiltzeko egungo jarraibideek arto hidrografikoari modu naturalean datxezkion ingurumen-arrisku larrien sorrera indartzen dute eta eragin negatiboa izango lukete funtsezko prozesu ekologikoen funtzionamendu zuzenean: akuiferoak berriro kargatzeko ziklo hidrogeologikoa, lurzoruen mantentzea, isurketa sistema eta uholdeen kontrola, lur gaineko uren kalitatea, basoko suteen prebentzioa, etab.

Prozesu horien adierazle neurgarri bakarra lur gaineko uren kalitate-indizea da (Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiak zaintzeko sarea), eta ibilguen egoera eskasa dela eta oso kalitate urria dutela zehazten du. Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralak uholde-arrisku larria duten eremuak azaltzen ditu.

2. Helburuak. Debabarreneko lurraldeko uren kalitate-maila eta lur gaineko drainatze-sarearen funtzionamendua hobetzea.

3. Irizpideak. Natura-baliabideak erabiltzeko eta ustiatzeko jardueren ondorioz ibai-ibilguak biziberritzean eta zaintzean eta uraren ziklo integralean eragina izan dezaketen faktoreei lehentasunezko arreta eskaintzea.

4. Proposamenak. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak zehaztean eta horien mugaketa kartografikoa egitean, higadurarekiko eremu sentikorretan eta erregulazio hidrologikoko eremuetan lurzorua erabilera mugatzen duten ingurumen-baldintzatzaileak kontuan hartuko dira.

Lurreko isurketa jasotzen duen lur gaineko drainatze-sarearen (ibaiak, errekek eta errekekastoak) leheneratze integralerako, Lur gaineko uren babesaren izeneko kategoria definitzen da, bere baitan ibilguren ertzak ez ezik, lur gaineko akuiferoak berriro kargatzeko eremuak, ur-bilketak eta arroetako goi-ibarrak ere hartzen dituena.

Uholde-arriskua duten eremuak mugatuko dira, ibar eta haran-hondo batzuetan, eta horiek arriskuak prebenituz okupatzeko baldintzak aplikatuko dira.

4.1.6. Baliabide hidrologikoak

1. Egungo egoera. Energiaren Euskal Erakundeak egindako Euskal Autonomia Erkidegoko azterketa hidrogeologikoak Izarraizko karsteko unitate hidrogeologikoaren existentzia zehazten du, Arno-Lastur (28 km² eta 40,7 Hm³/urte) eta Andutz-Itziar (2,5 km² eta 2,5 Hm³/urte) mendigune karbonatatuak hartzen dituena.

Iturburu ugariaren ur-bilketen bitartez hornidurarako ustiatzen den lurpeko akuifero honen garrantziak modu erabakigarrian baldintzatzen ditu lurzoru erabiltzeko beste jarduera batzuen aukerak. Akuiferoen urrakortasunaren mapak substratu litologikoaren, bere iragazkortasunaren eta lurpeko akuiferoen balizko poluzioaren aurreko urrakortasun-arriskuaren emaitzaren arteko erlazioa zehazten du. Irizpide horien arabera, mendigune karstikoak oso urrakortzat jotzen dira eta, horrenbestez, babes behar dute. Gainera, arrazoi ekologikoak, naturalistikoak, paisaiari dagozkionak eta nekazaritza eta abeltzaintzakoak direla-eta, sistema karstikoek oso interes handia dute eta babes-irudi gisa proposatuta daude.

2. Helburuak. Sistema karstikoaren gainean definitutako lurpeko akuiferoa berriro kargatzeko zikloaren funtzionamendu zuzena babestea.

3. Irizpideak. Sistema karstikoko lurpeko akuiferoa berriro kargatzeko ziklo hidrologiko naturalaren konplexutasuna eta urrakortasuna direla-eta, lurraldea okupatzeko eta erabiltzeko jarduerak arautu egingo dira, prozesu horretan inolako eraginik izan ez dezaten.

4. Proposamenak. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak zehaztean eta horien mugaketa kartografikoa egitean, lurpeko akuiferoak babesteko ingurumen-baldintzatzailea kontuan hartuko da.

Faktore naturalistikoak, paisajistikoak, ekologikoak eta kulturalak biltzen direnez gero, eremu funtzionaleko sistema karstikoak babes bereziko kategorian sartuko dira.

Eremu hauetako erabileren eta jardueren plangintza integrala natura-parkearen irudiaren bidez egingo da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 sarean barne hartzeko proposamenak oinarritzen dituzten kudeaketa-planak garatuko dira, horrek ematen duen nazioarteko ospea kontuan hartuta.

4.1.7. Ondare naturalistikoa eta kulturala

1. Egungo egoera: Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat katalogoren arabera, eremu funtzionaleko lurzoru urbanizaezinean Euskal Autonomia Erkidegoko ondare naturalistiko eta kulturalakoak diren elementu ugari daude (II. eranskina). Ondare horren zati handi bat identifikatu gabe dago, bertako herritarrek ez dute asko ezagutzen eta ez dago kontserbatzeko planik.

2. Helburuak. Debabarreneko eremu funtzionaleko ondare naturalistikoan, arkeologikoan, historikoan eta kulturalen katalogatutako elementuak babestea eta kontserbatzea.



Zabale dorrea (Elgoibar)

3. Irizpideak. Lurrealdearen Zatikoko Planetik, eskualde-plangintzako tresna denez gero, ondarea ezagutzeko, babesteko eta arrazionalki aprobetxatzeko proposamenak bultzatu behar dira. Estrategia egoki bat ondareko elementuak beren hurre-hurreko ingurunearen erabileraren eta okupazioaren testuinguruan kokatuz jarduteko norabideak ezartzean datza.

4. Proposamenak. Lurzoru urbanizaezinen antolamendu-kategoriak zehaztean eta horien mugaketa kartografikoa egitean, gaur egun dauden ondare naturalistiko eta kulturalen elementuak kontuan hartuko dira, babestu ahal izateko.

Zehazki, Natura Espazioen Euskal Katalogoan eta Natura 2000 sarearen proposamenen barne hartutako eremuak Babes bereziko zonatzat joko ditu Lurrealdearen Zatikoko Planak, legezko irudiren batera egoki litekeen babes eraginkorra proposatu ahal izateko. Espazio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko natura-espazio babestuen etorkizuneko sarea osatuko dute.

Kokapen puntualeko elementuetarako (mugarriak, aztarnategiak, etab.) inbentarioaren katalogo baloratua sortzea proposatzen da. Bertan ezarriko dira gaur egungo egoera, kontserbazio-lehentasuna, jardun-plana eta jarraipen-programa.

Ondare naturalistiko eta kulturalen oinarrituta egituratzen dira lurrealdearen erabilera publikoko eta ingurumen-hezkuntzako planak eta landa-ingurunearen turismo- eta atseden-aprobetxamendurako planak.

4.1.8. Landa-paisaia

1. Egungo egoera. Eskualde honetako landa-paisaia bereizgarria, neurri handi batean euskal baserriko polilaborantza atlantikoko landazabalaren mosaikoko paisaiekin pareka daitekeena, bertan garatzen den nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerari esker mantentzen da.

2. Helburuak. Landa-paisaiaren kalitatea kontserbatzeaz eta babesteaz arduratzea.

3. Irizpideak. Nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak babestea, enplegua sortzen duten eta landa-biztanleria finkatzen duten jarduera ekonomikoak baitira eta horren bitartez kudeatzen baita lurraldearen zati handi bat.

4. Proposamenak. Lurzoru urbanizaezina antolatzen kategorien zehaztapenean eta mugaketa kartografikoan gaur egun dauden paisaia-ondareko elementuak aintzat hartu eta babestuko dira.

Zehazki, mendi-larreei, nekazaritza eta abeltzaintzako landazabalari eta basoari dagozkien kategoriak proposatzen dira helburu hau lortzeko.

4.1.9. Ingurune fisikorako proposamenaren laburpena

4.1.9.1. Antolamendu-kategoriak

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategoriak lurraldearen gainean zehazteko prozesua proposamen-mapa batean gauzatuz burutzen da. Mapa horrek lursail edo unitate bakoitzerako laburbiltzen ditu LURZORUAREN ERABILERA BOKAZIOA eta giza jardueretarako norabide orokorrak, gaur egungo paisaiaren transformazioa eragingo dutenak ingurumen arloko desorekaren eta gatazkaren alderdietan.

Debabarreneko eremu funtzionalerako antolamendu-proposamenaren ebazpen praktikoak honako kategoria hauen definizioa dakar:

1. Babes bereziko eremuak: 2.145 ha (%10,96)

Gaur egun hobekien kontserbatutako bertako basoak eta Debabarreneko ingurumen-dibertsitatearen bereizgarrienak diren ekosistema berezien aztarnak hartzen dituzten eremuak barne hartzen dira.

Kategoria honetako zonetan mugatu egiten da gizakiaren esku-hartzea, eta egungo ustiapen-prozesuak kontserbazio-helburuetara egokitzen dira. Horrez gain, ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko berariazko neurriak bideratzen dira.

Mugaketa kartografikorako irizpidea Euskal Autonomia Erkidegoko Landarediaren Mapan oinarritzen da: tamaina jakin bateko basogune naturalak hautatuko dira eta zonako landaredi potentzialaren adierazgarriak diren tipologiak gehitzea bilatuko da. itsaslabarrak, ibarrak eta padurak, artadi kantaularra, harizti azidofiloak eta kaltzikolak, baso misto hostoerorkorra, pagadi azidofiloak eta kaltzikolak eta haltzadien eta urkidien gune txikiak.

2. Ingurumen-hobekuntzako zonak: 3.867 ha (%19,75)

Gaur egun baso natural degradatuak eta larre, sastrakadi eta bestelako formazio marjinaletako landaredia hartzen duten eremuak barne hartzen ditu, beren egoera topografikoa eta ahalmen naturala direla medio, inguru horiek biziberrituz eta hobetuz, babes bereziko kategoriari pareka dakizkiokeen komunitateetarantz bilaka daitezkeelako irizpidea aintzat hartuta.

Eremu horietan mugatu egiten da gizakiaren esku-hartzea, eta ingurumen-kalitate eta kalitate ekologiko handiagoko formazioetarantzko bilakaera naturalaren alde egiten da. Horrenbestez, ekosistema kontserbatzeko eta biziberritzeko jarduerak sustatuko dira.

Mugaketa kartografikorako irizpidea Euskal Autonomia Erkidegoko Landarediaren Mapan oinarritzen da: nolabaiteko asaldura-maila duten basogune natural txikien multzoak biltzen dituzten eremuak hautatuko dira, ingurune onuragarria duten gunetan kokatuta etorkizunean baso natural izatera bilakatzeko aukera dutenak. Halaber, otalur eta sastrakadi jakin batzuk, haltzadi batzuk eta landaredi naturalaren dibertsitatea bilduko duten ingurune txikiak barne hartuko dira.

3. Mendi-larreetako zonak: 571 ha (%2,92)

Larre naturalak dituzten mendiguneetako espazio irekietako artzain-paisaiak barne hartzen dira kategorian honetan. Abeltzaintza-jarduera estentsibo iraunkorra mantentzera zuzenduta daude, mendiko basogintza eta artzaintzako sistema tradizionalak kontserbatzeko estrategia orokorraren barruan.

Ingurune konplexu horietan, natura kontserbatzeko, paisaia eta baliabide hidrológicoak babesteko eta abeltzaintza estentsiboa eta atsedeen-erabilerak antolatzeko baterako jarduerak sustatuko dira.

Eremu horien mugaketa kartografikorako irizpideak egungo landarediaren analisisian eta Mota Agrologikoen Mapan (VICs, Vce, VICes eta VIC2 motak) du jatorria.

4. Lur gaineko urak babesteko zonak: 731 ha (%3,72)

Kategoria honek lur gaineko drainatze-sistemak eta uraren, ur-ibilguen eta ur-bazterren ingurumen-kalitatea babestea du helburu.

Eremu horietan okupazio eta ustiapeneko erabilerak mugatu egiten dira, biziberritzeko jarduerak sustatzen dira eta azpiegitura hidraulikoak hobetzeko eta instalatzeko jarduerak ahalbidetzen dira, betiere ingurumena errespetatzeko irizpideei jarraiki.

Mugaketarako irizpidea Sare hidrológicoaren maparen analisisia izan da. Bi ertzetatik 5 eta 20 m bitarteko babes-zerrenda ezarri da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planak ezarritako ibilguaren kategorian eta araubidea kontuan hartuta.

Proposamenak haltzadi kantauriarra ur-bazterreko landaredi gisa biziberritzea planteatzen du nekazaritza eta abeltzaintzako landazabaleko eta basozaintzako kategoriei dagokien unitateak zeharkatzen dituzten kategoriako tarte guztietan.

5. Baso-zonak: 7842 ha (%40,05)

Beren bokazio naturalaren ondorioz produkzio-ahalmena etengabeko baso-erabilera eta -ustiapenera mugatuta duten lurak hartzen ditu. Egungo basoekin batera, erabilera-mota hau ingurumen-baldintzak narriatu gabe har dezaketen beste lur batzuk barne hartzen dira.

Kategoria honen helburua baso-erabilera modu antolatuan eta denbora-mugarik gabe bermatzea da, arrisku naturalen prebentzioak ezartzen dituen mugak aintzat hartuta, Euskal Baserrialdeko Plangintzaren eta dagokion Nekazaritza eta Basoak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren norabideen arabera.

Kategoria hau mugatzeko irizpidea Euskal Autonomia Erkidegoko Landarediaren Maparen eta Mota Agrologikoen Maparen sintesitik ateratzen da, VI eta VII motak (baso-bokazioko lurzoru laboraezinak) abiapuntutzat hartuta.

Lurzoruaren okupazioaren desoreka zuzentzeak (konifero-sailek %15 gainditzen dute ingurunearen ahalmen potentzial teorikoa) INGURUMEN HOBEKUNTZAKO kategoriara egokitzeko aukera eskain dezake.

6. Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabaleko zonak: 4.425 ha (%22,60)

Ahalmen agrologiko handieneko lurzoruak hartzen ditu, neurri handi batean euskal baserriko polilaborantza atlantikoko landazabalaren mosaikoko paisaiekin pareka daitezkeenak.

Zona hauek nekazaritzarako lurzorurik onenak babestera zuzenduta daude, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerarik produktiboenak mantendu ahal izateko.

Kategoria hau mugatzeko irizpidea ondoko elementuen analisisian oinarritzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko Egungo Landarediaren Mapa (44 mota, 'larre eta labore atlantikoak'); Euskal Baserrialdeko Plangintzaren norabideak; berriki egindako 'Gipuzkoako nekazaritzarako lurzoruak babesteko irizpideak' lana (Gipuzkoako Foru Aldundia); eta Mota Agrologikoen Mapa (II, III, IV, V eta VI motak).

Nekazaritza eta abeltzaintzarako bokazioa bateragarria da kategorian barne hartutako lursail batzuen baso-erabilerarekin, baina betiere nekazaritza eta abeltzaintzaren lehentasuna nagusi dela.

4.1.9.2. Baldintzatzaille gainjarriak

Kategoria-multzo honetan biltzen diren gainazaletan, definitzen dituzten ezaugarrien arabera, jarduera jakin batzuk baldintzatu eta mugatu egiten dira, eragin lezaketen arriskua kontuan hartuta.

1. Akuiferoen urrakortasuna.

Bertan dauden akuiferoek poluitzeko arrisku nabaria duten eremuak biltzen dira kategoria honetan. Bi azpikategoria bereizten dira:

1.1. Lurpeko akuiferoak.

Kategoria honetan bildutako esparruak "A: 1. baldintzatzaille gainjarria. Akuiferoen urrakortasuna" planoan mugatuta daude eta Euskal Autonomia Erkidegoko mapa hidrogeologikoko interes hidrogeologikoko eta urrakortasun handiko eta ertaineko esparruak barne hartzen dira: Izarraizko mendigune karstikoa eta inguruak, Oiz-Zengotita mendiguneko hareharri-eremuak eta Deba ibaiaren ibarra.

1.2. Lur gaineko akuiferoak.

Kategoria honetan barne hartzen da Arranbide sakanaren babes-arroa, Goikola errekaaren goi-ibarrean, litologia iragazgaitzen gainean antolatua.

Ezaugarri horiek nabarmen baldintzatzuko dituzte haien hedapen-esparruetako jarduerak eta erabilerak, beren baitan hartzen duten baliabide hidrologikoaren kalitatea babestu ahal izateko.

Poluzioa eragin lezaketan jarduerak bereziki kontrolatu beharko dira: zabortegei, hondakin-biltegi, industria eta abarren kokapena; produktu kimikoen erabilera (ongarriak, zoosanitarioak, pestizidak, herbizidak); eta abeltzaintza intentsiboa eta mindak, simaurra eta abar maneiatzeko instalazioak.

Bestalde, basogintzaren kudeaketa eta lurzoruen erabilera kontrolatuko dira, urak arazten dituen eta infiltrazio naturala mantsotzen duen landaregeruzaren iraunkortasuna ziurtatzeko, eta ura iturburuak berriro kargatzen dituzten hobi naturaletara bideratzen duen drainatze-sare naturala mantentzeko eta leheneratzeko.

2. Higadura-arriskua duten eremuak.

Aldapa handiko lurzoruen (>50), lodiera urriko lurzoruen eta fazies lerrakorreko geruza litologiko ezegonkorren (flysch) presentziaren ondorioz, higadura-arriskua duten lurraldeko eremuak barne hartzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko mapa geomorfologikotik eta lurzoruen eta arrisku naturalen mapatik (1996) bi sektore handi jasotzen dira:

- 2.1. Izarraizko mendiguneko eta inguruetako sektorea.
- 2.2. Barrualdeko haranak erdialdeko tartean, Elgoibar-Ermua.

Lurzoru hauetarako, lur gaineko drainatze-sareak eta hauen azpikoak asaldatzea eta lurzorua babesten duen landare-estalkia suntsitzea saihestuko duen erabilera arduratsua proposatzen da (herri-lanetan, nekazaritza eta abeltzaintzako jardunetan eta batez ere basogintzakoetan).

Txanda luzeetako ustiapen estentsiboa/selektiboa gauzatzeko baso babesleak ezartzea gomendatzen da, bertako espezie hostozabalen okupazioari legokiokeen bezala. Irizpide horiek guztiak egitekoa den Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak Antolatze Lurraldearen Arloko Planean jaso beharko dira.

3. Urperatzeko arriskua duten eremuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren (UPPI) mapak abiapuntutzat hartuta, urperatzeko arrisku handia duten eremuak eta higadura-arriskua duten eremuak (aurreko atalean definitutakoak) definitzen dituen "B: 2. eta 3. baldintzatzaille gainjarriak. Eremu higagarriak eta eremu urperagarriak" planoak egiten da.

Orain arte analizatu ditugun hiru baldintzatzaille kontsiderazioek AZPIARRO HIDROGRAFIKOAK OSOTASUNEAN KUDEATZEKO estrategia garatzeko premia nabarmentzen dute. Horretarako honako hauek hartuko dira aintzat:

- Basogintza-ustiapen egokia, gainazal estalien eta moztutako basoen egoerak orekatuz.
- Lur gaineko drainatze-sarea babestea eta ur-bazterreko landaredia leheneratzea.

- Mendi-hegalak babesteko landare-estalkiak (baso hostozabalak) biziberritzea eta mantentzea, drainatzea eta infiltrazioa mantsotzeko eta urak arazteko ahalmena areagotuz.

4. Babes-araubideak dituzten eremuak eta elementuak.

Zentzu zabalean, baldintzatzaile honek "C: 4. baldintzatzaile gainjarria. Babestutako natura-espazioak" planoan jasotzen ditu ondare-katalogoetan barne hartuta dauden edo hiri-antolamendu eta -plangintzako prozesuetan bereizten diren interes naturalistiko eta kulturaleko eremu, espazio eta elementu guztiak. Beraz, esparru honetan erraz antzeman daiteke nahitaez kontuan hartu beharreko babes juridikoko irudiren bat.

Honako erreferentzia hauek hartu dira kontuan:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen Legea.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Interes Naturalistikoko Enklabeen Katalogoa.
3. Udaletako hiri-plangintzak.
4. Debabarreneko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatikoko Planaren Aurrerapena.
5. Euskal Kultur Ondareari buruzko Legea.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzekeko Lurraldearen Arloko Plana.

4.2. KOKAGUNEAK

4.2.1. Bizitegi-lurzorua eta hiri-egitatea

Gaur egun dagoen errealitatea

1. Egungo egoera. Gaur egun dagoen egoeraren analisiaren emaitzak Debabarreneko bizitegirako hiri-eremuetako batez besteko dentsitatea oso handia dela adierazten du ezbairik gabe.



Eibar (Ego ibaiaren harana)

2. Helburuak. Debabarreneko udalerrri dentsifikatuetoako bizitegi-dentsitatea nabarmen murriztea.

3. Irizpideak. Bizitegi-deskongestiora bideratutako eskualdeko hirigintza-politikak.

4. Proposamenak. Hiri-kongestio handiena eta lurralde-gaitasun txikiena duten udalerrietan hiri-eremuak industria-eremu zaharkituekin batera eta bat etorri birmoldatzeko eta berrurbanizatzeko lanak areagotu egingo dira, eta horien ordez dentsitate ertaineko bizitegi-eremuak antolatuko dira (60-70 etx./ha). Garapen berriak dentsitate txikikoak izango dira (10-20 etx./ha).

Soraluze-Placencia de las Armasen eta Ermuan kudeaketa-ahaleginak areagotu egingo dira birgaitze integratuko eremuak abian jartzeko.

Higiezinaren merkatua eta administrazio-mugaketak

1. Egungo egoera. Eremu funtzional bakoitzak higiezinaren merkatu eta lan-merkatu bateratua osatzen du bere baitan.

2. Helburuak. Eremu funtzionalaren buruaskitasun-egoera hori mantentzea, biztanleak beste eremu funtzionalekin lekualdatzeko faktorerik sartu gabe.

3. Irizpideak. Eremu funtzional osorako etxebizitza-eskaintza orokorra ezartzea.

4. Proposamenak. Lurraldearen gaitasun urriko erabilgarritasuna eta lurralde-ereduaren faktoreak kontuan hartuta, hazkunde berrietako lurzorua eskaintza lehentasunez lau mailatan bideratzea proposatzen da:

A maila: %30 udalerriko barne-erreformarako.

B maila: %30 udal-mailako garapen berrietarako. Eskaintza endogenoa.

C maila: %30 eskualde-mailako garapen berrietarako. Eskualdeko eskaintza.

D maila: %10 bigarren bizitegi-garapenetarako.

A eta B mailak udalerrri bakoitzean hartuko dira. Barne-erreformako eta hiri-birmoldaketako eragiketara handiak egin behar dituzten udalerrietan, hala nola Ermuan, Eibarren eta Soraluze-Placencia de las Armasen, mota honetako jardunetara zuzenduko dira batik bat.

C maila eskualde-mailan antolatuko da harrera-baldintza onenak dituzten eremuetan eta lurralde-ereduaren arabera: Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar eta Mallabia.

Birgaitze integratua

1. Egungo egoera. Biztanleria etengabe zahartzeak apartamentu txikien eskari espezifikoa sortuko du erdialdeko bizitegi-eremuetan.

2. Helburuak. Hiriguneetan eta gune historikoetan hirugarren adinekoentzako bizitegi-eskariaren zati bat xurgatzea, kolektibo horren zati handi baten bizitegi-esparru naturala da-eta.

3. Irizpideak. Aurreko helburua betetzeko beharrezkoak diren lurzoruak erabilgarri izatea, hirigune historikoetan eta dentsitate handiko hiri-hunetan dagoen bizitegi-parkea leheneratzeari loturik.

4. Proposamenak. Birgaitze integratuko programak Ermua, Eibar, Soraluze-Placencia de las Armas, Elgoibar, Deba eta Mutrikuko udalerrietan.

Etxebizitza lehen aldiz eskuratzea

1. Egungo egoera. Gizarte-aldaketen ondorioz, etxebizitza lehen aldiz eskuratzeko arazoa konpontzeko etxebizitza txikien eskari garrantzitsua izango dela aurreikusten da (ezinbestekoa, bikote gazteak eta luxurik gabe, etab.).

2. Helburuak. Mota honetako eskariaren zati bat dentsitate ertaineko jardunen bitartez xurgatzea.

3. Irizpideak. Lehentasunez Bilbao - Donostia-San Sebastian trenbide-lineatik hurbil kokatuko diren 75 etx./ha inguruko dentsitateko eremuak gauzatzea.

4. Proposamenak. Aurreko irizpideak betetzeko beharrezkoak diren lurzoruak antolatzea Deba, Mendaro eta Elgoibarko udalerrietan batik bat. Eskari hori sustapen publikoak bideratu beharko du neurri handi batean.

Ahalmen ekonomikoko sektoreak

1. Egungo egoera. Ahalmen ekonomiko ertaineko eta handiko sektoreetan areagotu egiten da dentsitate txikiko tipologiaren eskaria: lorategi-hiria, etxe elkarri atxikiak, txaletak, etab.

2. Helburuak. Tipologia desberdinetarako egokiak diren lurzoru-aukera desberdinak ezartzea, etxebizitza-merkatua arintzearen.

3. Irizpideak. Tipologia horiek lurraldeko udalerrri guztian ezarriko dira, hala gizarte-estandarrak dibertsifikatuko dira eta harreman soziologikoa sustatuko da.

4. Proposamenak. Dentsitate txikiko hiri-garapenak ezartzea mendi-hegaletako garapenetan, bizitegi-parkeetan edo lurralderako sarbide-esparruetan. Eskari hori sustapen pribatuak bideratuko du.

Dentsitate txikiko etxebizitzaren eskariaren zati handi bat lurralderako sarguneetarantz bideratzea.

Etxebizitza hutsak eta etxeguneen tipologia

1. Egungo egoera. Gaur egungo etxebizitza hutsen ratioa gehiegizkotzat jotzen da.

Etxebizitzaren analisi prospektiboak adierazten digu biztanle-kopuruak bere horretan jarraituta ere etxebizitzaren eskariak gora egiten jarraituko duela.

Etxeguneen tipologia aldatu egingo dela dirudi: tipologia berriak sortuko dira eta horietakoren baten premia areagotu egingo da.

2. Helburuak. Etxebizitza hutsen aurreikuspenen %10 inguruko murriztapena balioestea.

Kopuruari dagokionez lurzoru-eskaintza emankorra eta etxebizitzako azalera-estandarrei dagokienez malgua lortzea.

3. Irizpidea. Lurralde-ereduaren aldaketa egitea.

4. Proposamenak. Lurzoru-eskaintza emankorra eta malgua eta tipologia askotakoa ezartzea.

4.2.2. Bizitegi-lurzoruaren eskaintzaren kuantifikazioa

4.2.2.1. Irizpide orokorrak

Bizitegi-kuantifikazioa kalkulatzeko prozesuak honako oinarritzko irizpide hauek hartzen ditu abiapuntutzat:

- Kalkulatzerakoan malgutasunez jokatu beharra, espazio geografiko baten lurralde-errealitate eta errealitate demografiko, ekonomiko eta hiritar aldakorrari erantzun ahal izateko.
- Udalerrri bakoitzerako etxebizitza-kopurua gehieneko muga dela aintzat hartzea, egungo lurralde-ereduan gaunditze/aldatzeko/hobetzeko modukotzat jotzen diren alderdi guztietan eragiteko ikuspegiarekin.
- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen zehaztapenen ondorio den bizitegi-kuantifikazioa lurraldearen arrazoizko harrera-ahalmenera eta udalerrriaren hiri-egituraren inplikazioetara egokitzea.

Hala, plangintza orokorrak definitu beharreko etxebizitzaren kopuruaren udalerrrien araberrako kuantifikazioa balio-aukera bati egokituko zaio:

- Plangintzako bizitegi-ahalmenerako gehienezko balioa: Lurzoruaren gainkalifikazioaren ondorioz antolatu gabeko hiri-garapenak ez sortzeko udal-plangintzari ematen zaion balioa.
- Plangintzako bizitegi-ahalmenerako gutxieneko balioa: Kalifikatutako lurzoru gutxiegi egotea saihesteko plangintzari ematen zaion balioa.

Lurraldearen Zatik Planaren indarraldia luzea denez gero, gehienezko eta gutxieneko balioen artean zabaltzen den tartea edo aukera udalerrri bakoitzeko datu estatistikoaren arabera aplikatuko da, plangintza berraztertzeko dokumentua idazten den unean.

Proposatutako lurralde-ereduaren inplikazioek honako funtsezko kontzeptu hauek dituzte oinarri:

a.- Helburu demografikoak, eremu funtzionala 80ko hamarkadaz geroztik jasaten ari den etengabeko biztanle-galerako joera geldiaraztea eta pixkanaka berreskuratzeko bideari ekitea ardatz dutenak, itsasertzaren bizitegi-erakarpenean eta ekonomiaren eta enpleguaren susperraldian oinarrituta.

b.- Barne-erreforma, hazkundeko eta/edo garapeneko eskaintza potentzialaren %30 lehendik dauden hiriguneen eta industria- eta bizitegi-kokaguneen erreforma, birmoldaketa eta/edo berrurbanizazioa sustatzera zuzentzea ardatz duena. Horien artean nabarmentzekoak dira hirigune historikoak. Eskaintza hori udalerrri bakoitzaren proportzioaren arabera antolatzen da.

c.- Udal-garapen berriak, hiriko bizitegi-bilbearen hazkundeko eta/edo garapeneko eskaintza potentzialaren beste %30 kokagune berriak sustatzera zuzentzea ardatz duena, hiriaren periferia hobetzen lagunduko duten edo lehendik daudenekin elkarrekiko mendekotasuna izango duten garapen berriak sortuko dituzten lurzoru urbanizagarrien bitartez, ekipamenduak eta zerbitzuak oparotasunez antolatuz. Eskaintza hori udalerrri bakoitzaren proportzioaren arabera antolatzen da.

d.- Eskualde-garapen berriak, hazkundeko eta/edo garapeneko eskaintza potentzialaren beste %30 antolatzea helburu dutenak, lurraldearen berrorke-premien arabera. Eskaintzaren zati honetan administrazio publikoek eta kapital publikoko eta pribatuko sozietateek epe ertainera eta luzera jardun beharko lukete, joerak eta desorekak erabakitasunez zuzentzen saiatze aldera, proposatutako lurralde-ereduaren arabera.

e.- Bigarren bizitegiko garapen berriak, hazkundeko eta/edo garapeneko eskaintza potentzialaren gainerako %10a antolatzea helburu dutenak, bigarren bizitegien eta aukerako habitaten premien arabera.

f.- Lurralde-ereduaren zuzenketa: hazkunderen joera berregokitzea proposatzen du, eskualde-hazkunde berrien eta bigarren bizitegiaren kontzeptua erabiliz batik bat.

4.2.2.2. Udaletako bizitegi-kuantifikaziorako irizpideak.

Udalerrri bakoitzean bizitegi-lurzoruaren azalera errazago kalkulatzearren planteatutako etxebizitza-premien kuantifikazioa bost faktore edo osagaien analisisian oinarritzen da:

- C.1 osagaia (lurralde-ereduaren inplikazioak). Lurraldearen Zatiko Planak definitzen ditu ereduaren arabera. Lurralde-ereduak etxebizitza-parkearen hazkunderan dituen inplikazioak konfiguratzeko dituzten funtsezko hiru elementu edo faktore ezar daitezke. Honako hauek dira:

- C.1.1. Hazkunde selektiboa: Barrualdeko udalerriak kostaldekoen aldean arindu edo deskongestionatzera bideratutako lurraldea berrorekatzeko estrategietan oinarritzen da.

Ezarritako irizpidearen arabera, udalerrri bakoitzean osagai honen ondoriozko gehikuntza/murrizketa ez da gainerako osagaien baturaren %20 baino handiagoa izango.

- C.1.2. Aukerako habitatak: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek ez dute aukerako habitatik proposatzen Debabarreneko eremu funtzionalean.



Akey baserria (Elgoibar)

- C.1.3. Bigarren bizitegia: kostaldeko Deba eta Mutriku udalerrietan bultzatu beharreko fenomeno, udalerrriok duten potentzialtasunean oinarrituta. Hona hemen osagai honen tamaina:

Deba: 100 etx.

Mutriku: 50 etx.

- C.2 osagaia (hazkunde demografikoa): Bilakaera demografikoa kontuan hartuta aurreikusi beharreko bizitegi-ahalmena jasotzen du.
- C.3 osagaia (familia-egituraren aldakuntza): Eremu funtzionaleko errealtate sozioekonomikoa oinarri hartuta, batez besteko familia-tamainaren aldakuntzari buruzko hipotesi hau ezar dezakegu: okupatutako etxebizitzako 2,8 biztanleko tasa Lurraldearen Zatiko Planaren horizontetako, hots, 2020. urterako. Horrek 3.068 etxebizitzako eskaria dakar kontzeptu honetan.
- C.4 osagaia (eskaintzaren zurruntasunaren zuzenketa). C4 balioa Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen 1.5. eranskinetik jasotzen da: 0,35 Mendaro eta Mallabiko udalerrietarako; 0,25 Deba, Mutriku, Elgoibar eta Soralue-Placencia de las Armasko udalerrietarako; 0,15 Eibar eta Ermuko udalerrietarako. Hala, eremu funtzional osorako 5.005

etxebizitzako malgutasun-esparrua ematen du Lurraldearen Zatik Planaren horizonterako.

Gutxieneko etxebizitza-premiak zurruntasun-koefizientearen balioa erdira murriztuz kalkulatzen dira.

- C.5 osagaia (bigarren bizitegia). Hasiera batean, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek proposatutako koefizienteak (2,2 Debarako eta 1,8 Mutrikurako) aplikatuz –zuzenketa-koefizienteak aplikatuz haztatuak–.

Gaur egungo estatistika-egoerarekin, Lurraldearen Zatik Planak eremu funtzionalerako proposatutako bizitegi-ahalmena 8.519 etxebizitzako gehienezko balioaren eta 5.190 etxebizitzako gutxieneko balioaren arteko tartean kokatzen da 16 urtetarako, udalerrien arabera honela banatuta:

UDALERRIA	C.1.1 osagaia	C.1.2 osagaia	C.1.3 osagaia	C.1 osagaia	C.2 osagaia	C.3 osagaia	C.4 osagaia		C.5 osagaia	Guztira	8 urte			16 urte	
	Hazkunde selektiboa	Aukerako habitatak	Bigarren bizitegia	LURRALDE EREDUA	HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA	FAMILIA EGTURAREN ALDAKUNTZA	ZURRUNTASUN KOEFIZIENTEA		2. BIZITEGIA		2+3+4+5 osagaiak	GUTXIENKO ETXEBIZITZA KOPURUA	GEHIENEZKO ETXEBIZITZA KOPURUA	GUTXIENKO ETXEBIZITZA KOPURUA	GEHIENEZKO ETXEBIZITZA KOPURUA
							CR	C.4 osagaia							
DEBA	75	0	100	175	63	198	0,25	498	114	873	755	1.004	1.004	1.336	
MUTRIKU	103	0	50	153	62	153	0,25	421	127	763	667	878	887	1.167	
DEBA-MUTRIKU LURRALDE ESPARRUA	178	0	150	328	125	351		919	241	1636	1.423	1.882	1.892	2.503	
ELGOIBAR	224	0	0	224	-340	483	0,25	976	0	1119	799	1.287	1.063	1.712	
MENDARO	56	0	0	56	-3	71	0,35	213	0	281	217	323	288	430	
ELGOIBARKO LURRALDE ESPARRUA	280	0	0	280	-343	554		1189	0	1400	1.016	1.610	1.351	2.141	
EIBAR	-343	0	0	-343	-1161	1341	0,15	1565	0	1745	705	1.488	938	1.979	
ERMUA	-220	0	0	-220	-341	606	0,15	848	0	1113	524	948	697	1.261	
MALLABIA	28	0	0	28	-6	30	0,35	117	0	141	104	162	138	215	
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	-73	0	0	-73	-183	186	0,25	367	0	370	132	315	175	419	
EIBARKO LURRALDE ESPARRUA	-608	0	0	-608	-1691	2163		2897	0	3369	1.465	2.913	1.948	3.874	
EREMU FUNTZIONALA GUZTIRA	-150	0	150	0	-1909	3068	2	5005	241	6405	3.903	6.405	5.190	8.519	

Emaitzazko bizitegi-ahalmena hiri-lurzoruan eta/edo lurzoru urbanizagarri programatuan edo sektorizatuan kokatuko da. Gehienezko balioaren gainera, bizitegi-ahalmen gehigarria lurzoru urbanizagarri programatu edo sektorizatu gabe kokatuko da.

4.2.2.3. Bizitegi-kokaguneak lekutzeko irizpideak.

Bizitegi-garapen berriak kokatzeko proposatutako eremuak gaitasunik handiena duten eremuak dira; gaitasun hori ingurune fisikoaren arazoiek eta egungo hiriguneekiko hurbiltasunak zehazten dute batik bat, lurzoru ondasun urria denez gero, behar bezala administratzeko helburua lortu nahi baita.

Horretarako, bizitegi-garapen berriak kokatzen diren eremuak zehazteko eginkizunean dentsitate-kontzeptu berria sartzen da, gaur egungo udal-plangintzetan erabili ohi denaren desberdina, tokiko sistemak zein sistema

orokorrak sartzen baititu kalifikatutako jardun berrietan. Horrenbestez, bizitegi-garapenetarako mugaketaren barruan bideak, ekipamenduak, hirigintza-garapenetatik babestutako eremuak eta abar sartzen dira, eta esparru osorako batez bestekoa ezartzen da dentsitate gisa.

Horiek horrela, kontzeptu tradizionalaren bitartez erabiltzen zen lurzorua bikoitza baino gehiago sailkatzen da seguruenik, baina lurraldea ez suntsitzeko aukera ematen du; aitzitik, horretarako egokia eta beharrezkoa den lurzoria erabil daiteke eta gainerakoa zaindu (babes-eremuak), baina batez besteko aprobetxamenduaren partaide eginez.

Horrela balio paisajistikoa, kulturala edo naturalistikoa duten elementuak, ibai-ibilguak, balio estrategiko handiko nekazaritza-lurzoria eta abar eraginkortasunez babestea lortu ahal izango da.

Bestalde, esparru osorako dentsitate jakin bat ezartzeak ez du esan nahi dentsitate horrek homogeneoa izan behar duenik. Izan ere, udalerrriak zehaztuko ditu, hiri-plangintzaren bitartez, bere premiak eta hazkunde-eskariak asetzeko egokitzat jotzen dituen lurzori-esparruetako bakoitzerako eraikuntza-dentsitate eta -tipologia egokiak.

Proposatutako esparruak, kokaguneen sistemako 3.1., 3.2. eta 3.3. planoetan modu orientagarrian grafiatzen direnak, honako hauek dira:

a. Mutriku-Deba itsasertzeko esparrua. Guztira 221 ha inguruko lurzoria proposatzen da. Eremu bakoitzean programatzen den intentsitatearen arabera 2.163 eta 4.325 etxebizitza bitarte hartzeko ahalmena izango luke, eta gehienez onartzen den kopurua 2.503 etxebizitzakoa da. Etxebizitza horien %47 Mutriku egongo lirarteke eta %53 Deban.

	EREMUAREN IZENA	AZALERA (ha)	DENTSITATEA (etx/ha)	LURRALDE AHALMENA		GEHIENEZKO ETXEBIZITZA KOPURUA	KOKAPENA
MUTRIKU	R.0	8,20	5/10	41	82		Saturran
	R.1	27,45	10/20	274	548		San Nikolas
	R.2	23,45	10/20	235	469		Toxu
	R.3	52,72	10/20	527	1.054		Arritzeta
	GUZTIRA	111,82		1.077	2.153	1.167	
DEBA	R.4	21,60	10/20	216	432		Itxas-begi
	R.5	29,90	10/20	299	598		Artzabal
	R.6	37,40	10/20	374	748		Istina
	R.7	20,17	10/20	197	394		Itziar
	GUZTIRA	109,07		1.086	2.172	1.336	
GUZTIRA		220,89		2.163	4.325	2.503	

b. Erdialdeko eremua (Elgoibar-Mendaro). Guztira 110 ha inguruko lurzoria proposatzen da. Eremu bakoitzean programatzen den intentsitatearen arabera 1.119 eta 2.171 etxebizitza bitarte hartzeko ahalmena izango luke, eta gehienez onartzen den kopurua 2.141 etxebizitzakoa da. Etxebizitza horien %80 Elgoibarren egongo lirarteke eta %20 Mendaron.

	EREMUAREN IZENA	AZALERA (ha)	DENTSITATEA (etx/ha)	LURRALDE AHALMENA		GEHIENEZKO ETXEBIZITZA KOPURUA	KOKAPENA
MENDARO	R.8	1,20	20/40	24	48		Azpilgoeta
	R.9	8,30	20/40	166	332		Ospitalea
	R.10	0,90	20/40	18	36		Hirigunea
	R.V.1	0,70	40/60	28	42		J.M. Linazasoro
	GUZTIRA	11,10		236	458	430	
ELGOIBAR	R.11	24,15	10/20	242	483		Aizkorri
	R.12	30,00	10/20	300	600		San Roke
	R.13	13,30	10/20	133	266		San Lorentzo

	R.14	2,96	20/40	59	118		Urruzuno
	R.15	1,14	20/40	23	46		Ubitarte-Gain
	R.16	1,10	20/40	22	44		Altzila
	R.V.3	2,60	40/60	104	156		Urasandi
	GUZTIRA	98,45		883	1.713	1.712	
GUZTIRA		109,55		1.119	2.171	2.141	

- c. Eibar - Soraluze-Placencia de las Armas barrualdeko esparrua. Guztira 73 ha inguruko lurzorua proposatzen da. Ereku bakoitzean programatzen den intentsitatearen arabera 2.055 eta 4.096 etxebizitza bitarte hartzeko ahalmena izango luke, eta gehienez onartzen den kopurua 3.874 etxebizitzakoa da. Etxebizitza horien %11 Soraluze-Placencia de las Armasen egongo lirarteke, %50 Eibarren, %33 Ermuan eta %6 Mallabian.

	EREMUAREN IZENA	AZALERA (ha)	DENTSITATEA (etx/ha)	LURRALDE AHALMENA	GEHIENEZKO ETXEBIZITZA KOPURUA	KOKAPENA
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	R.17	4,80	20/40	96	192	Olea
	R.V.6	3,50	40/60	140	210	Loralde-Ezozia-Gabolatz-Arraikua
	R.V.7	1,60	40/60	64	96	Santa Ana
	GUZTIRA	9,90		300	498	419
EIBAR	R.18	6,20	40/75	248	465	Txarakua
	R.19	1,00	40/75	40	75	Ardantza
	R.V.10	9,00	40/75	360	675	Asua Erreka
	R.V.11	2,00	40/75	80	150	Murrategi
	R.V.12	6,00	40/75	240	450	Txonta
	R.V.13	1,40	40/75	56	105	Arane
	R.V.14	1,60	40/85	64	136	Alfa
GUZTIRA	27,20		1.088	2.056	1.979	
ERMUA	R.20	14,38	20/50	288	719	Betiondo
	R.21	7,91	20/50	158	396	Abeletxe
	R.22	0,80	20/50	16	40	San Pelaio
	R.23	0,70	20/50	14	35	TVA
	R.V.19	0,70	40/60	28	42	Gipuzkoa hirib.
	R.V.20	0,80	40/60	32	48	San Lorentzo
GUZTIRA	25,29		536	1.280	1.261	
MALLABIA	R.24	6,70	10/20	67	134	Hirigunearen ingurua 1
	R.25	6,40	10/20	64	128	Hirigunearen ingurua 2
	GUZTIRA	13,10		131	262	215
GUZTIRA		72,88		2.055	4.096	3.874

4.2.3. Jarduera ekonomikoetarako lurzorua eta hiri-egitatea

Lurralde-antolamenduaren ikuspegitik, jarduera ekonomikoari dagokienez, helburu orokorra lehenik ekimen publiko eta pribatuetatik garatuko diren arlo honetako ekimenak hartzeko behar hainbat lurzoru eskaintzea da, eta bigarrenik, lehentasunez okupatzeko eremuak edo esparruak eta urbanizazio-prozesuetatik kanpo utzi behar direnak zehaztea.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-premiak zuzenean uztartu behar dira proposatutako lurralde-eredutik defendatzen diren helburu sozioekonomikoekin. Helburu sozioekonomiko horiek ondokoetan laburbiltzen dira eskematikoki:

- Ereku funtzionaleko enpresa-ehuna dibertsifikatzeko premia, gaur egun gehiegizko espezializazioa baitago metalezko transformatuen eta doikuntza-mekanikaren jarduera arloan (eremu funtzionaleko enplegu osoaren %45).

- Eremu funtzionaleko egitura ekonomikoa hirugarren sektoreratzeko premia, batez ere enpresentzako zerbitzuei, zuzkidura publikoei eta merkataritza-zuzkidurei dagozkien arloak.
- Biztanleria langabearen tasa erdira murrizteko premia; 3.500 lanpostu berri behar direla esan nahi du horrek.

Helburu hauek planteaturik, behar-beharrezkoa da jarduera ekonomiko horiek hartzeko ahalmenari dagokionez (lurzoru prestatua) eremu funtzionaleko egoera zein den jakitea.

Gaur egun dagoen industria-ehuna

1. Egungo egoera. Hiriko industria-egitura gehiena zaharkituta dago: instalazio zaharrak hiriguneetan ezarrita daude.

2. Helburuak. Hiri-ehun modernoa eta ez hain dentsifikatua lortzea.

3. Irizpideak. Lehentasun handiagoa ematen zaio zaharkituta dauden lurzoruak berrerabili eta biziberritzeari eta gaur egun dauden industria-poligonoak betetzeari, lurraldean ezarpen berriak biltzeari baino.

4. Proposamenak. Ermua, Eibar, Mendaro, Soraluze-Placencia de las Armas eta Mutrikuko udalerriek gaur egungo industria-poligonoak betetzera, berrurbanizatzen eta hobetzera mugatuko dituzte jardunak.

Udalerriei gomendatzea honako eremu hauek birmoldatzen eta berrurbanizatzen has daitezten:

EIBAR: ASUA ERREKA, TXONTA, ARENE, MATSARIA, IBARGAIN eta BARRENENGUA

ERMUA: ENGRANAJES URETA, IRU eta IDESA, FUNDICIONES GOROSPE, TROQUEMETAL, ARIN eta ARDATZ.

ELGOIBAR: OLASAPE eta OLASOATE, URSANDI

ZALDIBAR-EIBAR: IBURERREKA

Lekualdatzeen ondorioz hutsik geratzen diren lurzoruak hiri-bilbean integratuko dira eta espazio libreen, ekipamenduen eta zerbitzuen premiak betetzeko erabiliko dira lehentasunez.

Industria-garapen berriak

1. Egungo egoera. Hiriguneetan kokatuta dauden jarduera batzuk ez dira hiri-bizitzarekin bateragarriak.

2. Helburuak. Hiri-bizitzarekin bateraezinak diren jarduerak kokapen egokiagoetara eramatea.

3. Irizpideak. Tamaina ertaineko (10-20 ha inguru) poligono sortu berriak erabilgarri izatea, gaizki kokatutako enpresak bertara eramanez ahal izateko eta hirigintzako birmoldaketa- eta berregituraketa-prozesuak desblokeatu ahal izateko.

4. Proposamenak.

- Eibar-Ermua esparrurako Goitondo poligonoaren inguruetan, Areition eta Urtian, Mallabiko udalerrian.
- Elgoibarko esparrurako Albitzuri inguruan.
- Deba-Mutriku esparrurako Itziar poligonoan.

Prozesu hauetan administrazio publikoaren parte-hartzea zentratzea.



Itziar industria-poligonoa (Deba)

Zerbitzu-sektorea

1. Egungo egoera. Zerbitzu-sektoreak bertako biztanleen hirugarren sektoreko premiak asetzeko duen ahulezia bera da eremu funtzionalean dauden gune arras pilatuen leheneratze soziala eta hiritarra hasteko oztupo nagusietako bat.

2. Helburuak. Eskualdeko ekonomia hirugarren sektoreratzea eskualde barruko premia eta eskariei erantzuteko.

3. Irizpideak. Hirugarren sektoreratzeke prozesuak industria-sektorean hartu behar du sostengu, enpresentzako zerbitzuak areagotuz.

4. Proposamenak. "Enpresentzako zerbitzuen" hirugarren sektoreko arlo horri kokapen estrategikoak eskaini behar zaizkio, lehendik dauden industria-kokaguneetatik hurbil, irisgarritasun onarekin eta bere hiri-ingurunearen gainean eragiteko eta erakartzeko ahalmenarekin. Jardun horien tamainak ez du oso handia izan behar.

Merkataritza eta hiri-dinamizazioa

1. Egungo egoera. Benetan adierazgarria da Eibarko eta Elgoibarko esparruetan dagoen txikizkako saltokien kopuru txikia. Zuzkidura-mota honetako defizita nabarmena da.

2. Helburuak. Hiriguneetan saltoki txikiak berreskuratzea eta, ondorioz, hiri-ehunak biziberritzea.

3. Irizpideak. Merkataritzako jardunak ia hiriguneetara soilik zuzendu behar dira, horien jarduera sozial eta hiritarra suspertzeko oinarria dira-eta.

4. Proposamenak. Eibar, Soraluze-Placencia de las Armas eta Ermuko udalerriek ahalegin berezia egin behar dute merkataritza suspertzeko.

Merkataritzako jardun horien lagungarri gisa, hiri-inguruneak hobetzera zuzendutako zuzkidura arloko esku-hartzeak (espazio libreak, aparkalekuak, oinezkoen eremuak, etab.) gauzatu beharko dira.

Jarduera ekonomiko berria

1. Egungo egoera. Ekonomiaren munduan, oro har, jarduera ekonomiko berri bat dute hizpide: zerbitzuetan inbrikatutako industria berria.

2. Helburuak. Jarduera berri hau ezartzeko ingurune egokia sortzea, gaur egungoaz bestelakoa.

3. Irizpideak. Jarduera ekonomiko berria hartzeko gai diren lurzorua sustatzea: industria edo zerbitzuak benetako harmonian, bizitegi-erabilerekin, ekipamenduekin eta abar erlazionatuta.

Ezarpen-eskaintza dibertsifikatzea: enpresa-parkeak, berrikuntzako enpresa-zentroak, etab.

4. Proposamenak. Itziar poligonoa, Goitondo poligonoaren handiagotzea eta Albitzuri poligonoa interes publiko eta sozialeko lehentasunezko jarduntzat jotzea, ezarpen ekonomiko berriak hartzeko prestatutako lurzoru-ondarea sortzeko politikan benetako konpromisoa hartu izana berresteko, hala lortuko baita lurzoru urbanizatuaren eskaintza dibertsifikatzea: industrialdeak eta garraio, biltegiatze eta banaketako jarduerak hartzeko eremuak.

Jarduera ekonomiko sortu berrietarako lurzorua

1. Egungo egoera. Begi-bistakoa da industria-instalazioak haranen oheen gainean kokatuta daudela, hots, segur aski lurraldeko lurzoru sentikorrenen gainean, eta horrek arazo larriak sortzen dizkie bai kokaguneei bai lurraldeari.

2. Helburuak. Industria-garapen berriak ezartzerakoan ingurune fisikoarekiko kezka handiagoa izatea.

3. Irizpideak. Kokagune berriak ingurune fisikoaren eta lurraldearen ikuspegitik eragin txikienak sortzen dituzten lurzoru-eremuetan ezartzea. Bestela esanda, harrera-ahalmen handiena duten lurzoru-eremuetan kokatzea.

4. Proposamenak. Lehentasunez mendi-hegalak kokagune-eremu gisa (lursail garbia) eta ibaien eta erreken ibilguak babes-eremu, espazio libre eta abar gisa erabiliko dituzten lurzorua antolatzea.

Lursail gordina lursail garbiarekin eta lurzoru urbanizagarrietako kokagune sortu berriaren tipologiarekin erlazionatuko duten adierazleak ezartzea; honako hauek izango dira:

- 0,45-0,35 industria-poligonoetarako.

- 0,35-0,25 enpresa, merkataritza eta zerbitzuetako parkeetarako.
- 0,25-0,20 berrikuntza parkeetarako eta teknologikoetarako.

Aldaketa-irudiari erantzungo dioten goi-mailako urbanizazioaren eta eraikin-tipologia berrien alde egitea.

Halaber, kalitate baxua duten berriki ezarritako poligonoen ingurumen arloa eta urbanizazioa berriz diseina dadin proposatzea.

Enpresa-mundua eta ikastetxeak

1. Egungo egoera. Ez dago erlazio nabarmenik gaur egun dauden lan-premien eta ikastetxeetan ematen den prestakuntzaren artean.

2. Helburuak. Hezkuntza-munduaren eta lanbide-munduaren artean lotura handiagoa ezartzea.

3. Irizpidea. Elgoibar eta Eibarko enpresa-munduari eta ikastetxe eta unibertsitateei lotutako bi Enpresa eta Berrikuntza Zentro (EBZ) txiki ezartzea.

4. Proposamenak. Enpresa eta Berrikuntza Zentro horiek Matsaria poligonoan, Eibarren, eta Sigma esparruan, Elgoibarren, kokatzea.

4.2.4. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintzaren kuantifikazioa

4.2.4.1. Irizpide orokorrak

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritako sailkapenari jarraiki, jasaten duten industria-garapenaren intentsitatearen eta lurralde-ereduak aurreikusitako garapen-esparruei esleitzen dien ahalmenaren arabera kategorizatzen dira eremu funtzionaleko udalerriak, honako kategoria hauetan sartuz:

a. Lehentasunezko interesa duten udalerriak: komunikazio-korridore nagusietan kokatutakoak dira, industria-ezarpenen kopururik handiena jasaten dutenak eta/edo garapen-ahalmen aipagarriak dituztenak. Udalerri hauetarako esku-hartzeek honako irizpide hauek beteko dituzte:

- Finkatutako lurzoruak hobetzeko oinarritzko politika.
- Industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko eta berregituratzeko politika berezia.
- Industria-kalifikazioa duten okupatu gabeko lurzoruak garatzeko politika berezia.
- Interes estrategiko orokorrekotzat jotzen diren gunetan jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzeko politika berezia.

Kategoria honetan Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia eta Mendaroko udalerriak sartzen dira.

b. Hazkunde handi samarreko udalerriak: tamaina ertaineko udalerriak dira eta beren hiriguneek ez dituzte garapen-aukera garbiak edo landa-

esparruetan daude. Udalerri hauetarako esku-hartzeek honako irizpide hauek beteko dituzte:

- Lehendik dauden eremuak eta ezarpenak finkatzeko politika, gaur egungo urbanizazioak hobetzeko eta akabera egokia emateko lehentasunezko ekintzen bitartez.
- Hazkundera gaur egun kalifikatuta dauden lurzoruetara mugatzea.

Kategoria honetan Mutriku eta Soraluze-Placencia de las Armasko udalerriak sartzen dira.

4.2.4.2. Eskaintza kuantifikatzeko irizpideak

Espazio-urritasun ikaragarria kontuan hartuta, honako hauek proposatu eta definitzen dira:

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru gehienek kalifikazioa mantentzea eta zaharkituta dauden eremuak urbanizatzea: Aizkorri, Olaspe eta Arriaga Elgoibarren, Kanoi-fabrika Soraluze-Placencia de las Armasen, Iburerreka eta Matsaria Eibarren, Urtia Ermuan, etab.
- Lurralde-esparru bakoitzean behar diren lurzoruak eskualde-garapen gisa prestatzea: Itziar eta Mijoa (Mutriku-Deba esparrua), Albitzuri (Elgoibarko esparrua) eta Goitondo (Eibarko esparrua).
- Lurraldearen Zatiko Plan honek, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planak bezalaxe, beharrezkotzat jotzen du aurreko eskualde-poligono bakoitzean lurzoru publikoa sortzeko eragiketarako kalifikazio berriak ezartzea:
 - Albitzuriko (Elgoibar) eskualde-eskalako poligono berria.
 - Mijoko (Mutriku) eskualdeko industrialdea handiagotzea.
 - Eskualdeko industrialde berria Itziarren (Deba).
 - Eskualde-eskalako poligono berria Mallabian (Goitondo handiagotzea).
- Albitzuri eta Goitondoko eskualde-poligonoetan 10 ha inguruko beste industrialde batzuk prestatuko dira, ezarpen ekonomiko berriak hartzeko eta Industrialdeak programaren barruan kokaguneak sortzeko.
- Elgoibar eta Eibarko enpresa-munduari eta ikastetxe eta unibertsitateei lotutako bi Enpresa eta Berrikuntza Zentro (EBZ) ezartzea. Matsarian eta Sigman koka daitezke eta bakoitzak 10.000 m²-ko azalera eraikia izango luke gutxi gorabehera.
- Merkataritza-ekipamendu handiei dagokienez, Lurraldearen Zatiko Plan honen iritziz, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planaren ildotik, mota horretako ekipamenduek distortsionatu egiten dute eta eragin negatiboa dute gure herri eta hirien egitura funtzionalean, hirugarren sektoreko ekipamenduko eremuak hirigune bakoitzaren barruan orekaz banatuta izan ohi dituzte-eta. Horrenbestez, Lurraldearen Zatiko Planak bere egiten du Lurraldearen Arloko Plan horretan ezarritako kategorizazioa eta lehentasuna ematen dio gune historikoak eta hiriguneak merkataritza-ekipamenduak sortzeko aukera gisa biziberritzeari, Eibarko hirigunea eskualdeko merkataritza-

equipamenduetarako lehentasunezko kokapen estrategikotzat hartuz eta Elgoibarko hirigunea eta, neurri txikiagoan Debakoa, gainerako lurralde-esparruetarako azpigunetzat.

UDALERRIA	2003-12AN HUTSIK DAGOEN AZALERA	LURRALDEAREN ZATIKO PLANEKO AZALERA	PROPOSATUTAKO AZALERA GUZTIRA	2003-12AN OKUPATUTA DAGOEN AZALERA	LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN ESPARRUKO AZALERA GUZTIRA
DEBA	29,30	0,00	29,30	42,26	71,56
MUTRIKU	1,20	5,10	6,30	9,00	15,30
MUTRIKUKO LURRALDE ESPARRUA	30,50	5,10	35,60	51,26	86,86
ELGOIBAR	40,18	9,20	49,38	69,71	119,09
MENDARO	3,90	13,50	17,40	13,34	30,74
ELGOIBARKO LURRALDE ESPARRUA	44,08	22,70	66,78	83,05	149,83
EIBAR	7,82	14,75	22,57	54,36	76,93
ERMUA	0,00	4,20	4,20	39,28	43,48
MALLABI	19,76	50,74	70,50	37,50	108,00
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	0,00	3,30	3,30	16,27	19,57
EIBARKO LURRALDE ESPARRUA	27,08	72,99	100,07	145,91	245,98
GUZTIRA	102,16	100,79	202,45	281,72	484,17

4.2.4.3. Kokapen-irizpideak

Kokaguneen sistemako 3.1., 3.2. eta 3.3. planoek modu orientagarrian grafiatzen dituzte gaitasunik handiena duten eremuak; gaitasun hori ingurumen arloko arrazoiek eta egungo jarduera ekonomikoen kokaguneekiko hurbiltasunak zehazten dute batik bat.

- Lurzoru sortu berriak prestatzea harrera-ahalmen handiena duten edo natura-ingurunearen asaldura adierazgarriak dituzten eremuetan; esate baterako zabortegietan, harrobi zaharretan, etab.
- Mendi-hegaletan kokaguneen eremu gisako lurzoruak prestatzea eta ibaiak eta errekek babes-eremu gisa ezartzea.

Dentsitateari dagokionez, 5.2.2.3. puntuan bizitegi-kokaguneetarako azaldutako kontzeptu bera aplikatzen da.

Proposatutako esparruak, kokaguneen sistemako 3.1., 3.2. eta 3.3. planoetan modu orientagarrian grafiatzen direnak, honako hauek dira:

- a. Mutriku-Deba itsasertzeko esparruan guztira 34,24 ha-ko lurzorua proposatzen da, eraikuntzak okupatutako 8,56 ha hartzeko ahalmenarekin. Lurzoru horren %82 Debako udalerritari dagokio eta %18 Mutrikuko udalerritari.

	EREMUA	Ha	m ² /m ²	OKUPAZIOA	KOKAPENA
MUTRIKU	AE.1	6,34	0,25	1,585	Mijoa
DEBA	AE-2	27,90	0,25	6,975	Itziar
GUZTIRA		34,24		8,560	

- b. Erdialdeko esparruan (Elgoibar-Mendaro) guztira 66,78 ha-ko lurzorua proposatzen da, eraikuntzak okupatutako 22,057 ha hartzeko ahalmenarekin. Lurzoru horren %74 Elgoibarko udalerritari dagokio eta %26 Mendaroko udalerritari.

	EREMUA	Ha	m ² /m ²	OKUPAZIOA	KOKAPENA
MENDARO	AE.3	7,00	0,30	2,100	Igartualdea
	RV 2	10,40	0,40	4,160	Aizkoltzo Muina
	GUZTIRA	17,40		6,260	
ELGOIBAR	AE.4	4,40	0,30	1,320	Karkizao-Oleta
	AE.5	9,48	0,30	2,844	Lerun

	AE.6	4,00	0,30	1,200	Arriaga
	AE.7	14,45	0,25	3,613	Albitzuri
	RV.4	1,85	0,40	0,740	Aizkorri
	RV.5	15,20	0,40	6,080	Olasope
	GUZTIRA	49,38		15,797	
GUZTIRA		66,78		22,057	

- c. Barrualdeko esparruan (Soraluze-Placencia de las Armas, Eibar, Ermua, Mallabia) guztira 100,10 ha-ko lurzorua proposatzen da, eraikuntzak okupatutako 29,50 ha hartzeko ahalmenarekin. Lurzoru horren %70 Mallabiko udalerriari dagokio, %23 Eibarko udalerriari, %3 Soraluze-Placencia de las Armasko udalerriari eta %4 Ermuko udalerriari.

	EREMUA	Ha	m ² /m ²	OKUPAZIOA	KOKAPENA
SORALUZE- PLACENCIA DE LAS ARMAS	RV.8	2,00	0,40	0,800	Kanoi-fabrika
	RV.9	1,30	0,40	0,520	Traontxi
	GUZTIRA	6,40		1,320	
EIBAR	AE.8	1,87	0,30	0,561	Murrategi
	AE.9	3,25	0,30	0,975	Erisondo
	RV.15	5,00	0,40	2,000	Matsaria
	RV.16	1,00	0,40	0,400	Alfa
	RV.17*	9,60	0,40	3,840	Iburerreka
	RV.18	1,85	0,40	0,740	Txonta
	GUZTIRA	22,57		8,520	
ERMUA	AE.10	4,20	0,30	1,260	Urtia 1
MALLABIA	AE.11	6,30	0,30	1,890	Urtia 2
	AE.12	38,60	0,25	9,650	Goitondo
	AE.13	16,50	0,25	4,125	Goitondo Beheko-Lau
	AE.14	6,00	0,30	1.800	Areitio
	RV.19	1,50	0,40	0,600	Goitondo
	GUZTIRA	70,03		18,400	
GUZTIRA		100,10		29,500	

* Eremu honen zati bat Zaldibarko udalerrian dago.

4.2.5. Poluitutako lurzorua

1. Egungo egoera. Proposatutako esku-hartzeetako asko garai batean produktu toxikoak sortzen zituzten enpresek okupatuta egotearen ondorioz poluituta egon daitezkeen lurzoruetan gauzatzekoak dira.

2. Helburuak. Industria-jarduerak poluitutako lurzoru guztiak biziberritzea eta garbitzea.

3. Irizpideak. Planaren edo udal-plangintzaren zehaztapenak garatzeko aurrera eramaten diren jardun zehatzetan eta, bereziki, "Euskal Autonomia Erkidegoko Poluitzaileak izan daitezkeen Jarduerak dituzten Kokaguneen Inbentarioan" sartuta dauden lurzoruen gaineko hiri-transformazioko esku-hartzeetan, beharrezkotzat jotzen da kokagune horiek ikertzea eta saneatzea eta osoan biziberritzeko ahaleginak egitea.

4. Proposamenak. Udal-plangintzak arazo hori aztertzeraz zuzendutako berariazko atala eduki beharko du, eta bertan adieraziko du biziberritzeko edo berriztatzekeko estrategiak definitzerakoan poluitutako lurzoruen problematikari nola egingo dion aurre.

4.2.6. Bigarren bizitegia eta turismo-baliabideak

Paisaiaren eta landa-esparruen erakargarritasun handia.

1. Egungo egoera. Eskualde honetan landa-esparruek lurralde osoari aniztasuna, aberastasuna eta erakargarritasuna ematen dion aktibo garrantzitsua osatzen dute.

2. Helburuak. Gaur egun dauden landa-esparruak herrigunean garatzen diren jardueren arabera sustatzea.

3. Irizpideak. Ezarpen berriak hala ingurune fisikoa nola hiri- eta landa-kokaguneak errespetatuko dituzten irizpideei jarraiki kokatu eta antolatuko dira.

4. Proposamenak. Jarduera nekazaritza eta abeltzaintzakoa bada, ez da inolaz ere egun daudenak baino eraikuntza eta/edo etxebizitza gehiago egingo.

Jarduera nagusia bizitegia bada, lurraldearen harrera-ahalmenaren, herrigunearen eta ekipamenduen arabera antolamenduak eta hazkundeak antolatuko dira.

Turismo-jarduera motak.

1. Egungo egoera. Eremu funtzionalean bigarren bizitegiaren fenomeno eta turismo-jarduera bi eskaintza-motatan bereiz daitezke:

Batetik, uda-sasoiko turismoa eta bigarren bizitegia, eremu funtzional barruko eta kanpoko eskaria duena, Deba-Mutrikuri lotzen zaion maila adierazgarriarekin.

Bestalde, landa-eremuetako bigarren bizitegia, eremu funtzionalean jaio baina hainbat arrazoirengatik kanpoan bizi diren eta aldian-aldian itzultzen diren herritarrei lotzen zaiena.

2. Helburuak. Antzemandako turismo-motak erakartzeko eta garatzeko aukera emango duen askotariko eskaintza lortzea.

3. Irizpideak. Eskariekin bat datozen aisialdirako ekipamenduak eta azpiegiturak antolatzea.

4. Proposamenak. Lurraldearen Zatiko Planak ikusmolde integral eta sinergikoarekin jorratzen du turismoaren gaia, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspegitik begiratuta. Horretarako, honako hau ezartzen du:



Zabale dorrea (Elgoibar)

1. Askotariko eskaintza ezartzea, ekipamenduak eta azpiegiturak eskariaren arabera antolatuz:

- Kirol-portuak: Mutriku.
- Eskualdeko eremuak eta natura-parkeak.
- Pilotaleku komertzialak: Astelena en Eibar.
- Parke tematikoak: uraren zikloari eta sistema karstikoari buruzkoak edo desagertzeko arriskuan dauden etxe-arrazei eta bertako nekazaritza-barietateei buruzkoak.
- Natura interpretatzeko zentroak.
- Mendi-ibiliak, abenturazkoak eta lasaiak.

2. Itsasertzeko turismo-eskaintza (uda-sasoikoa) barrualdeko turismo eskaintzarekin (astekoa) bat egitea, eskaintza orokor erakargarriagoa eta osatuagoa bateratzeko asmoz.

Turismoaren eta bigarren bizitegiaren izaera estrukturala.

1. Egungo egoera. Bigarren bizitegiaren fenomenoaren turismo-garapenaren eta hiri-hazkundearen aldeko aurreko urrats gisa agertzen da.

2. Helburuak. Kostaldeko esparruan biztanle-masa kritikoa bultzatzea, kalitateko turismoak eskatzen dituen ekipamendu eta zerbitzu egokiak antolatu ahal izateko.

3. Irizpideak. Turismo-garapeneko eta bigarren bizitegiko estrategia gisa bion bateragarritasuna eta koordinazioa ezartzea, bai espazioan bai denboran, ikusmolde malgu eta ebolutibotik baloratzeko moduan.

4. Proposamenak. Deba-Mutrikuko sasoiko etxebizitzak iraunkor bihurtzeko daitezen sustatzea eta bigarren bizitegiko kokagune berriak hiri-garapen bihurtzeko aurreikuspenarekin edo hiri-garapen berriekin bateragarri egiteko asmoz planteatzea, Eibar-Elgoibar esparrua lasaitze edo deskongestionatze aldera.

Bigarren bizitegiaren antolamendua.

1. Egungo egoera. Zuzeneko erlazioa ezartzen da bigarren bizitegiaren eta hiri-hazkundearen eta turismo-garapenaren artean.

2. Helburuak. Gaur egun dauden hiriguneetan bigarren bizitegia sustatzea.

3. Irizpideak. Hirigune historikoak birgaitzeko estrategiak dituzten udalerrietan, estrategia horiek bigarren bizitegikoekin eta baliabide historikoenekin uztartuko dira eta turismo-erabilerari eta, bereziki, hotel, aisia eta astialdiko jarduerari lotutako ekipamenduak egitea ahalbidetu eta sustatuko da.

4. Proposamenak. Gaur egun dauden hiriguneei edo horiekin korrespondentzia estrukturalen gara daitezkeen antolamendu berriei lotutako bigarren bizitegia sustatzea. Ereku funtzionalean ekintza honen estrategiak Deba, Mutriku, Itziar, Mendaro eta Mallabiko hiriguneak hartuko ditu ardatz.

4.2.7. Lurralderako sarbide-esparruak

Lurraldearen iragazkortasuna.

1. Egungo egoera. Eremu funtzionalean dauden landa-esparruak espazio publiko baten inguruan (baseliza, plaza, etab.) edo sarritan aldapa handia duten mendi-hegaletan biltzen diren baserri-multzoak dira. Horrek bide-sistema komun batean edo bide publiko batean esekitako eraikuntzak dituzten kokagune sakabanatuak eragin ditu.

Forma eta egiturari dagokionez, bi kokagune-mota daude: batzuk kontzentratuagoak dira eta bigarren bizitegiari dagozkion jarduerak hartzen dituzten esparru "trinkoagoak" formalizatzeko politikak aplika dakizkieke; besteak sakabanatuagoak eta linealagoak dira, lurralde sentikorrangoetan kokatuta daude eta natura-ingurunearekin oreka bikaina osatzen dute. Azken hauetan funtzioak babestu eta mantentzeko politikak eta lurraldea kontrolatu eta mantentzeko jarduerak aplikatu behar dira.

Biztanle asko dituen lurralde txikia denez gero, behar-beharrezkoa izango da neurriak hartzea, lurraldea kontrolatzen eta gobernatzen duten landa-esparruek halakotzat jarraitu ahal izan dezaten. Gainera, sustatu egin beharko da herritarrek landa-inguruneaz gozatu ahal izatea, lehen bizitegian zein bigarren bizitegian. Nolanahi ere, kokaguneen eta natura-ingurunearen ingurumen-balioak eta balio paisajistikoak eta tipologikoak mantenduz egin beharko da hori guztia.

2. Helburuak. Lurraldearen iragazkortasunik handiena lortzea.

3. Irizpideak. Gaur egun dauden nortasun handieneko esparruak edo erakargarrienak lurralderako irisgarritasunik handiena ahalbidetuko duen sare baten barruan sartzea, jarduera nagusiaren eta lurraldeko kokapenaren arabera sailkatuz, lurralderako sarbide-esparruen egituraren eginkizun desberdinak esleitze aldera.

4. Proposamenak. Lurralderako sarbide-esparruak bi tipologiatan sailkatzea:

- BIZITEGI NEKAZARITZAKOAK
- BABES NEKAZARITZAKOAK

Funtsezko hobekuntza ezartzea esparruen sare nagusirako sarbideen eta zerbitzuen oinarritzko azpiegituran, eskualdeko eta/edo tokiko errepideen sarearen bitartez.

Antzinako auzobideak edo bidezidorrak berreskuratzea, esparruen arteko ibilbideen sare nagusia ezarri, aldi berean aisialdirako eremuekin konektatuko dena.

Bizitegi-eraikuntza berriak egiteko aukera ematea.

1. Egungo egoera. Landa-inguruetakoa biztanle-esparruetan duten arazo nagusienetakoa bertako biztanle iraunkorren zahartzea da, bertan ia ez baita bikote gazterik geratzen.

2. Helburuak. Esparru horietan biztanle-talde gazteenak iraunarazteari lehentasuna ematea.

3. Irizpideak. Etxebizitzak Lurraren araubide eta hiri antolaketaren arloko presako neurriak zehazteari buruzko martxoaren 6ko 5/1998 Legean landaguneetarako ezarritako baldintzetan egiteko aukera ematea.

4. Propuestas. Bizitegi-eskaintza publikoa ezartzea, beharrezkoak diren gutxieneko ekipamendu eta zerbitzuekin osatua.

4.3. ESKUALDEKO EKIPAMENDUAK

1. Egungo egoera. Eremu funtzionalean dauden eskualde-mailako era guztietako ekipamenduak aztertu ondoren, orokorrean zuzkidura-maila ona dagoela esan daiteke. Hala eta guztiz ere, aurreikuspenen arabera osasun-zerbitzuen eskariak gora egingo du Mutriku-Deba esparruan eta laguntza-zerbitzuenak eskualde osoan.

2. Helburuak. Zerbitzuen kalitatea eta hedadura hobetzea eta biztanleria oro har zerbitzuetara hurbiltzea.

3. Irizpideak. Gaur egun dauden zuzkiduren tamaina handitzea eta eskariak gora egingo duelako defizita izango dela aurreikusten den zerbitzuetan zuzkidura berriak sortzea. Eskualdea zentro bana izango duten hiru esparrutan zatitzea, zuzkidura-premia gehienetan joan-etorrien distantziak murriztu ahal izan daitezen.

4. Proposamenak. Orokorrean, honako hau proposatzen da eremu funtzionaleko ekipamendu guztietarako:

- Eskualde osorako buru bat eta Deba-Mutriku eta Elgoibarko esparruetarako bi azpiburu ezartzea.
- Garraio publikoa sustatzea herritarrak zerbitzu-zuzkiduretar hurbiltzeko.
- Irakaskuntza-ekipamenduko jarduera berriak gaur egun dauden tokiko esparruko kirol-zuzkiduren eta eskola-ekipamenduan sostengatzen direnen tamaina handitzean oinarrituko dira; horretarako, gegun dauden zuzkiduren aldamenean lurra erreserbatuko dira, etorkizunean handiagotu ahal izateko.
- Osasun-zuzkidurei dagozkien jardunak instalazioak eta eraginpeko zerbitzuen kalitatea hobetzera eta lurraldeko kokagune guztietatik Mendaroko eskualdeko ospitalerako irisgarritasuna erraztera bideratuko dira.
- Kostaldeko esparruan anbulatorio bat sortzea.
- Udalerri bakoitzaren berezko ahalmenari lotutako kultur jardunak sortzea.
- Laguntza-ekipamenduko plaza berriak sortzea.
- Turismo-erabilerei lotutako ekipamenduak gauzatzea kostaldeko esparruan zein barrualdean.

4.4. ESKUALDEKO AISIALDIRAKO EREMUAK

1. Egungo egoera. Herritarrak naturara iristeko baldintzak oso gutxitan aintzat hartzen dira adierazle kultural edo sozioekonomikoen artean.

Alabaina, erdiets ditzakegun bizi-kalitatearen indize zehatzagoek pertsona bakoitzari erabilera publikoko zenbat m² natura-eremu dagozkion ere zenbatzen dute.

Debabarreneko eremu funtzionalean premia hori indartzen duten hainbat faktore daude: hiri- eta industria-populaketaren dentsitate handia, hiriguneetako ingurumen-kalitate baxua, orografia malkartsua, landa-lurzorua zati handi bat jabetza partikularrekoa izatea, etab.

2. Helburuak. Naturarekin harremanetan jartzeko erraztasunak ematea, landa-ingurunearen inbasio neurrigabea eta sarrera itotzaile eta masiboak saihestuz, eta herritarrei hautatzeko aukerak eskainiz.

3. Irizpideak. Eskualdeko astialdirako natura-eremuek lehentasunezko ekipamendua izan behar dute; lurralde osoaren gainean artikulatuko dira, sare batean banatuta, eta helburu eta funtzio koordinatuak izango dituzte. Etapa-planaren, lehentasunen eta baliabide-erabilgarritasunaren arabera programatu eta garatu behar dira eta, ahal izanez gero, erkidetuta kudeatu beharko liriateke.

4. Proposamenak.

Honako tipologia hauek ezartzea:

HIRI INGURUKO EREMUAK.

ESKUALDEKO EREMUAK.

NATURA PARKEAK.

BIDEZIDORREN SAREA.

Oinarri komun bat izan beharko lukete, esate baterako kudeatzeko eta mantentzeko erakunde bat, baita lurraldeko eduki naturalistikoak, kulturalak eta historikoak baloratuko lituzkeen ingurumen arloko interpretazio- eta hezkuntza-sistema espezifiko bat eduki ere.

4.5. AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK

4.5.1. Errepideak

Eskualde arteko konexioa


1. Egungo egoera. Eskualdea Bizkaia eta Gipuzkoarekin lotzen duen A-8 autobideak gauzatzen du beste eskualdeekiko konexioa gaur egun. Alabaina, Debagoienarekiko eta Araba Erdialdearekiko konexioa GI-627 eskualde-errepidearen eta Vitoria-Gasteizerako autobidearen lehen tartearen bitartez egiten da.

2. Helburuak. Eskualde mugakideekiko komunikazioa oro har hobetzea.

3. Irizpideak. Trafiko-eskaria xurgatuko duen bide-trazadura berria egitea.

4. Proposamenak. Vitoria-Gasteiz eta Eibar bitarteko autobidea osatzea. Bestalde, A-8 autobidean bidesari bigunagoa ezartzea iradokitzen da.

Gaur egungo A-8 autobiderako Eibar-Mendebaldeko eta Elgoibarko sarbideak bide-ardatz berriaren konexio-elementu estrategiko gisa kokatuko dira.



Istiñako biaduktua

Eskualdeko errepide-sarea

1. Egungo egoera. Eskualde-mailako errepide-sarean sortzen diren arazo handienak N-634 errepideak herrigune nagusiak zeharkatzen dituen tartetean kokatzen dira. Gainera, horietako askoren trazadura kalitate urrikoa da.

2. Helburuak. Eskualdeko errepide-sare osoko galtzadaren baldintzak hobetzea, bai trazadurari bai bidezoruaren kalitateari dagokionez.

3. Irizpideak. Beharrezkoak diren obrak egitea.

4. Proposamenak. Errepideei dagozkien proposamen estrategiko nagusiak honako hauek dira:

a. Arloko plangintzetan jasotako proposamenak

a.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra:

- Eibarko saihesbidea amaitzea, 3. fasea eginez.
- GI-638 eta N-634 errepideen arteko lotune berria eta Deba ibaiaren gaineko zubi berria egitea.

a.2 Gipuzkoako Errepideen Plana:

- MUTRIKUKO saihesbidea (GI-638) egitea, ibilbideak Saturraran eta Ondarroarantz jarrai dezan, eta Mutriku-Deba tartea egokitzea.
- Eibar-Markina eta Sasiola-Mutriku errepideak zabaltzea eta hobetzea.

Matsariako tunelean zeharreko Eibar-Markina bide-konexioa ez dago Lurraldearen Zatik Planaren helburuekin kontraesanean, nahiz eta ez den espresuki jasotzen, ez baita bere denbora-horizontean gauzatzea aurreikusten, eta hori Bizkaiko eta Gipuzkoako Errepideen Planen esparruan egitea proposatzearen kaltetan izan gabe.

Hainbat baldintzatzaille ezarriko dira Mutriku - Sasiola errepidearen trazadura berria egiteko. Baldintzatzaille horiek proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketan jaso beharko dira, errepidea garatzen den ingurunea zaintzeko.

- N-634 errepidearen Eibarko saihesbidearen luzapena.

a.3 Bizkaiko Errepideen Plana:

- N-634 errepidearen Gipuzkoa-Ermua herri-saihesbidea.
- BI-2301 Ermua-Zuberri errepidearen trazadura zuzentzea.
- BI-2636 errepidearen (Etxebarria-San Migel gaina) trazadura zuzentzea, GI-2636 errepidearen (Elgoibar-Markina ardatza) luzapen gisa.
- Trafiko motelerako erreia N-634 errepidean (Ermua-Areitio).

b. Bestelakoak

- N-634 errepidearen Elgoibarko saihesbidea.
- A-8 autobidearekiko lotune berria Arriola-Arzabalen.
- Deba ibaiko zubitik Mutrikurako sarbide berria Olabarrietan eta Larangan barrena.
- Elgoibar-Markina GI-2636 errepidearen trazadura berria.

4.5.2. Trenbidea

1. Egungo egoera. Gaur egun dagoen trenbide-linea garraio eraginkorra da eskualde-mailan Ermua eta Eibar bitartean.

2. Helburuak. Maiztasun-sistema lehiakorra lortzea.

3. Irizpideak. Ermua eta Eibar bitarteko egungo aldiriko zerbitzuak areagotzea.

4. Proposamena. Egungo trazadura berritu egin beharko da, baita azpiegiturak eta superegiturak ere.

ERMUA-EIBAR-ELGOIBAR-DEBA aldiriko sistema berria sortzea.

Horrez gain, geraleku berriak ezartzea proposatzen da: AZITAIN Eibarren eta MALTZAGA eta LERUN-ARRIAGA Elgoibarren.

4.5.3. Portuak

1. Egungo egoera. Mutriku portuko erabilera nagusia arrantza-jardueraren ondoriozkoa da, baina ur-kiroletako erabilera txiki arautugabe batzuk ere garatzen dira bertan.

2. Helburuak. Gaur egungo erabilera aldatzea eta kirol eta arrantzako erabilera mistoa ezartzea, Mutriku eta Deba arteko eremuan bizitegi-erabileretarako lurzorua erabilera hazteko helburuekin bat dator-eta.

3. Irizpideak. Mutrikuko egungo portua modernizatzearen eta transformatzearen alde egitea.

4. Proposamenak. Mutrikuko Portua Bideratzeko Planean proposatutako jardunak garatzea.

4.5.4. Obra hidraulikoak

Ibilguen babesa eta uholdeak

1. Egungo egoera. Urperagarritasun-arrazo larriak daude eskualdeko ia udalerri guztietan.

2. Helburuak. Udalerri hauek jasan ohi dituzten aldizkako uholdeak saihestea.

3. Irizpideak. Ibai eta erreken hurbileko garapen berriei zuzendutako araudi zorrotza ezartzea.



Kilimon errekaaren kanalizazioa (Mendaro)

4. Proposamenak. Ermua, Eibar eta Soraluze-Placencia de las Armasko hirigintza-hazkundera mugatzea, urbanizazio berriak okupazio txikiko irizpideekin eginez: zolatutako azalera gutxi eta berdeguneen proportzio handiagoa.

1 km²-tik gorako ekarpen-arroa duten ibaiak eta errekek ez estaltzea, oso kasu berezi eta puntualetan izan ezik.

Urbanizatu beharreko eremu berrietan, uholdeetatik babestuko duten aldi berean ibaiaren bizitza ekologikoa ziurtatuko duten kanalizazioak egitea.

Estaldurak ahal den guztietan irekitzea.

Ur-hornidura

1. Egungo egoera. Aixola urtegiak eta Kilimon putzuek eta iturbegiak hornitzen dute urez eskualdea.

2. Helburuak. Gaur egungo eta aurreikusitako aprobetxamenduetako eremu drainatzaileak babestea.

3. Irizpideak. Edozein motatako erauzketa-jarduerak, zabortegiak, bizitegi-erabilerak, industria-jarduerak, abeltzaintza eta nekazaritza intentsibokoak erabat bazter utziko dituzten babes bereziko zonak ezartzea; baso-ustiapena kontrolpean eduki beharko da.

4. Proposamenak. Honako babes bereziko zona hauek proposatzen dira:

- Aixola urtegiaren eta Ibur errekaaren arroa, erabateko babes-zona gisa.



Aixola urtegia

- Kilimon iturburuaren arroaren babes-zona.
- Arranbide errekaaren erreserba-zona, ezker aldean kokatua Mendaroko gunetik ibaian gora, etorkizuneko aprobetxamenduak egiteko erreserba gisa.

Ura banatzeko sareak

1. Egungo egoera. Udalerrietako ura banatzeko sareek ez dute batera jarduteko ahalmenik, sarritan elkarren ondoko udalerrietako sareak ez baitaude elkarrekin konektatuta eta beren diametroak minimoak baitira.

2. Helburuak. Ur-hornidurako sarea orokorrean hobetzea.

3. Irizpideak. Udal-mugak ezabatuko dituzten esparru komunak osatzea lehendik dauden instalazioen aprobetxamendu hobea lortzeko.

4. Proposamenak. Mallabia, Ermua eta Eibarrek eta Debabarreneko arroan dauden Zaldibarko auzoak osatutako esparrua ezartzea, AIXOLA urtegiak eta IBURKO ponpaketak hornituko luketena.

Behar diren azpiegituren artean, ERMUKO edateko uren araztegia eraiki beharko litzateke AIXOLATIK datozen urak tratatzeko.

Saneamendu-sarea

1. Egungo egoera. Saneamendu-sareak azpiegitura-defizit handiak ditu gaur egun.

2. Helburuak. Eskualdeko arazketa- eta saneamendu-sistema nabarmen hobetzea.

3. Irizpideak. Hainbat esparrutan banatutako sistema bat sortzea, bakoitza dagokion ur zikinen araztegiarekin.

4. Proposamenak. Gipuzkoako Hornidura eta Saneamendu Plan Integralean adierazitakoaren arabera, honako esparru hauek proposatzen dira:

1. Elgoibarko araztegia: Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze-Placencia de las Armas eta Elgoibarko saneamendu-kolektoreak biltzen ditu.
2. Mendaroko araztegia: udalerrri horretako hirigunearen esparruko urak biltzen ditu.
3. Debako araztegia: eraikitzen ari dira. Debako hiriguneko eta Itziarko guneko eta industria-poligonoko urak biltzen ditu.
4. Mutrikuko araztegia: hiriguneko urak biltzen ditu.

SATURRARANGO errekan kokatutako kokaguneetako isurketak Ondarroakoekin zein Mutrikukoekin batera araztuko dira, dagokion udalerrriaren sarearekin konektatuta.

Arro osoa zeharkatuko duen hodi biltzailea edo kolektore nagusia egiteari lehentasuna ematea.

4.5.5. Hondakin solidoak

1. Egungo egoera. Eskualdeko biztanleriaren bilakaera ia egonkorra dela eta gaikako bilketa pixkanaka areagotzen ari dela kontuan hartuta, gaur egungo soluzioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak Hondakin Solidoen Planean hautatu duena, baliozkotzat jotzen da: birziklatzea, gaikako biletaren bitartez, eta birziklatu gabeko hondakinak biltzeko zabortegi kontrolatuak erabiltzea.

2. Helburuak. Paper, beira eta plastikozko hondakin guztiak birziklatzen diren egoera idealera iristea.

3. Irizpideak. Birziklatzearen alde egitea.

4. Proposamenak. Gaikako zabor-bilketa egitea eta birziklatu gabeko hondakinak biltzeko zabortegi kontrolatuak erabiltzea.

4.5.6. Telekomunikazio-azpiegiturak

1. Egungo egoera. Telekomunikazio-azpiegituren sistema fisikoa garatzea oinarri-oinarritzko elementua da enpresen lehiakortasunerako.

2. Helburuak. Eskualdeko pertsona, enpresa eta erakunde guztiei komunikazio- eta informazio-sistema berrietarako sarbidea erraztea.

3. Irizpideak. Eskualdeko errealitatearekin bat datorren telekomunikazio-sarea ezartzea.

4. Proposamenak. Ildo horretan, honako jardun nagusi hauek proposatzen dira:

- Eremu funtzionaleko buruan hiriarteko zentral automatiko bat ezartzea.
- Arloko edo hiriko zentral bat ezartzea 10.000 biztanleko.
- Eskualde osoan telekomunikazio-sarea ezartzea, gune nagusiei eta jarduera ekonomikoetarako poligonoei lehentasuna emanez.

4.5.7. Energia-azpiegiturak

1. Egungo egoera. Energia elektrikoaren kontsumoa gero eta handiagoa da eskualdean, baita Euskal Autonomia Erkidego osoan ere.

2. Helburuak. Energiaren arrazoizko erabilera lortzea eta eskualdearen autohornikuntzarantz eboluzionatzea.

3. Irizpideak. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan zein 3E-2005 Euskadiko Energia Estrategia planean ezarritako zehaztapenak bete beharko dira, honako ildo honetan:

- Energia-aurrezte ahalik eta gehien sustatzea.
- Energia-eraginkortasuneko jardunak sektore guztietan areagotzea, kontsumoa energia-intentsitateari dagokionez murriztera zuzenduta.
- Energia-autohornikuntzaren bidean aurrera egitea, baliabide berriztagarri autoktonoak neurri handiagoan eta hobeto aprobetxatzera zuzendutako ahaleginak areagotuz.
- Energia-iturriak dibertsifikatzea eta gas naturala eta ordezeko energiak sustatzea.

4. Proposamenak.

- Mutriku-Deba esparruan elektrizitate-hornidurako linea indartzea hornidura-bermea areagotzeko, etorkizunean izango duen bizitegi-garapena kontuan hartuta.
- Eskualdearen hegoaldean gasa hirietan banatzeko instalazioak egin ondoren, erdialdeko eta iparraldeko gunetako obrei ekingo zaie.
- Parke eoliko bat ezartzea, dagokion Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenei jarraiki.
- Uharkak oro har babestu egingo dira, izan lezaketen aprobetxamendu elektrikoaren aukerari begira.

4.5.8. Oinezkoen eta bizikleten komunikabideak

1. Egungo egoera. Gaur egun, landa-esparru batzuek duten bide-sarea ibilaldiak egiteko eta aisialdirako erabiltzen dute oinezkoek.

Bizikleten bideei dagokienez, ez dago bakar bat ere.

2. Helburuak. Eskualde osoan zehar ibiltzea ibilgailurik erabili behar izan gabe.

3. Irizpideak. Eskualde-mailako garraio motorizatu gabearen eta oinezkoen ordezkoko sarea sortzea.

4. Proposamenak. Hasiera batean bederen, lurraldea egituratzen duten toki-bideen eta eskualde-errepideen sarea erabiliko da. Horretarako, gutxienez hainbat zirkuitu ezarri beharko lirateke eta egun jakin batzuetan bizikletei lehentasuna eman gainerako ibilgailuen gainean.

Proposamen berri gisa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Planean ezarritako trazadurak jasotzen dira batik bat:

- Areitio-Ermua-Eibar-Elgoibar-Mendaro-Sasiola, eskualde barruko konexio-ardatz nagusia.
- Saturraran-Mutriku-Deba-Itziar-Elorriaga, itsasertzeko esparrua lotzen duen zeharkako ardatza; bere luzapena eremu funtzional mugakideekin konektatzen da: Urola-Kostakoarekin Zumaian barrena eta Busturialdea-Artibaikoarekin Ondarroan barrena.
- Sasiola-Mutriku, bi ardatz nagusi horiek elkarrekin konektatzen dituen.
- Maltzaga-Soraluze-Placencia de las Armas-Osintxu trenbide zaharraren trazaduraren gaineko bidegorria, Debagoieneko eremu funtzionalarekin konektatzen dena.

Epe laburrean, Maltzaga eta Soraluze-Placencia de las Armas artean bakarrik egin litezke bizikletentzako eskualde-mailako bide espezifikoak, trenbidearen antzinako trazadura euskarri hartzen duen Debagoieneko eskualdean aurreikusitakoaren jarraipen gisa.

5. KAPITULUA. DOKUMENTUA LURRALDEAREN ARLOKO PLANEN ALDEAN

Izapide-fase desberdinetan Debabarreneko lurraldeari buruzko informazio osagarria eman dezaketen Lurraldearen Arloko Planak aintzat hartuko dira, hala nola:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde kantauriarra).
- Bizkaiko Errepideen Arloko Plana.
- Gipuzkoako Errepideen Arloko Plana.
- Haize-energia Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Etxebizitzan Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Kultura-ondarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

Adierazitako Lurraldearen Arloko Plan bakoitzari dagozkion iruzkinak:

5.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (ISURIALDE KANTAUARIARRA)

Lurraldearen Arloko Plan honen zehaztapenek Debabarreneko lurraldean duten irismena egiaztatzeko, Lurraldearen Arloko Planaren emaitzazko kartografia (osagai hidraulikoa eta ingurumen-osagaia) eta Lurraldearen Zatiko Planak proposatutako ingurune fisikorako lurralde-ereduaren mapa alderatu dira. Honako hau izan da emaitza:

- Oro har ez dago kontraesan adierazgarririk.
- Lurraldearen Zatiko Planaren baldintzatzaille gainjarrien mapak Lurraldearen Arloko Planaren uholde-arriskuei buruzko zehaztapenak jasotzen ditu.

- Lurraldearen Zatik Planak lurraldeko lur gaineko drainatze-sare osoa (ibai-ibilguak) sartzen du kontserbazio-kategoriaren batean (Lur gaineko uren babesa, Ingurumen-hobekuntza).
- Lurraldearen Arloko Planak ere kategorizatu egiten ditu ibilguak, igarotzen direneko eremuen edo beren ertzen egoeraren arabera, eta terminologia homologatu egin daiteke.
- Kategoria bakoitzeko zehaztapen espezifikoak, distantziak eta babes-zerrendak, xehetasun handiagoko eskala batean homologatu beharko dira.

5.2. BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO ERREPIDEEN ARLOKO PLANAK

Irizpide orokor gisa, dokumentu horietan jasotako proposamen guztiak jasoko dira, bai trazadura berriei bai gaur egun dauden trazadurak zuzentzeari dagozkienak.

5.3. HAIZE ENERGIA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

Lurraldearen Arloko Planaren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean parke eolikoak ezartzeko kokalekurik egokienak hautatzea da.

Euskal Autonomia Erkidegoak parke eolikoak ezartzeko duen potentzialtasunaren azterketa xehatua egiten du, hainbat faktore analizatuz, eta ingurumen-faktorea da pisu handienetakoa duena. Izan ere, parke eoliko bakoitzari ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura aplikatu behar zaiola ezartzen du.

Behin betiko 11 kokaleku proposatzen dira, lehentasunezko kokalekuen eta bigarren mailako artean banatuta.

Debabarreneko eremu funtzionalari dagokionez, Oizko parke eolikoaren (Durangaldeko, Debabarreneko eta Busturialdea-Artibaiko eremu funtzionaletan kokatua) zati baten kokalekua proposatzen da, lehentasunezko kokalekuei dagokien I. taldekoa, eta dokumentu honetan jasoko da.

5.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRENBIDEEN AZPIEGITURA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

Lurraldearen Zatiko Planean trenbideko garraioari buruz egindako planteamendua, eremu hau mugakidearekin (Debagoiena) konektatuko duen tranbiaren trazadura sartzean osatuko dena, guztiz bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarekin. Izan ere, honako hau planteatzen du Debako korridorarako (Debabarreneko eta Debagoieneko eremu funtzionalak):

- Iparralde-hegoalde komunikazio-ardatza ezartzea bi eremuen artean, Donostia-San Sebastian eta Bilboranzko aldiriko luzetarako ardatzaren aukerak eta ahalmenak osatu eta indartuko dituenak.
- Adierazitako eskualdeak eta bertako udalerriak elkarrekin konektatuko dituen metro arineko korridore berria. Eskari potentzialaren eta inguruko hirigintza-konfigurazio eta konfigurazio orografikoaren arteko optimizazioaren oinarritzko irizpideari jarraitu beharko dio.

5.5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ITSASERTZA ANTOLATU ETA BABESTEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

Hasierako onarpen-fasean dago gau egun. Lurraldearen Arloko Planak eskainitako antolamendu-kartografia (4. orria) Lurraldearen Zatiko Planaren Aurrerapenekoarekin alderatuta, bi dokumentuen artean adostasun-maila handia dagoela ikus daiteke:

- Itsasertzeko labarrak babes berezi zorrotzeko zonatzat jotzea bat dator Lurraldearen Zatiko Planean proposatutako mugaketarekin, itsasertzeko labarren eremu osoa babes berezikotzat mugatzen baita, eta zuzenean jasotzen da.
- Era berean, zuzenean jaso beharko dira kategoriaren berariazko araudian adierazitako zehaztapenak.
- Lurraldearen Arloko Planak erabiltzen dituen gainerako antolamendu-kategorietan ere neurri handian datoz bat, nahiz eta lursail jakin batzuen zehaztapenean diferentzia batzuk identifikatzen diren, eta gainera, ez dute terminologia bera erabiltzen.
- Lurraldearen Arloko Planak erabilitako irizpide orokorra guztiz bat dator Lurraldearen Zatiko Planak erabilitakoarekin, baina unitate batzuk bereziki egokitu beharko dira.
- Era berean, oso positiboa da Lurraldearen Arloko Planak Ingurumen-hobekuntzako kategoria bi azpikategoriatan bereiztea: Ingurumen-hobekuntza eta Leheneratu beharreko eremu degradatuak.

Aitzitik, hona hemen arreta berezia eman behar litzaiekeen desadostasunak:

- Lurraldearen Arloko Planak babes-maila txikia ematen die interes naturalistikoko bi espaziori: Arranomendi sakanari eta Aitzuri lurmuturraren hurbileko eremuei. Lurraldearen Zatiko Planean, ordea, ingurumen-hobekuntzako zona zabalak osatzen dituzte.
- Lurraldearen Arloko Planean leheneratu beharreko eremu degradatutzat jotzen ditu Elorritxoko larreetako isurialdeak (Sakonetatik hurbil). Lurraldearen Zatiko Planean, berriz, kostaldeko larre naturalen espazio gisa (mendi-larreak) zehazten dira, abeltzaintza tradizional estentsiboaren hartzaileak (artalde negutarrak) eta, horrenbestez, intereseko espazioak dira. Alderdi hau egiaztatu egin beharko da.
- Lurraldearen Arloko Planak informazio osagarri interesgarria eskaintzen du eta, batez ere, kostaldeko tarte horretako balio naturalistiko handieneko eremuak definitu eta kalifikatzen ditu; beraz, zuzenean gehitu beharko zaio Lurraldearen Zatiko Planari.

Debabarreneko Eremu Funtzionalko Lurraldearen Zatiko Planaren itsasertzeko esparruan ondokoak dira babes bereziko eremuak:

Mutriku-Saturraran itsaslabarra.

Aitzuri lurmuturretik (Mendata) Zumaiarainoko itsas zerrenda.

Arno-Olatz kostaldeko mendigunea.

Debako udalerriko hondartza naturalak: Elorritxo, Sakoneta, Mendata, Aitzuri, Itxaspe, Montare; Mutrikuko udalerrian Zazpi hondartza dago.

5.6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURU HEZEAK BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zen Lurraldearen Arloko Plan honek informazio aberatsa ematen du Deba ibaiaren bokalean definitutako 'Itsasadar' erako hezegunea karakterizatzeke.



Deba ibaiaren bokalea

Lurraldearen Arloko Planak eskainitako antolamendu-kartografia osorik eta zuzenean jasota dago, eskala-xehetasunean eta helburu-irismenean hobetzen baitu Lurraldearen Zatiko Planaren proposamena. Zehaztasun handiagoko eskala grafikoa erabili beharko da. Halaber, toponimia-erreferentziadun antolamendu-azpikategoriak erabiltzen dira.

5.7. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA ETA BASOAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenak eta Lurraldearen Zatiko Planarenak alderatuta, hainbat kontraesan antzematen dira Lurraldearen Zatiko Planak iradokizun moduan ematen duen kategorizazioarekin:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planak ez du Babes bereziko kategoria erabiltzen eta ez du uste bere helburua denik kategoria hori proposatzea, Lurraldearen Zatiko Planei baitagokie funtzio hori.
- Lurraldearen Arloko Planaren eta Lurraldearen Zatiko Planaren antolamendu-kartografiak alderatzeak hainbat diferentzia planteatzen ditu:
 - Lurraldearen Zatiko Planak balio naturalistiko eta ekologikoen ondoriozko babes bereziko zonak proposatzen ditu.

- Lurrealdearen Arloko Planak bi azpikategoria bereizten ditu Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabaleko kategoriaren barruan: *Balio estrategiko handia*, nekazaritzarako lurzoru onenatarako eta *Trantsizioko landa-paisaia*, landazabaleko gainerako zonatarako.

Lursailen marrazketa oso zorrotza da Lurrealdearen Arloko Planean, lurzoru urbanizagarriaren galera eragozteko asmoz. Lurrealdearen Zatiko Planak, berriz, landazabaleko unitate bakarria definitzen du, ahalmen oneneko zonetan zabaltasunez marrazten dena. Proposatzen den soluzioa Lurrealdearen Zatiko Planean Balio estrategiko handiko eremu guztiak sartzea da.

- Lurrealdearen Arloko Planak Mendi bakan izeneko kategoria bat erabiltzen du, behar adinako funtsik ez duena, sarritan larreetako paisaiekin edo baso-lurzoruen aldi baterako egoerekin nahasten dena. Lurrealdearen Arloko Planean Mendi bakan gisa definitzen diren eremu batzuk mendi-larre gisa agertzen dira Lurrealdearen Zatiko Planaren aurrerapenean. Proposatzen den soluzioa kategoria horren erabilera baztertzea eta Lurrealdearen Zatiko Planean ez jasotzea da, ez baitu planteamendu berririk gehitzen.

Lurrealdearen Arloko Planak Mendi-larreen kategoria erabiltzen du, baina Izarraitz mendiguneari baino ez dio aplikatzen. Lurrealdearen Zatiko Planak goialdeko eta kostaldeko larre tradizional estentsiboetako beste zona batzuetara hedatzen du izendapen hori. Proposatzen den soluzioa Lurrealdearen Arloko Planak unitate honi buruz egiten duen planteamendua ez jasotzea eta Lurrealdearen Zatiko Planean argudiatzen dena erabiltzen jarraitzea da.

- Lurrealdearen Arloko Planak Kostaldeko itsaslabarreko unitate bat mugatzen du, baina ez du bere esanahia azaltzen. Lurrealdearen Zatiko Planak itsasertzeko labarrak babes bereziko zona gisa mugatzen ditu. Lurrealdearen Zatiko Planaren zehaztapenei jarraitzea proposatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza antolatu eta babesteko Lurrealdearen Arloko Planekoekin bat baitatuz.
- Lurrealdearen Arloko Planak Harkaitzegiko unitate bat mugatzen du eta hori kontserbatzeko irizpideak hartu beharra dagoela iradokitzen du. Lurrealdearen Zatiko Planean ez da unitate hori berariaz mugatzen; babes bereziko zona gisa proposatzen diren mendiguneetan barne hartzen da.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurrealdearen Arloko Planean Ingurumen-hobekuntzako kategoria puntualki parekatzen zaie leheneratu beharra duten harrobi-eremuei. Lurrealdearen Zatiko Planean, aitzitik, kategoria honek garrantzi handiagoa hartzen du eta baso natural degradatuen eremu ugari eta era askotako leheneratze ekologiko eta paisajistikoko neurrien premia duten sakanak eta lurrak hartzen ditu bere baitan. Azken finean, beste kategoria iraunkorragoetarantz (babes berezia, lur gaineko ibilguak, etab.) eboluzionatzeko aukera emango dieten jardun-programak behar dituzten zonatarako aldi baterako kategoria da, etorkizunean ingurumen-balioko funtzioak beteko dituzten eremuei zuzendua.
- Ingurumen-baldintzatzaile gainjarriei dagokienez, adostasun handiagoa dago Lurrealdearen Arloko Planaren eta Lurrealdearen Zatiko Planaren zehaztapenen artean. Lurpeko akuiferoak poluitzeko arriskua duten lurren mapetan, Lurrealdearen Zatiko Plana zorrotzagoa da kalifikazioan, eta urrakortasun handia eta ertaina erabiltzen ditu; Lurrealdearen Arloko Planak urrakortasun handia bakarrik erabiltzen du. Lurrealdearen Zatiko

Planak Arranomendi-Goikola sakaneko lur gaineko akuiferoaren babesaren barne hartzen du.

- Higadura-arriskueterako, Lurraldearen Arloko Planak lurraldea higadura-arrisku txikiagoarekin kalifikatzen duen metodologia erabiltzen du eta Lurraldearen Zatikoko Planak zona sentikorragoak azaltzen ditu.
- Interes naturalistikoko eremuetarako, Lurraldearen Arloko Planak ondoko espazioen mugaketa eguneratua eskaintzen du:
 - EIL ES2120017. Arno-Olatz, 1054 ha.
 - EIL ES2120018. Izarraitz, 1531 ha (502 ha Urola haranean).
 - Mutriku-Saturrarango itsaslabarrak.
 - Aitzuri lurmuturreko itsaslabarrak (Zumaia).
 - Karakate-Irurutzeta-Agerreburu mendigunea.
 - Haranerreka-Kilimon harana.
 - Andutz mendia.

Mugaketa hori Natura 2000 sareko Erkidegoaren Interesekeo bi Lekuen (EIL) kasuan gehitu beharko da.

5.8. ETXEBIZITZEN SUSTAPEN PUBLIKORAKO LURZORUA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

Bizitegi-lurzorua antolatzekeo eredu gisa Lurraldearen Zatikoko Planaren aurrerapen-dokumentuan proposatutakoa jasotzen du, baita bertan proposatutakoko kuantifikazioak ere.

Honako jardun-irizpide hauek planteatzen ditu eragile publikoentzat, adierazitako ereduaren indartzeko helburuarekin:

- Eibar-Ermua esparrua eta Soraluze-Placencia de las Armasko gunea: hiri-ehuna biziberritzeko eta arintzeko jardunak behar dira, lehen bi udalerrien arteko egituraketa handiagoa ahalbidetuko duen espazio zaharkituak edo gainbeheran daudenak suspertzea hartuz lehentasunezko eginkizuntzat.
- Elgoibarko esparrua: hirigintza-estrategia gaur egun dauden baliabideak administratzean eta barne-berrikuntzako prozesuak jasaten ari diren eremuetakoren bat leheneratzean datza, hala babespeko etxebizitzak eraikitzekeo lurzoru berriak lortu ahal izango baitira.
- Mutriku-Deba esparrua eta Mallabia eta Mendaroko udalerrak: hirigintza-estrategia hurrenez hurreneko udalekin ituntze-prozesuak ezartzean datza, gaur egun dauden guneetan hiri-garapen integratu berriko eremuak planteatu ahal izateke.

Lurraldearen Zatikoko Plana guztiz bat dator Lurraldearen Arloko Planak etxebizitzaren arloko berariazko jardunei buruz jasotzen dituen zehaztapenekin, eta horrelaxe jasotzen dira hurrengo puntuko dagokion atalean.

5.9. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA SORTZEKO ETA SALTOKI HANDIAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

Jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatzeko arautze-lana zuzenduko duen elementua izango den "Lurralde-eredua" hartzea proposatzen du.

Eredu hori hirien sistemaren egitura, eremu funtzionalen arabera lurraldearen azpibanaketa eta garraio eta komunikabideen oinarritzko sarea osatzen duten elementuak gainjartzean oinarritzen da. Hala, gaur egungo industria-garapena kokatzen deneko hainbat korridore eta hazkunde posibleko ardatzak konfiguratzeko dira.

Horrela, jarduera logistikorako lehentasuna duten hiru eremu ezartzen dira. Eremu horietan edo beren konexio-korridoreetan oinarrituta bultzatu behar dira garapen-eremu berriak.

Ereduari bi alderdi koiuntural gehitzen dizkio:

a.- Udalerriak jarduera ekonomikoetarako lurzorurako duten problematikaren arabera kategorizatzea:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak.
- Hazkunde moteleko udalerriak.
- Garapen txikiko udalerriak.

b.- Sustapen-eremuak.

- Ekonomia suspertzeko eta industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen hirigintza leheneratzeko sustapena.
- Eskualde-buruak dinamizatzeko sustapena.
- Landa-inguruetan industria-jarduera bultzatzeko sustapena.

Debabarreneko eskualde-egiturari dagokionez, honako hau ezartzen du:

- Elgoibar, Eibar, Ermua eta Soralue-Placencia de las Armas osatzen duten esparrua jarduera ekonomikoak ezartzeko eta garatzeko "eremu estrategiko" batean dago.
- Eskualdeko udalerri guztiak "Lehentasunezko intereseko udalerrien" kategorian sartzen dira, eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen politikak honako hau proposatzen du:
 - Finkatutako lurzorua hobetzea.
 - Industria-eremu zaharkituak birmoldatzea, enpresen lekualdaketa erraztuz eta jarduera-eremu berrietarako hutsik dauden espazioak berreskuratuz.
 - Gaur egun dauden poligonoak bultzatzea, desblokeatzea eta sustatzea.
 - Interes estrategiko orokorreko guneetan jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzea.

Ermua-Eibar esparrua ekonomia suspertzeko eta industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen hirigintza leheneratzeko "sustapen-eremu" gisa sailkatzen da.

Ildo horretan, industria-ehunen birmoldaketa integrala eta hirigintza-berregituraketa planteatzen da, eta lurzoru hauen kalifikazioa bere horretan uzten saiatzea, bertan jarduera ekonomiko berriak hartu ahal izateko.

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren dimentsionamendua kalkulatzeko oinarritzko faktore hauek sartzen dira:
 - Hiri-plangintzan jarduera ekonomikoetarako lurzoru bideragarri gisa kalifikatuta eta okupatu gabe dagoen lurzorua.
 - Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko azalera.
 - Planaren proiektzio-aldirako (16 urte) eragiketa partikularrak edo tokikoak hartzeko beharrezkoak diren lurzoru berrien azalera.

Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen ekonomikorako interes estrategikokotzat definitu behar diren eta, horrenbestez, administrazioak lurzoru publikoa sortzeko eragiketatzat jo behar diren jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzeko eragiketei dagokienez, "Jarduera ekonomiko orokorretarako poligonoen sarea" deritzon tipologian barne hartutako jardunak aurkitzen ditugu Debabarreneko eremu funtzionalean.

- Albitzuri eskualde-poligono berria (Elgoibar) (aurreikusitako poligonoaren garapena): 20 ha.
- Mutrikuko eskualde-industrialdea (Mijoa) handiagotzea = > 5 ha.
- Eskualde-industrialde berria Itziarren (Deba) (poligonoan hutsik dauden lurzoruak garatzea): 5 ha.
- Eskualde-poligono berria Mallabian: 20 ha.



Albitzuri poligonoa, Elgoibarren

MERKATARITZA EKIPAMENDUEN ANTOLAMENDUEI BURUZKO PROPOSAMEN, GOMENDIO ETA IRIZPIDE OROKORRAK.

"Merkataritza Ekipamendu Handi edo Astialdiko Zentro" gisa definitzen da hainbat zerbitzu-ekipamendu biltzen dituen hirugarren sektoreko eraikuntzako hirigintza-ezarpen oro, osotasunean honako hirigintza-magnitute hauetara iristen dena:

- Plataforma-azalera garbia: 15.000 m².
- Eraiki daitekeen sabai-azalera: 5.000 m².

Merkataritza-ekipamendu handiak ezartzeko lurralde-araudia:

- Beren kokapena dagokien Lurraldearen Arloko Planean definitutako esparru estrategikoetara mugatuko da.
- Beren kokapena eta tamaina Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien sailkapenaren arabera arautzen da:
 - A kategoria, Zentraltasun handieneko udalerriak: Gehienezko plataforma-azalera garbia: 75.000 m²; Gehienezko sabai-azalera eraikia: 25.000 m².
 - B kategoria, Eskualde-zentraltasuneko udalerriak: Gehienezko plataforma-azalera garbia: 40.000 m²; Gehienezko sabai-azalera eraikia: 13.000 m².
 - C kategoria, Gainerako udalerriak: Gehienezko plataforma-azalera garbia: 15.000 m²; Gehienezko sabai-azalera eraikia: 5.000 m².

Debabarreneko eremu funtzionalean, Eibar eta Elgoibarko udalerriak "B. Eskualde-zentraltasuneko udalerriak" kategoriakotzat jotzen dira eta gainerako udalerriak "C" kategoriakotzat.

5.10. EUSKAL KULTURA ONDAREA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

Euskal Kultura-ondarea Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planaren arabera, plangintzari buruzko zehaztapen jakin batzuk proposatzen dira, Lurraldearen Zatiko Planean eragina dutenak eta udal-plangintza orokorrean eragina dutenak bereiziz.

a. Lurraldearen Zatiko Plana.

- 1 Lurraldearen Zatiko Plan (LZP) honen edukiek errespetatu egiten dute Lurraldearen Arloko Planaren zerrendan barne hartutako udalaz gaindiko intereseko ondasunen babesa.
- 2 Lurraldearen Zatiko Planak Lurraldearen Arloko Planaren printzipioak jasotzen ditu bere zehaztapenen artean, plangintzak ondasunak babesteko arautze-esparru moduan, betiere zehaztapen horiek ondasunen babesean eragina badute. Era berean, bere dokumentazio grafikoan Lurraldearen Arloko Planeko kultur intereseko ondasun garrantzitsuenak jasotzen ahalegintzen da, batez ere monumentu-multzo eraikiak, eremu arkeologikoak eta parke arkeologikoak eta, bereziki, bere zehaztapenek eraginpean hartzen dituzten ondasunak eta bere xedetarako adierazgarritzat jotzen dituenak, 2. eranskinean zehaztutakoak hain zuzen.

b. Udal-plangintza.

- 1 Plangintzak araudia maila orokorrean eta/edo xehatuan aplikatzeko aukera ematen duten esparruetan zatituko du lurraldea, kultur intereseko eremuak ezarri; eremu horien mugaketa bat etorriko da ondasun higiezinarekin.
- 2 Plan orokorrak eta arau subsidiarioak Lurraldearen Arloko Planera egokitzeko dokumentuek, beren antolamendu-kategorien artean, hala hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian nola urbanizaezinean, 2.2. epigrafeak aintzat hartzen duen ondasunen kategorizazio nagusiarekin bat etorriko den kultur intereseko lurzoruen edo eremuen hirigintza-kalifikazioa aintzat hartuko dute, hala badagokio honako zona hauek bereiz ditzan:
 - EM zonak, monumentu-eraikuntza eta -espazioenak.
 - CME zonak (MME), eraikitako monumentu-multzoenak.
 - ZPA zonak (UAZ), presuntzio arkeologikokoak.
 - ZA zonak, arkeologikoak: ZA-1 zonak (Kobazuloetako historiaurreko santutegiak), ZA-2 zonak (Hiribilduak) eta ZA-3 zonak (Bestelako aztarnategiak edo lekuak).

Hirigintza-kalifikazio hori plangintzakoari gainjarria izango da adierazitako babes-zonetan, baina kontraesanik izanez gero plangintzakoari nagusituko zaio. Beraz, antolamenduz kanpo geratuko dira bai Lurraldearen Arloko Planak debekatutako erabilerak, bai ondasunen babesarekin bat ez datorren edo bateraezina den plangintzaren zehaztapenetako edozein.

- 3 Udal-plangintza Lurraldearen Arloko Planera egokitzeko dokumentuak, gainera, honako eduki hauek barne hartuko ditu:
 - a. Babestu behar diren ondasunen identifikazio zehatza, hirigintza-legeriak nahitaezkozat ezartzen duen Kultur Ondare Higiezinaren Katalogoaren bitartez. Katalogoa Lurraldearen Arloko Planeko zerrendaren arabera egingo da, eta behin-behineko mugaketak eta behin betikoak barne hartuko ditu, baita ondasunen oinarritzko babes-mailetako kategorizazioa ere: kalifikatuak, inbentariatuak, aurrekalifikatuak, aurreinbentariatuak, kalifikagarriak, inbentariagarriak eta toki-babeseakoak.
 - b. Gutxienez honako eduki hauek garatuko dituen babes-araubidea:
 - Lurzoruaren eta babestu beharreko elementuen erabilera-araubidea.
 - Jardun arkeologikoetako eraikuntza-ekintzen araubidea.
 - Lursailak zatitzeko araubidea.
 - Zuzenean esku hartzeko araubidea.
 - Garapen-plangintzaren araubidea.
 - c. Zonen behin betiko mugaketak, are inguruenak ere, horiek definitzea, zuzentzea eta erregulatzea beharrezkoa edo komenigarria denean.

- 4 Udal-plangintzako babes-araubidea proportzionaltasunaren printzipioan oinarrituta egingo da, esku-hartzeak ezarritako babes-mailetara egoki daitezen.
- 5 Udal-planek berariaz zehaztu beharko dute zein eremu garatu ahal izango diren zuzeneko jardunen bidez eta zein eremu garatu behar diren plangintza bereziaren edo partzialaren bitartez.
- 6 Planek egikaritze-unitateak edo jardun-unitateak mugatu ahal izango dituzte eta, Lurraldearen Arloko Planaren babes-xedeen kalterik gabe, interes pribatu legitimoak babestuko dituzten kudeaketa-sistemak ezarri ahal izango dituzte, gerta litezkeen muga bereziak konpentsatuta gera daitezen Estatuko 6/1998 Legean xedatutakoari jarraiki: nolana ere, egikaritze-unitateek osotasunean hartu beharko dituzte ondasunak.
- 7 Kultur ondasun indibidual baten mugaketan barne hartutako lurzoruak plangintza-unitatea osatuko du, edo osorik sartuko da udal-planek eta garapeneko ezartzen dituzten plangintza-unitateetan, babesaren kalterik gabe.

Halaber, honako kontzeptu hauek aintzat hartuko dituen garapen-proposamena egingo du:

- Ibilbide historikoak eta kulturalak.
- Hiribilduak eta multzoak.
- Eskualdeko monumentuak.
- Eskualdeaz gaindikoak: Santiago bidea eta beste zenbait.
- Tematikoak (esate baterako trikuharriak, etab.).
- Kultur parkeak.
- Parke arkeologikoak.
- Monumentu-parkeak.
- Sistemen integrazioa.
- Kultur ibilbideen eta aisialdirako eremuen elkartea.
- Merkataritza-jarduera, kongresu eta abarren elkartea, kultur jarduerekin.
- Prestakuntza-zentro espezializatuak.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA. BIBLIOGRAFIA BILDUMA. INGURUNE FISIKOA.

I.1. ERANSKINA. INTERESEKO NATURA ESPAZIOAK.

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NATURA BABESTEN DUEN LEGEA (1994).
- 1.2. Natura-parkeak: NP 12, Izarraitz, oraindik deklaratu gabe.
- 1.5. Zuhaitz bereziak: DB 1. Abeletzeko artea, Olatzen, eta DB 2. Otaolaerdiko artea, Eibarren.
2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INTERESEKO NATURA ESPAZIOEN ETA ENKLABEEN KATALOGOA

"Gipuzkoako interes naturalistikoko espazioen azterketa. Bilduma eta sakontze-lana" (1989)* azterlanean barne hartutako espazioak jasotzen ditu Ez dakar legezko babes-neurririk; espazioak plangintzan barne hartzea aholkatzen da, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan batik bat.

26. Mutriku-Saturrarango itsaslabarrak* (Itsas hegaztiak)
27. Arno-Olatz mendia (artadiko landaredia eta horri lotutako fauna, paisaia eta geomorfologia) (ES2120017 Erkidegoaren Intereseke Lekua - EIL; Azalera: 1.054 ha)
28. Aitzuri lurmuturra (Mendata)* - Zumaia itsasertzeko zerrenda (geomorfologia, atsedeen-erabilera, hegazti-fauna)
32. Andutz mendia
33. Haranerreka
34. Izarraitz (ES2120018 Erkidegoaren Intereseke Lekua - EIL; Azalera: 1.531 ha)
36. Karakate-Irurutzeta-Agerreburu
3. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEEN AURRERAPENA (1992). NATURA ESPAZIOAK ETA AISIALDIRAKO EREMUAK.
 - 3.1. Babestutako natura-espazioak
 - 3.2. Natura-interes bereziko eremuak: Izarraitz (Debabarreneko eremu funtzionala gainditzten duen mugaketarekin)
 - 3.3. Aisialdirako eremuak: 48. Mendata-Sakoneta lurmuturra, 49. Galdona-mendi-Saturrarán, 50. Arrate-Kalamua
 - 3.4. Zenbakitu gabeko aisialdirako eremuak eta beste zenbait bazter: Zazpi hondartza, Mutrikuko hondartza, Ondarbeltz hondartza, Debako hondartza
4. UDALEKO HIRI PLANGINTZA.

Landa-parkeak eta natura-parkeak: Mendata lurmuturreko parkea (Deba), Saturrarán itsasadarreko parkea (Mutriku), Santa Ana baselizako parkea (Mendaro), Haranerrekako parkea (Mendaro), Irurutzeta-Karakateko parkea (Soraluze-Placencia de las Armas), Arrate parkea (Eibar), Urko-Usartza

gainekeo parkea (Eibar), Eibar-Iparraldeko hiri-inguruko parkea, Betiondo hiri-inguruko parkea (Ermua)

5. DEBABARRENEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN AURRERAPENA (1995).

Hirigintza-garapenetik babestu beharreko zonak: Astigarribiako harana (Deba), Deba-Sasiolako ibarra, Eitzaga-Zaldibarko eremua

6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ONDARE ARKEOLOGIKO, HISTORIKO ETA KULTURALAREN KATALOGOA

7. GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA (1982).

8. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURU HEZEAK BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (1997). Debako itsasadarreko paduraren babes bereziko zona

9. GIPUZKOAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAK. GIPUZKOAKO ANTOLAMENDUAREN PROBLEMATIKARI BURUZKO ANALISI, DIAGNOSTIKO, EBALUAZIO ETA PROSPEKTIBAKO LANAK ETA IRIZPIDEAK, HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK FORMULATZEKOAK. NATURA-INGURUNEA - LANDA-MUNDUA (1993).

Katalogatutako natura-espazio jakin batzuk handiagotzea: Haranerreka, Arno eta Andutz mendiak, eta haltzadi eta artadi kantauriarrak dauden Deba ibaiaren ur-bazterrak barne hartzea.

I.II. ERANSKINA. ONDARE NATURALISTIKOA: FLORA.

Debabarreneko flora arraroaren eta oso arraroaren inbentarioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Flora Katalogoaren arabera (1987).

R: Arraroa; RR: Oso arraroa.

ESPEZIEA	EGOERA	HERRIA EDO GUNEA	HABITATA
<i>Huperzia selago</i>	R	Oiz	Harkaiztegia
<i>Lycopodium clavatum</i> *	RR	Kalamua	Otalurrak
<i>Equisetum x moorei</i>	R		Hezeguneak
<i>Stegnogramma pozoi</i>	R	Andutz	Hostozabalak
<i>Asplenium viride</i>	R	Oiz	Harkaiztegia
<i>Polystichum x illyricum</i>	RR	Oiz	Harkaiztegia
<i>Woodwardia radicans</i> ** +	R	Mutriku	Hostozabalak
<i>Quercus humilis</i>	R		Haritzia
<i>Osyris alba</i>	R		Artadia
<i>Rumex acetosella</i>	R	Eibar	Larrea
<i>Scleranthus annuus</i> subsp. <i>annuus</i>	R	Karakate	Erruderala
<i>Isopyrum thalictroides</i>	R	Izarraitz	Pagadia
<i>Ranunculus arvensis</i>	R		Erruderala
<i>Ranunculus parviflorus</i>	R	Arno	Erruderala
<i>Meconopsis cambrica</i>	R	Izarraitz	Hostozabalak
<i>Hesperis matronalis</i> subsp. <i>candida</i>	R		Galeria-basoa
<i>Mathiola incana</i>	R		Itsaslabarrak
<i>Lepidium ruderales</i>	R	Deba	Erruderala
<i>Lepidium latifolium</i>	R	Deba	Galeria-basoa
<i>Diplotaxis muralis</i>	R		Hareatzak
<i>Eruca vesicaria</i> subsp. <i>sativa</i>	R	Arrate	Erruderala
<i>Sedum telephium</i> subsp. <i>maximum</i>	R		Hormaak
<i>Sedum hirsutum</i> subsp. <i>hirsutum</i>	R		Harkaiztegia
<i>Filipendula vulgaris</i>	R	Itziar	Artadia
<i>Rosa stylosa</i>	R	Elgoibar	Hostozabalak
<i>Rosa corymbifera</i>	R	Mendaro	
<i>Rosa deseqlisei</i>	R		
<i>Rosa agrestis</i>	R	Deba	Artadia
<i>Alchemilla fulgens</i>	R	Izarraitz	Harkaiztegia
<i>Sorbus torminalis</i>	R	Deba	Hostozabalak
<i>Genista tinctoria</i>	R	Deba	Haritzia
<i>Adenocarpus complicatus</i>	R	Arrate, Soraluze-Placencia de las Armas	Hostozabalak
<i>Vicia incana</i>	R		Erruderala
<i>Lathyrus sphaericus</i>	R	Arrate, Soraluze-Placencia de las Armas	Erruderala
<i>Lathyrus nissolia</i>	R	Eibar	Belardiak
<i>Trifolium arvense</i>	R	Arrate	Erruderala
<i>Trifolium subterraneum</i>	R	Arrate, Karakate	Erruderala
<i>Lotus subbiflorus</i> subsp. <i>subbiflorus</i>	R	Arrate	Erruderala
<i>Lotus angustissimus</i>	R	Arrate	Erruderala
<i>Scorpiurus subvillosus</i>	R	Deba	Artadia
<i>Geranium sanguineum</i>	R	Itziar	Hostozabalak
<i>Geranium pusillum</i>	R	Eibar	Erruderala
<i>Erodium moschatum</i>	R	Arno, Lastur	Erruderala
<i>Euphorbia peplis</i>	RR		Hareatzak
<i>Euphorbia angulata</i>	R	Andutz, Mendaro	
<i>Rhamnus pumilus</i>	RR	Izarraitz	Harkaiztegia
<i>Tilia cordata</i>	R	Mendaro, Deba	Hostozabalak
<i>Hypericum elodes</i>	R	Oiz	Hezeguneak
<i>Hypericum richeri</i> subsp. <i>burseri</i>	R		Harkaiztegia
<i>Tuberaria guttata</i>	R		
<i>Eryngium campestre</i>	R	Izarraitz	Belardiak
<i>Pimpinella siifolia</i>	R	Izarraitz	Harkaiztegia
<i>Silaum silaus</i>	R	Sakoneta	Hostozabalak
<i>Apium graveolens</i>	R	Deba	Hezeguneak
<i>Peucedanum carvifolia</i>	R	Deba	Artadia

ESPEZIEA	EGOERA	HERRIA EDO GUNEA	HABITATA
<i>Heracleum sphondilium</i> subsp. <i>pyrenaicum</i>	R	Erlo	Harkaiztegia
<i>Laserpitium latifolium</i>	R	Oiz	Hostozabalak
<i>Torilis japonica</i>	R		Hostozabalak
<i>Erica arborea</i> subsp. <i>arborea</i>	R	Deba, Mutriku, Mendaro	Artadia
<i>Glaux maritima</i>	R	Deba, Mutriku	Padura
<i>Centaurium tenuiflorum</i>	R		Erruderala
<i>Galium odoratum</i>	R	Izarraitz	Pagadia
<i>Galium pinetorum</i>	R	Goltzibar	Artadia
<i>Myosotis decumbens</i> subsp. <i>teresiana</i>	R	Kalamua, Mallabia	Harkaiztegia
<i>Ajuga pyramidalis</i>	RR	Elgoibar	
<i>Lamium hybridum</i>	R		Erruderala
<i>Lamium amplexicaule</i> subsp. <i>amplexicaule</i>	R		Erruderala
<i>Ballota nigra</i> subsp. <i>foetida</i>	R		Erruderala
<i>Stachys palustris</i>	R		Ibai-bazterrak
<i>Misopates orontium</i>	R	Arrate	Erruderala
<i>Kickxia elatine</i> subsp. <i>elatine</i>	R		Erruderala
<i>Veronica orsiniana</i>	RR		Larrea
<i>Euphrasia hirtella</i>	R	Andutz	Belardiak
<i>Euphrasia nemorosa</i>	R	Sakoneta	Hostozabala
<i>Euphrasia stricta</i> subsp. <i>edouardi</i>	R	Mendaro	Belardiak
<i>Euphrasia alpina</i>	R	Izarraitz	Larrea
<i>Euphrasia minima</i> subsp. <i>minima</i>	R		Larrea
<i>Euphrasia minima</i> subsp. <i>font-queri</i>	R		Larrea
<i>Orobanche rapum-genistae</i>	R	Soraluze-Placencia de las Armas	Otalurrak
<i>Pinguicula lusitanica</i> **	R	Oiz	Hezeguneak
<i>Plantago arenaria</i>	RR	Mendaro	
<i>Viburnum opulus</i>	R		Hariztia
<i>Centranthus lecoqii</i>	R		Hartxingadiak
<i>Bellis sylvestris</i>	R		Larrea
<i>Aster linosyris</i>	R	Deba	
<i>Logfia gallica</i>	R		Larrea
<i>Phagnalon sordidum</i>	R		Harkaiztegia
<i>Anthemis arvensis</i>	R		Erruderala
<i>Chamomilla suaveolens</i>	R	Saturraran	Erruderala
<i>Tanacetum parthenium</i>	R	Arrate	Erruderala
<i>Leucanthemum maximum</i>	R	Deba	Harkaiztegia
<i>Artemisia verlotiorum</i>	R	Deba	Erruderala
<i>Senecio mikanioides</i>	R		Erruderala
<i>Senecio erucifolius</i>	R	Deba	Otalurrak
<i>Senecio sylvaticus</i>	R	Arrate, Goltzibar	Hariztia
<i>Hypochoeris glabra</i>	R		Amezitia
<i>Hieracium hypeurium</i> subsp. <i>pinguistolonum</i>	RR	Mutriku	
<i>Hieracium niveum</i> subsp. <i>niveum</i>	R		Harkaiztegia
<i>Hieracium auricula</i> subsp. <i>auricula</i>	R	Kalamua, Karakate, Izarraitz	Larrea
<i>Hieracium praecox</i> subsp. <i>cinerascens</i>	R	Izarraitz	
<i>Hieracium cerinthoides</i> subsp. <i>cerinthoides</i>	R	Oiz	Harkaiztegia
<i>Hieracium cerinthoides</i> subsp. <i>neochlorum</i>	R	Oiz	Harkaiztegia
<i>Hieracium cerinthoides</i> subsp. <i>rhomboidale</i>	R	Oiz	Harkaiztegia
<i>Hieracium cerinthoides</i> subsp. <i>brachycerithe</i>	R	Oiz	Harkaiztegia
<i>Hieracium olivaceum</i> subsp. <i>olivaceum</i>	R	Oiz	Harkaiztegia
<i>Elodea canadensis</i>	RR	Kilimon	Ibaiak
<i>Potamogeton natans</i>	R	Izarraitz	Hezeguneak
<i>Potamogeton perfoliatus</i>	RR		Ibaiak
<i>Potamogeton pusillus</i>	R		Hezeguneak
<i>Potamogeton crispus</i>	R	Kilimon	Hezeguneak
<i>Potamogeton x variifolius</i>	RR	Izarraitz	Hezeguneak
<i>Lilium martagon</i>	RR		Galeria-basoa

ESPEZIEA	EGOERA	HERRIA EDO GUNEA	HABITATA
<i>Lilium pyrenaicum</i>	R		Harkaiztegia
<i>Allium vineale</i>	R	Deba, Mutriku	Erruderala
<i>Allium oleraceum</i>	RR		Erruderala
<i>Allium ursinum</i>	R	Izarraitz	Hostozabalak
<i>Paris quadrifolia</i> **	RR	Izarraitz	Harkaiztegia
<i>Narcissus bulbocodium</i> subsp. <i>citrinus</i>	R	Oiz	Harkaiztegia
<i>Iris foetidissima</i>	R		Artadia
<i>Juncus subulatus</i>	RR	Deba, Mutriku	Hezeguneak
<i>Festuca paniculata</i> subsp. <i>longiglumis</i>	R	Andutz	Larrea
<i>Festuca ovina</i>	R	Oiz	Harkaiztegia
<i>Festuca cf. lemanii</i>	R	Izarraitz	Harkaiztegia
<i>Poa angustifolia</i>	RR		Larrea
<i>Puccinellia maritima</i>	R	Deba, Mutriku	Padura
<i>Deschampsia cespitosa</i> subsp. <i>cespitosa</i>	R		Hostozabalak
<i>Agrostis schleicheri</i>	R	Izarraitz	Harkaiztegia
<i>Parapholis strigosa</i>	R	Deba, Mutriku	Padura
<i>Phalaris arundinacea</i>	RR		Ibai-bazterrak
<i>Phalaris aquatica</i>	R	Itziar, Eibar	Erruderala
<i>Piptatherum miliaceum</i>	R	Mutriku, Deba	Harkaiztegia
<i>Eleocharis palustris</i>	R	Izarraitz	Hezeguneak
<i>Eleocharis multicaulis</i>	R	Oiz	Hezeguneak
<i>Cyperus fuscus</i>	R		Hezeguneak
<i>Cyperus flavescens</i>	R		Hezeguneak
<i>Carex binervis</i>	R		Larrea
<i>Carex ornithopoda</i> subsp. <i>ornithopoda</i>	R	Andutz, Izarraitz	Larrea
<i>Carex montana</i>	RR	Andutz	Otalurrak
<i>Carex pulicaris</i>	R	Oiz, Andutz	Hezeguneak
<i>Platanthera bifolia</i>	R	Andutz	Larrea
<i>Serapias lingua</i>	R		Artadia

Arriskuan dauden espezieen euskal katalogoa (1998): * Espezie arraroa; ** Interes bereziko espeziea.

Habitat 92/43/CEE Arteztaraua: + II. eranskina.

I.III. ERANSKINA. ONDARE NATURALISTIKOA: FAUNA.

Debabarreneko faunaren inbentarioa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ornodun kontinentalen atlasaren arabera (1985).

ARRAINAK	Buteo buteo	Cettia cetti	Emberiza citrinella
Salmo trutta	Falco tinunculus	Cisticola juncidis	Emberiza cia
Barbus graellsii	Falco subbuteo (R)	Locustella naevia	Miliaria calandra
Chondrostoma miegii *	Coturnix coturnix	Hippolais polyglotta	JGAZTUNAK
Phoxinus phoxinus	Larus cachinans	Sylvia undata +	Erinaceus europaeus
Barbatula barbatula	Columba livia	Sylvia borin	Sorex coronatus
Anguilla anguilla	Streptopelia turtur	Sylvia atricapilla	Sorex minutus
Chelon labrosus	Cuculus canorus	Phylloscopus bonelli	Neomys fodiens
Platichthys flesus	Tyto alba	Phylloscopus collybita	Crocidura suaveolens
ANFIBIOAK	Otus scops	Regulus ignicapillus	Crocidura russula
Salamandra salamandra	Strix aluco	Muscicapa striata	Talpa europaea
Triturus helveticus	Caprimulgus europaeus (IB) +	Aegithalos caudatus	Lepus europaeus
Triturus marmoratus **	Apus apus	Parus palustris	Sciurus vulgaris
Alytes obstetricans **	Jynx torquilla (IB)	Parus cristatus	Clethrionomys glareolus
Bufo bufo	Picus viridis	Parus ater	Arvicola sapidus
Rana iberica (IB) **	Dendrocoptes major	Parus caeruleus	Microtus pyrenaicus
Rana temporaria	Alauda arvensis	Parus major	Microtus lusitanicus
Rana perezi	Ptyonoprogne rupestris	Sitta europaea	Microtus agrestis
NARRASTIAK	Hirundo rustica	Certhia brachydactyla	Micromys minutus
Anguis fragilis	Delichon urbica	Lanius collurio * +	Apodemus sylvaticus
Lacerta schreiberi (IB) *	Anthus trivialis	Garrulus glandarius	Rattus rattus
Lacerta bilineata **	Anthus spinoletta	Pica pica	Rattus norvegicus
Lacerta vivipara	Motacilla cinerea	Corvus corone	Mus domesticus
Podarcis hispanica	Motacilla alba	Corvus corax (IB)	Glis glis (K)
Podarcis muralis **	Cinclus cinclus (IB)	Passer domesticus	Vulpes vulpes
Coronella austriaca **	Troglodytes troglodytes	Passer montanus	Mustela nivalis
Coronella girondica	Prunella modularis	Fringilla coelebs	Mustela lutreola (K) *
Elaphe longissima (IB) **	Erithacus rubecula	Serinus serinus	Mustela putorius (IB)
Natrix natrix	Phoenicurus ochruros	Serinus citrinella	Martes foina
Vipera seoanei	Saxicola torquata	Carduelis chloris	Meles meles
HEGAZTIAK	Oenanthe oenanthe	Carduelis carduelis	Genetta genetta
Circaetus gallicus (R) +	Turdus merula	Carduelis spinus (IB)	Felis silvestris (IB) **
Circus cyaneus (IB) +	Turdus philomelos	Acanthis cannabina	Sus scrofa
Accipiter nisus (IB)	Turdus viscivorus	Pyrrhula pyrrhula	

Arriskuan dauden espezieen euskal katalogoa (1996): K: kaltebera; R: arraroa; IB: interes bereziko.

Habitat 92/43/CEE Arteztaraua: * II. eranskina; ** IV. eranskina.

Hegaztien 79/409/CEE Arteztaraua: + I. eranskina.